

Goienkaria

2009ko otsailaren 6a > Egubakoitza > IX. urtea > 363. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

G2a

Oteitzaren lana
ikusgai
Arrasaten > 37

ARRASATE

Desfibriladorea nola erabili ikasten
dihardute Udal langileek > 13

BERGARA

14 eta 17 urte artekoendako
gazteleku egingo du Udalak > 19

KIROLA
Jose Luis
de la Cuesta

Hurkoa
fundazioa > 09



SAN MARTIN IKASTETXEA Eskolako irakasle, guraso eta ikasleak eskolako jolasleku bat ziren Obatu Euskal Eskola Publikoari oihukatzeko.

MIREIA BIKUÑA

HEZKUNTZA > EUSKAL ESKOLA PUBLIKOIA

Euskal Eskola Publikoaren jaia Bergaran, ekainaren 7an

ANTOLAKUNTZA Bergarako
San Martin herri eskolak
antolatuko du aurten jaia

LELOA 'Obatu Euskal Eskola
Publikoari' leloarekin
herriarrak erakarri nahi dituzte

LAU GUNE Jaiak lau gunet
izango ditu; bat kultura anitzasunari
eskainiko diote > 06

POLITIKA > BILKURA
D3M taldea
babesteko
mobilizazioa

Manifestazioa deitu
dute biharko,
Arrasaten > 14

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Gutunak > 10
Herriak > 13-33
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Berri-zakua > 44
Eskelak > 44-45
Non-zer > 46-47

EKONOMIA > BALANTZEA

Euskadiko Kutxak %11,5 gutxiago

2007an baino
irabazi gutxiago izan
arren, 100,5 milioiko
etekinak izan
zituzten iaz > 07

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Ibarreko bideak konpontzen

Gidariendako jakina da Debagoieneko
errepeideen egoera ez dela
onena. Bergarako eta Arrasateko
saihesbideak, esaterako, zuloz
beteta daude. Lehenengoa konpontzen
dihardute eta udaberrian
ekingo diote besteari > 02-03



Mahaingurua GOITBn

Eguenean, otsailak 12, 21:30ean


Parte hartuko dute:

- > Joseba Egibar (EAJ)
- > Ezker abertzalea
- > Jesus Mari Larrazabal (EA)
- > Mikel Arana (EB)
- > Aintzane Ezenarro (Aralar)
- > Rafa Olaizola (PP)



SAHESBIDEA Arrasatetik Aretxabaletara artean udaberrian egin nahi dituzte zuloak estaltzeko lanak.

XABIER URTZELAI



KONPONKETAK Bergarako saihesbidean zorua konpontzen dihardute; hor ere zuloak daude.

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Ibarreko bideetako zuloak gidarien kexa

OZTOPOAK Neguko eguraldiak errepideak hondatu ez ezik konponketak egitea baldintzatzen die langileei, eguraldi lehorra behar baita

KONPONKETAK Bergaran zuloak estaltzeko asfaltatze lanetan dihardute; Arrasate eta Aretxabaleta artean udaberrian egingo dituzte lanak

BIDE BERRIAK Konponketa lanez gain, errepide berrien proiektuak abian dira; AP-1 autobidea Aste Santurako zabaltzea espero dute

IRATI AGIRREZALDEGI > BERGARA
Egunero batera eta bestera autoz ibiltzera oihu gara. Gidariok oihu egin garela dirudi, baina errepideak ohituta edo gertatuta daude egunero horrenbeste ibilgailu hartzeko? Gure ibarreko datuei erreparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko: Arrasateko saihesbidetik 13.400 ibilgailu pasatzen dira egunero; Bergara hegotik 15.000; Bergara iparretik 7.000; eta Arlabandik 10.000. Datu hutsak dirudite, baina ibilgailuetan gidariak daude; errepideen egoera okerrera doan heinean, arazoak dituzten gidariak.

"GI-627 errepideko zorua berritzeko lanak dira aurten Gipuzkoako errepideetan egingo diren konponketarik garrantzitsuenak"

EGURALDIA, ERREPIDEEN KALTE
Errepideek konponketa behar dutela gauza nabarmena da, eta, gurean zein konponketa zehaztu ta dauden jakiteko asmoz Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentura jodugu. Saileko prentsa arduradun Oscar Rekalderen esanetan, "neguan errepideak ohi baino gehiago hondatzen dira eguraldia ren eraginez, eta arrazoi bera da konponketak oztopatzeko atzeratzen dituena ere. Udazkena oso gogorra izan da, eta negua izaten ari da. Euria eta elurra izan dugu etengabe, eta baita zikloia ere.

Horrek oztopatzen du bideko zuloak estaltzeko edo errepideak asfaltatzeko lanak egitea, beroa eta hezetasunik eza behar baitira horretarako. Errepideen mantenerako zerbitzu iraunkorra dago eta maiz egiten dituzte konponketa txikiak hotza egin arren, baina denborarekin hondatu egiten dira errepideak eta konponketa sakonagoak behar dira".

Ibarrean ez da eguraldia arazo bakarra: "AP-1eko obrak direla-eta eraikuntza lanetarako elementuek ere hondatzen dute errepidea, baina arazo hori laster desagertuko dela uste dugu".

ERREPIDE BERRIEN PROIEKTUAK

Errepideko zulo txikien konponketak egiten dituzte sarri, baina gurean badira garrantzi handiagoa lanak 2009an egitekoak edo abian ipintzeoak.

Foru Aldundiko Bide Azpiegiturako Departamentutik jakinarazi digute Eibar-Gasteiz autobidea Aste Santurako zabalduko dutela: "Ibarreko komunikazioendako iraultza izango da". Bestalde, Beasain-Bergara errepidearen Urretxu eta Bergara arteko zatiaren eraikuntza proiektua idazten dihardute, eta,urreikuspenen arabera, aurten esleituko dituzte lanak. Lanon kostua handia da: 185 milioi euro; Ondrixoko saihesbideko lanak iaz hasi zituzten eta datorren urterako amaitzea da asmoa; Bergaran, Amillagan, biribilgunea egingo dute eta udaberrirako 1,3 milioi euroko kostua izango duten lanak hasi nahi dituzte; Oñati eta Zubillaga arteko saihesbidearen trazadura eta eraikuntza proiektuak batera egin nahi dituzte, prozesua arindu eta lanak azkar hasteko; Elgetako saihesbideko bigarren fasearen eraikuntza proiektua ere idazten dihardute.

KONPONKETAK ABIAN

Horiek dira errepide berriak egiteko gurean dauden asmoetariko batzuk, baina zaharrak berritzen ere bada proiekturik abian. GI-627 errepidean zorua berritzenten dihardute Bergaran, eta lanek bi milioi euroko kostua dute. Erre-

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
PREST

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

ATEIREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

OTSAILAK 7 - 11:00 larunbata **AULA MAGNA** ARRASATE-MONDRAÓN
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

OTSAILAK 26 - 17:30 osteguna **AULA MAGNA** ORDIZIA
Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 12 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

OTSAILAK 21 - 10:00-13:00 larunbata **AULA MAGNA** IRUN
Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidaso.eeo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OTSAILAK 19 - 18:00 osteguna **AULA MAGNA** ESKORIATZA
Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu



IRATI AGIRREAZALDEGI



ZULOAK Antzuola inguruko errepideetan ere zuloak daude.

IRATI AGIRREAZALDEGI

pide horretan, Arrasate eta Aretxabaleta artean (7 km) konponketak egingo dituzte eta esleitzeko bidean dira lanok. Horiek 3,8 milioi euroko kostua izango dute. "Ta sei milioi euro errepide bakanreko zorua konpontzeko. Hori da aurten Gipuzkoako errepideetan egingo den konponketa lanik

garrantzitsuena", esan digu Oscar Rekalde. Beharra handia dela ikusita nahi dute lanok lehenbailen egitea, udaberrian hasteado, baina baliteke AP-1 autobidearen irekierari itxoitea, autoen zirkulazioa arindu egingo delako, GI-627 errepidean bertatik bertara egiten diren bidaietako errepideak.

rako erabiliko delako batik bat, eta lanak egitea erraztuko duela horrek. "Gainera, GI-627 errepidea konpontzen hasten direnean, obra handia izango denez, ondo etorriko da autobidea zabalik egotea, gidariei beste alternatiba bat eskaintzeko", esan digute Foru Aldunditik.



BERGARA Saihesbideko zorua konpontzeko obretan dihardute. I.A.

> **AP-1 AUTOBIDEA** Irekiera Aste Santurako iragarri dute.

> **BEASAIN-BERGARA** Errepideko Urretxu-Bergara zatiaren eraikuntza proiektua idazten dihardute. Aurten jendaurrean ipini eta obrak esleitzea espero dute.

> **OLANDIXO** Saihesbidea datorren urterako amaituta.

> **AMILLAGA** Biribilguneko lanak udaberrirako hastea da asmoa.

KALTE-ORDAINAK

Zer egin ibilgailua errepideak kaltetuz gero?

Ibilgailu batek errepidean barrena doala kalteak izanez gero, aukera dago erreklamazioa aurkeztu eta kalte-ordaina jasotzea. Lehenengo, ziurtatu beharko da zeinena den errepidearen ardura. Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela jakiteko, esaterako, www.gipuzkoa.net helbidean kontsulta daiteke. Kaltearen arrazoia errepidearen egoera okerra, mantentze-lanetan egindako akatsa edo administrazioaren ardurapeko beste zerbait bada, orduan aurkeztu ahal izango da erreklamazioa.

Gertatu denaren ahalik eta zehaztasun gehien aurkeztu beharko dira: kalteen zenbateko, argazkiak, erzainen argiketa.... Erreklamazioa aurkezteko modua Bide Azpiegiturarako Departamentuko webgunean kontsulta daiteke: www4.gipuzkoa.net/corporac/carreteras/web.



Goienkaria ASTELEHENERO astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txoko Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK



Irabazleak:
BRUESA GBC- CAJASOL
Jose Luis Carnicero (Bergara)
Floren Arana Barandiaran (Aramaio)

BRUESA GBC- IURBENTIA
BILBAO BASKET
Luis Elexpuru Untzeta (Aretxabaleta)
Marga Zabaleta (Arrasate)

UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela argitaletxearen
umeentzako liburuak.

Irabazleak:
Juan Arriolabengoa Lasaga (Aramaio)



ZIRA

EKFB Euskal
Selekzioko zira bat.

Irabazleak:
Iñigo Eriz Unzueta (Aramaio)



DANBAKA))))

Danbakako kamiseta bat.

Irabazleak:
Xabier Uribeetxeberria Bolinaga
(Aramaio)



SARI NAGUSIA:

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN
ARTEAN ZOZKETATUKO DA**

**URDAIBAIKO URRESTI
LANDETXEAN GAU BAT**



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua



Paisaia idilikoa,
konpainia ezin hobea
eta zu...

**zure ekonomian
pentsatzen?**

Helbidera ezazu nomina kutxan. LASAIAGO BIZIKO ZARA.

- . Ordainketak diru-sarreretara egokituko dizkizu.
- . Irtenbideak aurkituko dizkizu.
- . Finantza-abantaila esklusiboak lortuko dizkizu.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

EKONOMIA

Alokairuan emango du etxebizitzza Jaurlaritzak

Astelehenetik aurrera eskatu ahal izango dira eskaera orriak horretarako

JASONE ZABALA > BERGARA

Hipotekak ordaintzeko arazoak dituzten herritarrok lagunduko dituztela iragarri du Javier Madrazo Etxebizitzza eta Gizarte Gaietako sailburuak, eta "beraiet sortutako krisian" erantzukizuna har dezaten eskatu die bankuei.

Datorren astelehenetik aurrera prest egongo dira laguntza horiek eskatzeko eskaera orriak. Eskaerak etxebizitzen lurralte ordezkaritzan jaso daitezke, edo www.etxebide.info webean.

Onuradunak ondorengokoak izango dira: langabeziak hiru hilabete baino gehiago egin eta azken urtean 22.000 euro baino gutxiagoko dirusarrerak izan dituzten herritarrak, betiere etxebizitzaren salneurriak 275.000 euroak gainditzen ez baditu.

JAURLARITZAK EROSI

Etxebizitza libreatan, hipoteki aurre egin ezin diezaietako herritarrei etxeak erosetako prest dago Eusko Jaurlaritza, eta alokairuan uzteko, baina berriz erosteko aukera-rekin. Jaurlaritzak ordainduko luke etxe babestu batengatik ordainduko litzatekeen salneurria eta hipoteka bertan behera utziz, jabe ohiei utzikie alokairuan. Jabe ohiek etorkizunean etxea berriz erosteko aukera izango lukete.

Madrazo Etxebizitza sailburuak adierazi du kasu batzuetan hipoteken %20 kentzea eskatuko zaiela bankuei. Baina hipoteka-betearazpen edo utziarazpenera helduz gero, Etxebizitza Sailak pertsona horiei Biziguneko etxebizitzak utzikie lizkie, gehienez ere 12 hilabetez, baina beste 12 hilabete ere luza daiteke. Neurri horren helburua da kale gorrian etxe barik inor ez geratzea. Alokairua, hasiera batean, 450 euro izango litzateke, 12 edo, gehienez, 24 hilabetean. Momentutik horretatik aurrera, eguneratutako errenta osoa ordaindu beharko luke-te onuradunek.

BANKETXEEN LAGUNTZA

Jaurlaritzak finantza erakundeetako egindako eskaeraren harira, Euskadiko Kutxako zuzendari nagusi Elias Atutxak adierazi du Jaurlaritzarekin elkarriketak aurrerata daudela.

EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009



Aralarreko ordezkariak egutegiaren Arrasaten egindako prentsaurrekoan.

GOIENKARIA

ARALAR > AINTZANE EZENARRO ARRASATEN

Aralarrek dio "langileriarene ahotsa" izan nahi duela

"Aralar erakusten ari da eskualdean gauza dela erakunde publikoak kudeatzeko"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Aintzane Ezennaro Legebiltzarrerako hauteskundeetarako Aralarren Gipuzkoako zerrendaburua Arrasaten izan zen egutegiaren. Ibarreko Aralarako kideekin elkartu ostean, prentsaren aurrean agertu zen, alderdiko kideekin batera, eta egungo krisi egoeraren aurrean Aralarrek "langileriarene ahotsa" izan nahi duela Lege-

biltzarrean azpimarratu zuen. Oxel Erostarbe Elgetako alkate eta Gipuzkoako Aralarren koordinatzaileak, bestalde, esan zuen Legebiltzarrera benetako aldaketa ekarriko duen aukera bakarra dela Aralar.

DEBAGOIENDARREN KEZKAK

Erostarbek adierazi zuen debagoiendarren kezkak eta premiak Legebiltzarrera eroango

dituela Aralarrek. Eta aipatu zuen, besteak beste, AHTren aurka daudela eta tranbiaren alde; osasun zerbitzuaren gabezia handiak daudela, esaterako, "amaginen gabezia edo pediatria zerbitzu murritza"; zerbitzu sozialen pribatizazioa salatu zuen; eskualdeak daukan etxebizitzaren arazoari irtenbidea alokairu sozialak direla... Amaitzeko, nabarmendu zuen Aralar erakusten ari dela eskualdean gauza dela "erakunde publikoak kudeatzeko".

> HAUTESKUNDE-MAHAIAK
**Mahaiko kideen
izenak aditzera
ematen hasi dira**

E.A. > BERGARA

Martxoaren 1eko hauteskundeetarako EAEn osatuko diren 2.735 hauteskundemahaietako kideak izendatu dituzte eta bihar arte mahai-kide izendapena jakinaraziko zaie hautatutako pertsonei. Horrekin batera, beren egin-kizunari buruzko argibideak jasotzen dituen liburuxka bat banatuko zaie. 25.000 hautesle inguru deituko dituzte, titular eta ordezkoen artean.

Hauteskunde hauetan, 2.735 mahai eratuko dira: 406 Araban, 1.451 Bizkaian eta 878 Gipuzkoan. Mahai horiek 762 hauteslekutan banatuta egongo dira: 103 Araban, 346 Bizkaian eta 313 Gipuzkoan.

MAHAIEN OSAKETA

Mahai bakoitzak mahaiburu batek eta mahaikide bik osatuko dute. Mahaiburu eta mahaikide karguak eta haien ordezkoak nahitaezkoak dira. Bidezko arrazoi-rik gabe ez joateak askatasun-gabetze zigorra eta isuna ekar ditzake. Hala ere, norbaitek arazoak izango balitu hauteskundeetan mahaietan egoteko, otsailaren 8tik 14ra kargua hartzea eragozten dion agiri eta guztizko bidezko arrazoiak Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen aurrean aurkeztu ahal izango ditu epaitegian.



BERGARA San Lorentzo

ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraiikitzailea



INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibide eta salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

Apartmentuak

**152.000€-tik
aurrera**

25.300.000 pta



San Martin eskolako irakasleak, gurasoak eta ikasleak eskolako jolaslekuaren elkarte ziren Obatu Euskal Eskola Publikoari oihukatzeko.

MIREIA BIKUÑA

EUSKARA > JAIA

Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaia Bergaran, ekainaren 7an

'Obatu Euskal Eskola Publikoari' lelopean egingo dute jaia San Martin herri eskolakoek

Kultura aniztasunari eskainitako gune berezia jarriko dute Bideberrin eta pilotaleku kanpoan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Obatu Euskal Eskola Publikoari lelopean aurkeztu dute Bergaran Euskal Eskola Publikoaren jaia. Bergarako San Martin herri eskolakoek ekainaren 7an egingo dute jaia. Martitzenean prentsaurrekoan egin zuten jaiaren aurkezpena egiteko. Agerraldian egon ziren Baikara Guraso Elkarteko presidente Imanol Zubizarreta; San Martin eskolako zuendari Susana Uriarte; eta San Martin eskolako guraso elkarteko kide Usoa Urbieta.

LAU GUNE

Euskal Eskola Publikoaren jaia adinaren arabera banatutako lau gune izango ditu: 0-6 urte artekoendako gunea San Martin eskolako eta Ipintza institutuko jolasleku eta aparkalekuaren jarriko dute; bestalde, 6-12 urtekoendako gunea Santa Marina parrokiaren ondoko aparkalekuaren eta zaptauetan merkatua egiten zen plaza egokituko dute.

Festaren gune nagusia San Martin plazan jarriko dute. "Herriko plazan jarriko dugu oholtza nagusia, eta han egingo dituzte kontzertuak. Bestalde, berrikuntza moduan, kultura aniztasunaren aldeko apustua egin gura dugu, eta gune berezi bat jarriko dugu Bideberrin eta pilotaleku ondoko plazan, Frais-kozurin. Jaiaren aurreko egunean gai horren inguruko hainbat

ekintza egingo ditugu", esan zuen gurasoen elkarteko kide Usoa Urbietak prentsaurrekoan.

MATRIKULAZIOIA IA BIKOIETZU

Ekainaren 7an egingo duten festaren helburu nagusia Euskal Eskola Publikoa aldarrikatzea da. "Eskola eredu honen alde egin genuen gurasoak, ozen aldarrikatu gura dugu Euskal Eskola Publikoa: euskalduna delako, kalitatez-

ko hezkuntza ematen duelako, aniztasunaren aldeko apustua egiten duelako eta irakasle eta gurasoaren arteko lankidetza bultzatzen duelako", esan zuen Urbietak. Horren harira, esan zuen San Martin eskolan matrikulazioak ia bikoitzu egin direla azken bederatzi urteotan. Hala, esaterako, 2000. urtean 267 ikasle zituzten eta 2008. urtean, berriz, 473.

LELOA ETA LOGOTIPOA

Leloari eta logotipoari buruzko azalpenak ere eman zituzten age-rraldian. "Aurtengo leloak eta logo-tipoak gure eskola eta jaia irekia eta modernoa dela erakusten dute. Kolore bizien eta beroen bidez, gurasoak, gazteak eta umeak era-karri gura ditugu. Bestalde, Oba-

DATUA

4

GUNE

Euskal Eskola Publikoaren jaiak lau gune izango ditu, adinaren arabera banatuta. Horietako bat kultura aniztasunaren inguruko gunea izango da.

tuhitzarekin Euskal Eskola Publikoaren erakarri gura ditugu herritar guztiek", esan zuten. Horregatik, ibilbide itxia egin ordez, jaia herri guztira zabaldu gura dute lau gunekin: "Festa irekia egingo dugu, guztiek parte har dezaten".

> TEKNOLOGIA
Gipuzkoako sagardotegien gida, poltsikoko telefonoan

Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak txotx aplikazio berria ateria du: Gipuzkoako sagardotegien gida poltsikoko telefonoetan jaso ahalko dugu. Besteak beste, 58 sagardotegitako informazioa eta sagardoaren munduari buruzko informazioa jasoko dugu, lau hizkuntzatan: euskalatz, ingeles, frantses, eta gaztelaniaz.

Aplikazioa poltsikoko telefonora jaisteko hainbat aukera daude; besteak beste, Bluetooth eta SMS bidez, Internetetik jaitsita edo beste poltsikoko telefono batetik zuzenean.

Batura Mobile enpresak egin du gida, Jaurlaritzako SPRIk diruz lagunduta.

> BILERA
Berdintasunaren gaineko diagnosia egingo dute

Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan lanean diharduen Bideberri Mankomunitateak berdintasunaren gaineko analisi eta diagnosia egingo du. Hain zuzen ere, hiru herri horietako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan jardungo dute. Asteluhenean, hilaren 9an, bilduko dira, 18:30ean, Antzuolako Olaran etxeen.

Bideberriko arduradunek saio irekia egin gura dute. Hiru herrietako behar eta errealityearren inguruko iritzizk jaso gura dituzte.

Bideberri Mankomunitateak bi urte beteko ditu laster eta hiru herrietako gizarte zerbitzuak hobeto kudeatzeko helburuarekin sortu zuten.

> EUSKARA
Kutxazainenetan euskaraz gehien, gurean

Kutxazain automatikoetan eragiketak euskaraz gehien egiten dituztenen artean dau- de antzuolarrak eta aramaio-arra. Hurrenez hurren, %40,01ek eta %46,63k erabilten dute euskara. Euskadi-ko Kutxa e.sarea agerkariak ikerketa egin du Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako kutxazainenetan.

Arabean, Aramaioaren atzeitik daude Gasteiz eta Kanpezu. Gipuzkoan, berriz, Usurbilen eta Oiartzunen erabilten dute euskara gehien, Antzuolaren atzetik. Bizkaian, Durangon egingo ditutze eragiketa gehienak euskaraz.

San Adrianen (0,39) eta Santurtzin (2,29) erabilitzen dute euskara gutxien.

Imanol Zubizarreta> Baikara Guraso Elkarteko presidentea

"Festa parte-hartzailea egin gura dugu Bergaran"

M.B. > BERGARA

Euskal Eskola Publikoaren jaiaren aurkezpenan egon zen Baikara Guraso Elkarteko presidente Imanol Zubizarreta.

Bergaran egingo duzue aurtengo festa. Zergatik?

Urtero aldatten dugu herria. Laz Barakaldon egin genuen, eta orain dela bi urte Oñatin. San Martin eskolako ekeskaera egin zuten, eta onartu egin genuen. Ni, gainera, Eskoriatzako naiz, eta poztu egin nau Gipuzkoako azken bijaiak Debagoienean ospatu izanak.

Nolakoa izango da ekainaren 7ko jaia?

XVIII. festa egingo dugu. Egia esan, urtero oso antzekoak eginen ditu-



MIREIA BIKUÑA

gu. Lau gune jarriko ditugu, baina oraindik ez dugu zehaztu bakoitzean ze ekintza egingo ditugun. Bainai jai parte-hartzailea egin gura dugu. Horregatik,

tik guztiagatik, parte-hartza bultzatu gura dugu. Era berean, iradokizunak egin gura dutenek www.ehigejaia.org helbidean egin ditzakete.

Nortzuentako jaia antolatuko ditzue?

Festa herriko guztiei zabaldu gura diegu. Egia da Euskal Eskola Publikoaren inguruan dihardutenek parte hartzen dutela bereziki. Baina gainera-ko herriarrei ez ditziegua ateak ixten.

Gure jaien helburua ez da dirua batzea. Euskal Eskola Publikoa aldarrikatu behar dugu.

Festaren gaineko materiala salgai jarriko duzue?

Kamisetak eta eskolako materia- la egingo ditugu. Eskolan eta festa egunean jarriko ditugu salgai.

EUSKADIKO KUTXA > IAZKO BALANTZEA

Krisiaren aurrean, 100 milioi euroko etekinak

Euskadiko Kutxak 100,5 milioi euroko etekinak izan zituen joan den urtean; 2007an baino %11,5 gutxiago, hain zuzen ere

TXOMIN MADINA > ARRASATE
2008a ez zen urte ona izan ekonomiarentzat, eta Euskadiko Kutxak martitzenean egin zuen iazko datuen aurkezpenean argi geratu da. 100,5 milioi euroko etekinak izan zituen Euskadiko Kutxak iaz, 2007an baino %11,5 gutxiago. Datuak, baina, kezkarriagoak dira Lehman Brothersen afera kontuan hartzen bada: horiek aintzat hartuta, etekinekin %45,6 egin zuten behera.

Dena den, iazko urteak eman-dakoaz orokorrean balorazio positiboa egin du Euskadiko Kutxako arduradunek, batez ere sektoreko beste erakunde batzuen zifrekin alderatzuz. Hala, aktiboaren eta pasiboaren haz-

kundean eta marjinatan, sektoreko batez besteko ratioak gainditu dituzte, eta morositate edo berankortasunari dagokionez, sektorean batez besteko %4 da eta Euskadiko Kutxan %2,2 da.

DATUA

%11,5

ETEKINAK BEHERA

Krisiak eraginda, 2007arekin alderatuta %11,5 jaitsi ziren etekinak. 2009rako aurreikuspe-ni dagokienez, asmoa da aurtengo etekinei eustea.



Euskadiko Kutxako arduradunak, martizeneko agerraldian.

LANA > INEM-EN DATUAK

Langabeziak %12 egin du gora azken hilabetean

Abenduan baino 333 langabe gehiago daude ibarrean, 3.108 hain zuzen

E.M. > BERGARA

Debagoienean langabeziak %12 egin du gora azken hilabetean. Abenduan baino 333 langabe gehiago daude ibarrean: 3.108 hain zuzen ere. Baina 2008ko urtarrileko datuak begiratuz gero, urtebetean langabeziak izan duen gorakada larriagoa

da. 2008ko urtarrilean 1.986 ziren Debagoienean eta aurten, esan bezala, 2.775.

GORAKADA NABARMENA

Ibarreko datu horiek Gipuzkoako bataz besteko datuekin alde- ratzen baditugu, bestetik, esan genezake Debagoienean langabeziak gehiago egin duela gora hilabete batean. Gipuzkoan %10ekoia izan da gorakada, bataz beste, eta ibarrean esan bezala %12koia izan da igoera. 33.070 langabe dira gaur Gipuzkoan, abenduan baino 3.011 gehiago justu.

ENPRESA > LAN ERREGULAZIOA

Sidenorren enplegu erregulazio txostenari bai, eta Cegasarenari ez

Elgetako Forjanoren lanean diharduten guztiei eragingo die Sidenorren enplegu expedienteak

T.M. > ARRASATE

Espaniako Lan Ministerioak baiezkoa eman dio Sidenor enpre-sak aurkeztutako behin-behineko enplegu erregulazio expedienteari. Enpresak ekainaren 30era arte erabili ahalko du erregulazio expediente hori, eta eragina izango du Sidenoren barruan dagoen Elgetako Forjanor lantegian. ELAtik jakinarazi dutenez,

Elgetan lanean diharduten guztiei eragingo die enplegu erregulazio expedienteak.

CEGASARENA, ATZERA

Bestalde, Cegasako arduradunek aurkeztutako enplegu erregulazio expedientea atzera bota du Jaurlaritzak. Juan Carlos Ramos enpresa batzordeko kidearekin harremanetan jarrita,

etxeeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Hauteskundeen emaitza zerk baldintzatzen duen

Kakaztuta ikusten dut egoera. Ekonomian eta politikan. Izan ere, esaterako, Debagoienean azken hilabetean %12 igo da langabezia, eta azken urtean %57; Gipuzkoako enpresen erdiak arazoak izango dituzte aurten eta itxi edo erregulazio expedienteak aurkezta beharko dituzte; bailarako enpresa asko egoera larrian daude, batez ere lantegi txiki edo ertainak. Eta okerrena da egunetik egunera beltzago dagoela dena.

Eta, politika? Hori bai kakaztua. Lopez lehendakari nahi

dute Espanian askok. Iku-siko

dugu zer erabakitzan dugun Euskadin. Baina hori baino gehiago dago jokoan hemen. Ajuria Eneara zein doan edo hurrengo lau urteotan zeinek gobernaturiko gaituen erabakitzea importantea da. Baina kezkarriagoa da demokrazia hilzorian dela. Ze, itxura guztien arabera, Batasanaren oinordetako direla aitzakia hartuta, bi zerrenda jokoan kanpo utziko baitituzte, milaka lagunen aukera zapuztuz. Zeren izenean hori? Zergatik orain ezin dira aurkezta eta 2007ko udal-letakoan leku batzuetan bai eta beste batzuetan ez? Otegiak eta Egigurenek negoziatu zuten hori edo Madrilgo Gobernuaren momentuko interesen arabera hartzan dituzte erabakiak? Orain komeni zait, orain ez. Ondorioa da hauteskundeen emaitzak Estatu interesek baldintzatzen dituztelak... edo ETaren ekintzak. Nazka ematen du.

"Lehendakari zein den erabakitzea baino gehiago dago jokoan"

> **Txakur-kakengatik**

arduratuta daude udal agintari, langile eta herritarak. Bergarako Udaleko lorazainak, esaterako, greba egitekotan ibili ziren, lorategietan belarra mozten hasten diren bakotzean kakaz zipritzinduta geratzen direlako.

> **Araudiak** badaude

horren gainean, baina txakurren jabeek ez dituzte txakurron gorutzak jasotzen. Errespetu kontua da eta heziketarekin zerikusia duena: dagokion tokian egiten erakutsi ezean, mendira eroan beharko lukete jabeek txakurra.

adierazi digu langileak pozik daudela erabakiarekin, baina, era berean, enpresak aurrera begira har ditzakeen neurrien zain. Enpresak orain arte izan duen jarrera kritikatu, eta gaineratu du pilen ekoizpenea Gasteizen geratzen den heinean prest daudela negoziatzeko, betiere bajak borondatzeakoak baldin badira.

ÖÑATIN ERAGINAK

Cegasatik, aldiz, esan du Euskoko Jaurlaritzaren erabakia arrazoi elektoralen ondorioz hartu dutela, ez lanpostuen defentsan, eta iragarri dute ezezkoak oso ondorio larriak ekarrisko dituela taldeko lau lantegietara, baita Öñatikora ere. Berretsi dute, era berean, enpresarentzat ez dela bideragarria pilen ekoizpenea Gasteizen mantentzea.



zabalik

Eneida Iturbe

Pintadak

Boikot frantses produktuei. Txikitian, obsesiboki irakurtzen genuen etxe aurreko paretan zegoen pintada. Baita Usoaren etxe parean zegoena ere: "Bai (horixe) euskarari". Batzuetaan "bai euskarari" esaten genuen eta bestetan indartsuago, gogotsuago, "bai horixe euskarari". Aukera biak zeuden. Esaldi hau ulertzen genuen eta defendatzen genuen. Aurreko, boikotarena, aldiz, ez. Ni Frantzirekin bakean bizi nintzen. Frantsesa ikasi nahi nuen eta balleta dantzatu. Oporretan joaten ginen Frantziera eta Orangina edaten nuen. Nola egin boikot Orangiari, ikaragarri ona zen-eta?

Ctrl+Alt+Delete. Pintada hau ez dut etxe aurrean ikusi, Interneten baizik. Israelgo estatuak Zisjordanian eraikitako harresian idatzia dago. Talde armatu palestinarrik eta armarik pasa ez dadin eraiki omen dute. Erre-alitatean, aldiz, horma horrek milaka palestinari zenbait herri eta komunitatetan bizitzeko eskubidea ukatzen die eta euron familia, lantoki eta eskoletatik banantzen ditu. Aldi berean, elkarrizketarako eta elkar uler-tze baterako bide denak ixten ditu.

Boikot israeldar produktuei. Hau ez dut inon pintatuta iku si, baina defendatzen dut. Ez dut jada 729 zenbakiekin hasitako barra-kodea duen produkturik erosten. Guk ez daukagu Ctrl+Alt+Delete sakatu eta Israel egiten ari den sarraskia gel-ditzerik; botere hori izan dezaketenak, berriz, isilik daude. Hori horrela, gizarte presioa da gure tresna bakarra. Horregatik egin go diet boikot Revlon, Epilady eta Veet bezalako markei eta begiratuko ditut produktuen barra-kodeak. Aurrerantzean ez da 729rik sartuko nire etxeen. "Boikot israeldar produktuei, bai horixe".

ustea uste

Mirian Biteri

GI-627 errepidearen arriskua

Azkenean berbagai da gurean GI-627 errepidea. Horrek duen arriskua agerian geratzen da handik pasatzen garen bakotzean; bereziki Arrasate eta Aretxabaleta arteko sainhobidea eta Gatzagako bidea. Aspalditik dauden zuloak etengabe ari dira handitzen eta egunero zulo berriak irteten. Hori gutxi balitz, egun euritsuetan horiek urez betetzen dira. Diputazioak hainbat zatitan egokitze lanak egin behar ditu. Ez litzateke txarto egongo horiekin ahalik eta azkarren hastea.



Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendarri nagusia** Iñaki Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtezai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Golo Arana **Maketaldea** Imanol Soriano Kepa Oxel Arieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziotza Martin, Ixasos Bereziar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Galintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

EGOITA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goienea.com

ORDZEKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goienea.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goienea.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09

Posta-e: public@goienea.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goienea.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Hurkoa fundazioa Donostiako Elizbarrutiko Caritasen tutoreta-fundazio bat da. Gipuzko-

an adineko pertsonen edo gai-xotasun mentala dutenen eta ahulezia egoeran daudenen

arretarako, babeserako eta tuto-retzarako sortua. 90eko hamarkadan hasi ziren lanean, Donos-

tian. Orain, Arrasaten irekiko dute bulegoa; hain zuzen ere, datorren eguztenean.

Jose Luis de la Cuesta > Hurkoa fundazioko presidente

"Norbere bizitza eramateko gauza ez den jendearen tutoretza hartzen dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Jose Luis de La Cuesta Hurkoa fundazioko presidente da. Datorren astean Arrasaten irekiko duten bulegoko inaugurazioan izango da -lehen Tamayo zegoen lekuaren irekiko dute-. Fundazioaren helburuak eta asmoak azaldu dizkigu.

Azal egiguzu zer den Hurkoa fundazioa.

Hurkoa Caritaseko fundazioa da. Gure betebehar nagusia tutoretzak egitea da. Badaude menpekoak diren pertsonak; eta, batzuetan menpekotasun hori oso handia izaten da. Ondorioz, euren gauzak eramateko gauza ere ez dira izaten. Kasu horietan, epaile batek esaten du pertsona hori ezgai dela. Gauza ez den norbaitek lagunza behar du bere bizitza aurrera eramateko. Horretarako daude tutoreak; tutorea pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa izan daiteke.

Gure kasuan, fundazio bat garenez, pertsona juridikoa gara. Epaileak bidaltzen dizkigun tutoretzak hartzen ditugu. Adineko pertsonekin hasi ginen lanean 90eko hamarkadan; izan ere, hutsune handia zegoela kontura-gina ginen. Denborarekin ikusi dugu beste arlo batzuetan ere badaudela asko sufritzen duten pertsonak; adibidez, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak. Pertsona horiek ere batzuetan tutoretza beharra dute, ezgai dire-lako. Hala, gaur egun gure ekintzak zabaldutti dugu pertsona horien tutoretzak ere hartzeko.

Noiz sortu zenuten elkartea, eta ze behar asetzeko?

90eko hamarkadan sortu genuen elkartea; hain zuzen, Caritasek sortu zuen, orain dela 19 urte. Orain arte nagusiekin eta gaixoekin lan egin izan dugu. Uste baino larriagoa da egoera eta pentsatzen genuena baino behar handiagoak daude. Hasi ginenean, bagenekeien 3. adinean behar asko zituzten pertsonak zeudela, baina konturatua gara benetan behar handia dagoela.

Urte hauetan guztietan egoera aldatu egin da?

Bai; kopuru aldetic, adibidez, bai. Guk ikusten dugu jende asko dagoela laguntza beharran. Beharbada, familia askok ez dakite horrelako prozedura juridiko bat bete behar dela pertsona bat ezgai denean.

Kontua da gauza ez den pertsona horren eskubideak defen-



Hurkoia fundazioko presidente.

GOIENKARIA

datu egin behar direla. Guztia ongi eramateko norbait jarri behar da; inguruko baina, hobe, baina bestela, kanpoko pertsonaren bat jarri behar da. Epaileek erabaki behar dute ze pertsona edo erakunde den aproposena pertsona horren tutoretza eramateko.

Orain arte Donostialdean egin dutue lan. Orain, Arrasaten zabaldutti behar dutuz bulegoa. Zela sortu da aukera?

Hasi ginenean gaixotasun mentala dutenekin tutoretzak egiten. Arrasateko bi ospitaletan, adibidez, guk eramatzen ditugu tutoretza batzuk, eta konturatua gara multzo garrantzitsua dela. Hala, Donostiatik lan egitea baino Arrasatera joatea hobetza dela pentsatu dugu. Egin behar ditugun betebeharak hobetza egingo ditugu Arrasateko lokalean. Gainera, hau guztia ondo eramateko beharrezko den sarea sortzeko

ZERBITZUA
"Arrasaten tutoretza zerbitzua eskainikogutxi dugu; ez dugu eguneko zentrorik jarriko"

FAMILIA
"Askotan borondatzearen onarekin egiten dute, baina ez dakizkite segitu beharreko prozedurak"

ERABILTZAILEAK
"Gaur egun Debagoienean 80 babestu ditu Hurkoia fundazioak"

ere garrantzitsua da Arrasaten egotea.

Guk eramatzen dugu tutoretza familiarik ez baldin badago, edo familia tutoretza hartzeko prestez baldin badago. Pertsonaren ingurukoren bat baldin badago eta tutoretza hartzeko prest baldin badago, hark hartzen du; kasu horretan, guk laguntza eskaintzen dugu, baina ez dugu tutoretzari ematen.

Ze zerbitzu eskainikogutxi dugu Arrasateko bulegoan?

Arrasaten zerbitzu bakarra emango da: tutoretza-Hurkoak, Donostian, adibidez, eguneko zentroak ditu-. Gure programan ez daukagu eguneko zentroa zabaltzeko asmorik; izan ere, badakigu Arrasaten badaudela eguneko zentroak, ondo lan egiten dutenak.

Tutoretza eskainikogutxi dugu, eta uste dugu tutoretza zerbitzua hobetu behar dugula. Badauka-

gu beste zerbitzu bat, tutoretza daramaten familiak laguntzeak dena. Arrasaten irekiko dugun bulegoan, esaterako, zerbitzu hori ere eramango dugu. Ez bakarrik gure tutoretzak eraman, baita familiei lagundi ere.

Askotan, nagusiak edo gaixoak laguntzeaz gain, ezinbestekoa izango da familiak laguntea ere.

Bai, oso garrantzitsua da. Askotan, familia hor dago eta borondate guztiarekin lan egin arren ez dute gauzak ondo egiten. Garrantzitsua da gu hor egotea laguntzeko; izan ere, jakin behar dute ze prozedura errespetatu behar dituzten. Adibidez, aitartak etxebizitza bat badauka eta familiak saltza pentsatzen badu, prozedura jakin bat jarraitu behar dute. Beste norbaiten jabetzarekin ezin duzu zuk gura duzuna egin.

Nola antolatuko duzue Arrasateko bulegoko lana?

Guk tutoretza zerbitzua eramatzen duten boluntario talde bat daukagu. Boluntario bakoitzak gaixoa edo nagusia bisitatzen du, eta guri txostenaren bidaltzen dugu, ze behar duen eta zer egin beharko litzatekeen dioena. Hala, eharren guneroko bizitza hobeto eramateko neurriak hartzen ditugu.

Alde batetik, tutoretza eramateko boluntarioak izango ditugu; eta, bestalde, gure teknikarietan jarraitu dute boluntarioen lana. Gure teknikarietan, gainera, epaitegi eta eramateko txostenek prestatu dituzte.

Bestalde, norbaitek arazoren bat baino, gu prest egingo gara ahal den neurriaren informazioa eman eta dakigun guztia eskaintzeko. Bulegoa edukitzak zera ahalbidetuko dugu: boluntario sarea koordinatza eta tutoretza, aspektu teknikoen laguntza eta informazio orokorra.

Zenbat boluntario dituzue lanean?

Gaur egun ia 80 boluntario ditugu Gipuzkoan. Esan behar da sare handia daukagula eta beharrezko dela boluntarioek ematen duten lagunza.

Badakizue, gutxi gorabehera, zenbat erabiltzaile izango dituen Arrasateko bulegoak?

Gaur egun, Debagoienean 80 tutelatu ditugu; eta uste dugu Arrasaten bulegoan jarritakoan jende gehiago hurbilduko dela.

Elgetako EAJ-EAri erantzuna

Oxel Erostarbe
Elgetako alkatea
Elgeta

Beste modu batera gura dugu herria kudeatu. Hori da EAJ-EAren eta Aralarren arteko desberdintasun nagusia. Pertsonal arloari dagokionez ere desberdin pentsatzen dugu. Eskerrak! Lerro hauen bitartez argitu nahi nuke Elgetako Udalak, Aralarrek alkatetza duenek, daraman pertsonal politika.

1. Orain, lanpostuak zuzenean pertsona bati eman beharrean frogak egiten dira, epe motzerako kontratatzentz direnei (udako monitoreak edo liburutegiko ordezkoak, adibidez) eta diru beltzarekin ordaindu beharrean behar den moduko kontratua egiten zaie.

2. Elgetako Udalak ez du urte eta erdi honetan langilerik bota. EAJ-EAk gezurra esaten du kaleratze indiskriminatuak daudela esaten duenean.

3. Elgeta 21eko gerenteari kontratua bukatu zaio eta ez zaio berri. Aurreko legealdian nabarmen gelditu zen Elgeta 21eko gerentearen lana Patxi Basauri eta Joseba Muxikak aurpegia eman nahi ez zituzten gaiak partxeatzera mugatzen zela eta ez hausnarketa eta gestiora. Iaz, pertsonalaren gastuetan 45.744,22 euroko aurrekontua izan zuen Elgeta 21 garapen agentziak. Helburu eta kontzeptu moduan, Elgeta 21ek autofinantzatu egin behar duela uste dugu, alkatea eta batzordebueren funtzionamendua beste bat den honetan.

4. Kirol teknikariak eszendentzia eskatu zuen bi urterako. Aralarrek errespetatu egin du langileak horretarako duen eskubidea.

5. Kultura eta Euskara teknikariak itzultziale plaza atera du Eskoriatzako udaltxean. Aralarrek errespetatu egin du beste leku batera lanera joateko hartu duen erabakia.

6. Elgetako Udalak benetako beharren arabera kontratzen du orain, hori da jarraitu beharreko bidea. 2009ko aurrekontuan hainbat batzorderen dinamika bultzatzeko egun erdiko lan jardunarekin pertsona bat kontratatu du. Beharrak erakutsiko digu pertsona horren lan jarduna handitu behar den edo ez. EAJ-EAk alderantziz egin du aurreko urteetan, lehenengo pertsona kontratatu eta gero beharra ikusi.

7. Aparejadorea dela eta urtebetean gezurretan ari da EAJ-EA. Elgetako Udalak ez du

izan inoiz, ez Patxi Basauri alkate zela eta ezta Oxel Erostarbe alkate dela, aparejadore plazarik. Arkitektoa eta aparejadore ez ziren eta ez dira Elgetako Udaleko langileak, ez daude Udaleko plantilan eta ez dute Udalarekin lan kontraturik. Beste hainbat arlotan egin dugun moduan hirigintza arloan egoeraren errebisioa egin genuen Udalera sartu ginenean: lehenengo, sei hilabeteko epea eman genuen lan egiteko moduak ezagutzeko; bigarren, arkitekto eta aparejadore zerbitzua eman zuten hiru enpresei aurrekontua eskatu genien; hirugarren, balorazioa egin genuen eta Elgetarako zerbitzu onena emango zuena aukeratu. Zerbitzu ona zer den guretako: euskalduna, teknologia berrietan jantzia, hirigintza estudio baten babes duena... Epaietako bigarren zatian hanka ez sartzea hurrengoa gogoratu nahi diegu EAJ-EAk zinegotziei: hirigintza arloko zerbitzua ematen digutenak ez dute lan kontraturik Udalarekin, zerbitzu kontratua dute.

Askotan zalantzak ditut batzuek zertarako ematen duten izena hauteskundeetako zerrendetan. Ez badau prest lanerako, batzordeetara etortzeko edo udalbatzaretara etortzeko, hobe da ez aurkeztea. Elgeta moduko herri batek bere mailan kontratatu behar ditu teknikariak. Zinegotzi eta alkateak ez daude ildoak zehazteko bakarrik, herritarrek lanerako ere aukeratu gaitzute.

Langile politikaz gainera, EAJ-EAk bukatzen du "udal-zerbitzuak zer" galdezka. Erantzuna argia da, udal zerbitzuak kalitatean gora: kultura etxearen igogailua ipinita herritar guztiak dute liburutegi zerbitzua eta ordenagailuak erabiltzeko aukera, kirol zerbituetan programa berriak (spinninga) eta ekintza berriak, UEMAn sartuko gara eta horrela bultzada hartuko du Euskara Zerbitzuak, erretiratuen egoitza urte batzuetarako lotuta, gaztelekua eta ludoteka zerbitzuak hobetu eta denbora gehiagoan luzatu egingo dira ekipamendu berriarekin, haurtzaindegian plaza gehiago... Gizarte zerbitzuak ere aipatu nahi nituzke: 2009an bikoitzu egingo dugu aurrekontua.

Krisi egoera honetan, alderdikeriak alde batera laga eta elkarrekin jardun beharko genuke zinegotzi guztiok, eskertuko lukete elgetarek. Krisiari erantzuna zerbitzuak handitura egitea proposatzen du Aralarrek, proposamenik ez daukanez EAJ-EAk nahiago izan du giroa aldreibestu.

Gipuzkoako aurrekontuak: dena hitzartuta zuten moduan

Inigo Louvelli eta Lurdes Alkorta
Batzarkide Independentistak
Bergara

Dena hitzarturik zuten eran joan da, eta pasa den abenduan 22an, Gipuzkoako Batzar Nagusietan PNVk aurkeztutako aurrekontuak onartuko zituzten. Izan ere, PSOEk eta PNVk erakunde guztiak elkarri aurrekontuak onartzea adostu zuten Madrilen, bestea beste.

Beste behin ere, Partido del Negocio Vasco erakutsi digu Espania liluratzeko eta Spainian erooso sentitzeko zein den bere benetako estrategia: kolaboracionismoa momentuko gobernua zapalizailearekin, euren negozioekin aberasten jarraitzeko.

Gure aldetik, Batzar Nagusietatik kaleratua egon arren, Gipuzkoako Batzarkide Independentistok Gipuzkoako Lurreralde Historikoaren 2009 urterako Aurrekontu Orokorraren Proiektuari osoko zuzenketa aurkeztu genion pasa den abenduaren 1ean.

Erantzuna Batzarrako lehendakariak, Romero andereak, eman digu oraingoan: ez omen dugu legitimitatek osoko zuzenketa aurkezteko. Romero anderea, hemen legitimatarik ez duten bakarrak zuek muntatutako Batzar Nagusia dira!

Nahi izanez gero, esan dezakezue zuen legalitate ustean ez garela sartzen, baina guri 72.032 gipuzkoarrak eman diguten legitimitatea, Gipuzkoan bigarren indar politikoa izaterainoko legitimitatea, ezin diguzue kendu. Hortaz, herritar horiei eta gipuzkoar guztiei zor zaien errespetuagatik, gure zuzenketen berri eman nahi genike, modu orokorrean bada ere.

1. Esan bezala, Aurrekontu Proiektua Alderdien Legearen ondorio da; beraz, erakunde publiko horrek zilegitasun demokratikorik ez badu, aurrekontu horiek ere ez.

2. Aurrekontu menpekoak dira. Mendekotasun horren adibide da, Gipuzkoako Estatuari kupo gisa 414,5 milioi euro ematen dizkiola, hots, biztanleko 596 euro, besteak beste, bere makineria erreprimiboa guztia mantentzeko. Kopuru hau udaletxeek jasoko duten baino handiagoa da.

Batzarkide independentistok mendekotasuna garaitzeko bidea burujabetasun

ekonomikoa dela aldarrikatu dugu, kupoari dagokion dirua ordaindu ez dadin exijituz.

3. Aurrekontu baztertzaleak dira. Nazio-eraikuntzarako ekimenak (euskar selekzioa, euskal curriculuma...) baztertzen dituzte, adibidez. Espainiako Atzerritarasun legearen edukiak onartzen ditu, emigrantei dagozkien eskubideak urratuz. Guk partida berriak zabaltza proposatzen dugu Nazio-eraikuntzako ekimenetarako, mugaz gaindiko lankidetzaraka...

4. Ez dira aurrekontu sozialak. Departamentuen arteko desoreka handia da. Honela, Bide Azpiegiturako 551,8 milioi euro aurreikusen diren bitartean, Gizarte Politikorako soilik 329 milioi daude aurreikusita, Kultura eta Euskararako 45,2 milioi eta Nekazaritzarako 45,9 milioi. Banaketa horrek ez dio gipuzkoaren nahiea eta beharie erantzen.

Ekonomia maila antzekoa izanik ere, Europako Batasuneko batez besteko gastu soziala ondasunen %27an dago; Gipuzkoan ozta-ozta %19a iristen da. Batzarkide independentistok inbertsio nagusia zerbitzu publiko eta sozialaren inbertitza proposatzen dugu: osasun arloan, hezkuntzan, garraio publikoan, etxez etxe laguntza-zerbitzuetan, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean...

Gipuzkoar guztiak bizi-kalitatea hobetzea ondasuna birbanatu behar dute, gutxienduten mesedetara. Oinarrizko errenta 892? izatea proposatzen dugu, horretarako 74 milioiko partida berria irekiz.

5. Ez da krisiaren aurkako aurrekontua. Gehien dutenei gehiago eskatu ordez, eskua-naren eredu neoliberalari jarrai, murrizketa fiskal progresiboari eusten zaio. Horren adibide, PNVk eta EAk, PPren laguntzarekin, Sozieta Zerga %28ra jaistea adostu izana. Horrela, aurten 116 milioi euro gutxiago jasoko dira eta, bitartean, krisia aitzakiatzat hartuz, Foru Aldundiak 2008an jasotako dirutik 37 milioi euro itzultzea exijitzen die udalei.

Beste behin ere herritar xumeok ordaindu beharko dugu kapitalaren jabe diren jauntxoek eragindako krisia. Horregatik, guk udalei 37 milioi itzultzeko eskaera (UFFF) ezerezean uztea exijitzen dugu eta, gainetik, Udal Finantzaketa Tarako Foru Fondoari 207 milioi gehitzea, udalen finantzamendu eskasari aurre egiteko.

6. Aurrekontuek eredu iraungaitza eta jasangaitza bultzatzen dute. Agintarien

eredu jasangarriaren eta iraunkorraren aldeko diskursoa faltzua gainetik, aurrekontu honekin triskantzeta ekonomiko, ekologiko eta soziala eragiten duten makro-proiektuak finantzatu nahi dira: AHT, Pasaiako superportua, errautsegia... Euren negozioen kontura aberasten jarraitzea besterik ez dute helburu, gipuzkoarrok asfaltoaren eta porlanaren diktadurapean suminduz. Gipuzkoaren iraunkortasuna bermatzeko aurrekontuak behar ditugu.

Makroproyektu horiek geratu beharra dago, eta biztanleen benetako beharrei erantzuna eman. Bide honestan guk partida berriak proposatu ditugu bestea beste honako hau aurrera eramateko: garraio publikoa, bidegorriak, Etxebizitzaren parke publikoak, Lehen sektoreari laguntzak eta atez ateko zabor bilketa. Askoz hobe litzateke gipuzkoaren dirua errauskailuan xahutu beharrean, atez ateko zabor bilketan xahutzea.

7. Ez dira aurrekontu parte-hartzaleak. Benetako informazioa ezkutatzen zaigu herritarroi. Eliteen arteko eztaba da egin dute, sindikatu eta jendarte-eragileen iritzia kontuan hartu gabe. Horretarako sortu dute Gipuzkoako Aurrera lobbya, hots, Gipuzkoan botere ekonomikoa duten jauntxoen taldea.

Gipuzkoako Aurrerak ez ditu gipuzkoaren interesak defendatzen, botere ekonomikoa dutenena baizik. Horrela, haien onurak areagotzen jarraituko dute, aurrez fiskalen (lehen aipatu Sozieta Zergaren murizpena kasu) eta azpiegitura megaproiektuen bitartez (ikusi besterik ez dago aurreko diputatu nagusia Gonzalez de Txabarri jauna superportuaren defendatzailea sutsuarena egiten).

Guk Gipuzkoako Aurrera finantza-zerbitzako partida bertan behera uztea eskatzen dugu, halako presio talderik ez dugulako ez nahi, ezta behar ere. Batzar Nagusietan eta aurrekontuan bermatu behar direnak eztaba da soziala eta herritarren iritzia ezagutzeko tresnak eta mekanismoak dira. Demokrazia, azken finean.

Horiak eta beste hamaika arrazoi ditugulako eskatu dugu 2009ko Gipuzkoako Aurrekontu Orokoren Proiektua erretiratua izan dadin; finean, aurrekontu berriak, demokratikoak, sozialak, ez-baztertzaleak, jasangarriak, gardenak, parte-hartzaleak eta subiranoak nahi ditugulako.

debagoienako ikastolak

euskal herriaren etorkizuna ereiten

matrikulazio epea: otsailaren 2tik 13ra



943 78 12 04
www.txantxikuikastola.net

943 76 90 71
www.aranzadiikastola.org



902 11 20 25
www.arizmendi.eu



Haur eta
Lehen Hezkuntza
DBH - Bigarren Hezkuntza
Matrikulazioa



guztiona, guztion artean

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Eskoriatza/Gatzaga

Luis Ezeiza Eskola

- Tel.: 943 71 49 38
- bilera eta ate irekiak:
Otsailak 2, 17:00-19:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri Eskola

- Tel.: 943 79 00 49
- bilera: Urtarriak 28,
euskaraz: 18:00
gaztelera: 19:00

Arrasate

Arrasate Herri Eskola

- Tel.: 943 79 20 69
- bilera:
(Bedoñabe) Otsailak 2, 18:00
(Musakola) Otsailak 3, 18:00

Aramaio

San Martin Eskola

- Tel.: 945 44 50 04
- bilera:
Otsailak 2, 18:00

Bergara

San Martin Agirre Eskola

- Tel.: 943 76 21 47
- bilera: Otsailak 3, 18:30
Ate irekiak:
Urtarriak 31, 16:30-19:30

Antzuola

Antzuolako Herri Eskola

- Tel.: 943 76 62 68
Informazioa:
Otsailak 3tik aurrera

Elgeta

Elgetako Herri Eskola

- Tel.: 943 76 82 26
Informazioa:
Otsailak 3tik aurrera

Oñati

Errekalede Herri Eskola

- Tel.: 943 78 07 64
Ate irekiak:
Urtarriak 31, 16:30-19:00

BIGARREN HEZKUNTZA

Arrasate

Arrasate Institutua

- Tel.: 943 79 44 47
- bilera: (Arrasate Musakolako eraikuntza)
Otsailak 4, 18:00
(Aramaio S. Martin Eskola)
Otsailak 5, 18:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri BHI

- Tel.: 943 79 57 40
- bilera: Otsailak 3, 18:00

Bergara

Ipintza Institutua

- Tel.: 943 76 31 42
- bilera: Otsailak 5, 18:30

Oñati

Zuazola Larraña Oñatiko BHI

- Tel.: 943 78 12 68
- bilera eta ate irekiak:
Otsailak 3, 18:00

goieskola@euskalnet.net

www.goieskola.net

605 773 992

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa



HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

Arrasate

Ferrerias 28
Tel.: 943 77 11 72

Aretxabaleta

Markole 5
Tel.: 943 79 88 50

Eskoriatza

Intxaurtxueta 20
Tel.: 943 79 36 41

Bergara

Irizar jauregia.
Barrenkale 33, 2.
Tel.: 943 76 44 52

Oñati

Zuazola Institutua
Aita Madina z/g.
Tel.: 943 78 35 77



Herriak

Arrasate > 14-15 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> BERGARA

'Miserableak' musicala, hamabost urte geroago > **21**



> ESKORIATZA

Isunak lehen hamabost egunetan ordainduta, %50 merkeago > **28**



> ANTZUOLA

Aurtengorako 7,2 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak > **30**



> ELGETA

2 milioiko aurrekontua onartu zuten eguzteneko osoko bilkuran > **31**

ARRASATE > OSASUNA

Desfibriladorearekin dihardute Arrasateko udal langileek

IKASTAROA

Abenduan ekin zieten lehen saioei eta beste 16 lagunek hartu dute parte oraingo astean

UDALTZAINGOA

Udaltzainek bi desfibriladore eramango dituzte aurrerantzean autoan

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Desfibriladore automatikoa erabilten ikasteko saio praktikoak egin dituzte oraingo astean Arrasateko Udaleko hainbat langilek. Joan den abenduan ekin zieten lehen saioei eta martitzenean eta eguztenean zortzi orduko saio bana egin dute beste 16 lagunek, bi taldeetan banatuta. Udaltzainak nagusi ziren martitzeneko saioan eta Udalean Ezker Batuko zinegotzi den Ander Rodriguez ere partaideen artean zegoen.

Juan Carlos Marcos Udaleko Laneko Arriskuen prebentzio teknikariak zera azaldu digu: "Gero eta ohikoagoa da langile edo jende asko batzen den tokietan desfibriladoreak egotea. Eta normala da, azken baten arrisku egoerak gainditzeko ezinbesteko tresna delako gaur egun. Aspaldian kezka hori geneukan eta Arrasateko Udal bihotz-babesdun tokia izan behar zela erabaki genuen. Hain zuzen, hortik dator formazioa eman eta hainbat desfibriladore erosteko erabakia". Prezioari dago kionez, 1.700 eta 3.200 euro bitartean balio dute horrelako aparatuak. Aurrerantzean, ikastaro gehiago egingo dituzte, ahalik eta langile gehiagoren gain iristeko.

DESFIBRILADOREA, ZABALDUZ

Elkarteko zientifikoek eta medikuak gomendatuta, horrelako aparatuak jende asko biltzen den toki publikoetan jartzen dihardute aspaldian: zentro ofizialetan, aireportuetan, tren geltokietan, estadioetan, ikastetxeetan, enprese-



Arrasateko Udaleko hainbat langile desfibriladorearen gaineko azalpenak jasotzen, martitzenean Kulturaten.

UBANE MADERA

tan, azalera handietan, eta abar. Gurean poliki-poliki doa zabaltzen desfibriladorearen erabilerar, astiroegi agian. Dena dela, sensibilizazioa gero eta handiagoa da gai honekiko. Normala, kasu askotan bizitza jokoan dagoela kontuan

izanda. Heriotza saihestu daiteke kasu askotan, denboraz neurri egokiak hartuta.

BIHOTZ ETA ARNAS GELDITZEAK

Bihotz eta arnas gelditze baten kasuan desfibriladorearen nola era-

bili behar den azaldu diete Arrasateko udal langileei Debagoieneko Gurutze Gorriko kideek. Kulturaten egin dituzten saio hauean parte hartu dutenek hiru urtetik behin izango dute ikasitza gogora ekartzeko konpromisoa, lau orduko saio bat eginez. "Erabilera dagokionez, desfibriladoreak ez dauka inolako misteiorik. Hiru botoi baino ez ditu eta horrez gain birikak eta bihotza berpizteko teknikak ere ezagutzea komeni da. Bihotzak ez duenean odola behar bezala pompatzen, deskarga elektriko batzuen bitartez, bihotzak bere ohiko erritmoa berreskuratzea da helburua", diosku Laneko Arriskuen Udal Prebentzio teknikariak.

nez, "minutu bakoitzaz hil ala bikoia izaten da zenbaitetan. Bizkor ibiltzea ezinbesteko da eta kontuan izan anbulantzia, gehienetan, istripua gertatu eta handik 12-14 minutura heltzen dela. Gauzak horrela, aurreneko minutuek sekulako garrantzia daukate eta gaixoaren inguruan dagoen jendea ondo gertatuta baldin badago eta eskura material egokia badu, askoz hobe".

Adituen arabera, berpizteko aukerarik izatekotan, saiakerak 10 minutu igaro aurretik egin behar da: pasatzen den minutu bakoitzean biziak irauteko aukeren %10 suntsitzen da. Horregatik, une hori igaro ahala pertsona susperatzeko aukera urrunduz doa. Egokiena, lau minutu bete aurretik desfibrilatza litzateke, hortik aurrera buruko kalteak edo neurologikoak sufritzezko aukerak biderkatu egiten direlako.

Musakolan eta Iturbide egoitzan desfibriladoreak jarriko dituzte laster

Arrasateko Udalak erosi berri dituen kanpoko desfibriladore automatikoa Musakolako kirolegian eta Iturbide egoitzan jarriko dituzte aurki, Osasun Sailari horren berri eman ostean. Era berean, udaltzain guztiek (27 dira eta 9k jaso dute formazioa) desfibriladorearen gaineako saio praktikoak egiten dituztenean, beste bi desfibriladore eramango dituzte autoan, herria patruilatzean. Heriotza arriskua dagoenean hiru urrats ematea gomendatzen dute adituak: lehenbailehen larrialdi tarako telefonora, 112 zenbakira deitzea; bitartean, berpizte lanak egitea (bihotz masajea eta ahoz ahoko arnasketa); eta, eskura izanez gero, desfibriladore erdi-automatikoa aplikatzea. Aparailua pazientearen bularrean jarrita, deskarga elektrikoak bihotza berpiztuko du.

OHITURA ZAHARRAK > OTSAILEKO SANTUAK

San Balerio, San Blas eta Santa Ageda

Garai batean San Blasi 'aurkezten' zizkioten umeak, beretan has zitezen laguntzeko

San Balerio kofradia 1958an desagertu zen, San Jose edo San Josep kofradiarekin batera



Eguaztenean, 08:00etako meza entzun ostean Santa Ageda koruetako kideak, San Juan parrokiaren kanpoko aldean.

U.M.

UBANE MADERA > ARRASATE

Azken egunotan, hiru santuren egunak izan ditugu bata bestearren atzetik: San Balerio (urtearrilak 29), San Blas (otsailak 3) eta Santa Ageda (otsailak 5). Gure XXI. mendean, baina, egun horien bueltan ospakizun gutxi gordetzen ditugu. Hori bai, garai batean baziren Arrasaten asko errespetatzen ziren ohiturak.

SAN BLAS: UMEAK BERBETAN

Adibidez, San Blasekin lotuta, garai batean eta bereziki udaberri-uda partean herritar askok bisitatzen zuten San Josepe ermita (San Andres auzoa), han-txe zegoen-eta San Blasen iru-

dia. Josemarie Velez de Mendiabalo historialariak kontutuakoaren arabera, "San Blasek hainbat gaixotasun (eztarriko minak) eta batez ere umeen gaixotasunak sendatzeko trebezia zuen; umeei berba egiten hasten laguntzeko trebezia zuela ere badiote sinesmenek. Hori horrela, herritar askok *'aurkezten'* zizkioten seme-alabak Blas zaindariari. San Blasen irudia desagertzear egin zen San Josepe edo San Josep ermita desagertu zenean, 80ko hamarkadan.

Salbatu zen irudi bakarra Andre Mari Zuriarena izan zen, La Blanca". Izan ere, San Josepe ermitak beste izen bat ere bazuen: De Las Nieves.

BI KOFRADIA: BALERIO ETA JOSE

Horrez gain, San Josepe ermitaren harira, Velezek gogoan du, baita ere, Arrasaten lehen bazela kofradia bat San Josepe ermitarekin lotuta: San Jose kofradia. 1958an desagertu zen kofradia hori, herrian zegoen beste kofradia batekin batera: San Balerio kofradia.

"XIX. eta XX. mende hasieran Arrasaten hainbat kofradia zeuden; haien helburuak erlijiosoak ziren: santuaren egunean irudia-rekin prozesioak egin eta, oro har, urtean bestelako errito eta zerenoniar egin. Beste helburu batzuk ere bazituzten: norbait hiltzen zenean haren familiari laguntzen

zioten, edo norbait gaixotzen basen haren zoruak lantzen zitzuten, e.a. Batez ere San Balerio kofradia zen nabarmena. Meatzerreka-kо meatzariek sortutakoa zen. Eta haien eskubideak defendatzen zituen sindikatu moduko bat zela esan daiteke". Kofradiaren gaine-kolehen aipamena 1434koa da. Bestalde, 1539ean idatzi ziren arautegietatik dakigu gurtze lekuaz gain, Meatzerrekako ermita epaiketa, batzar leku eta kofradiako kideen bilkura leku ere bazela.

Orain, berriz, ez da kofradia-rik Arrasaten. "Ixten joan ziren, gainbeheran zeudelako. Ez dute logikarik gizarte moderno honeitan, behintzat lehen zituzten helburuak betetzeko", dio Velezek.

SANTA AGEDA JAIAK

Gesalibarren Santa Ageda jaiak, asteburuan

Gesalibarkoak atzo hasi ziren Agedaren omenezko jaiekin. Gaur, egubakoitza, afaria egingo dute, Lizaso eta Maia bertsolariek. Bihartzea 11:00etan umeendako jolasak izango dira; 12:00etan meza, auzoko hildakoen alde; arratsaldean kantuan aterako dira, eta iluntzean kantariak bueltatzen direnean, auzoko plazan txotx egingo dute; afariarekin bukatuko dute eguna. Domekan, meza eta luncha.



**Guk bezala,
Euskal Eskola
Publikoaren alde
egin apustu, egin kinu!!**



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74



Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola



baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILEAREN 2tik 13ra

kanpotarrak arrasaten

Silvia Colangelo > Ikaslea
Turin (Italia)

"Unibertsitatean, euskaraz ez jakitea arazo da niretzat"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Erasmus bekari esker Arrasaten dabil ikasten Silvia Colangelo (Turin, 1985). Industria diseinuan ingeniaritza ari da ikasten Mondragon Unibertsitatean, eta hirugarren maila egitera etorri da. Atzerrira joatea bizi beharreko "esperientzia garrantzitsua" dela dio; ikasturtea amaitzean Italiara bueltatzeko asmoa dauka.

2008-2009 ikasturte hasieran Turin (Italia) utzi eta Arrasatera etorri zen Silvia Colangelo. Gurean hainbat ikaslek egiten duten moduan, Erasmus bekak atzerrian ikasteko ematen duen aukera aprobetxatzetik etorri da. Turiñetik Arrasaterako bidaia familiarekin egin bazuen ere -amak, aitak eta anaia lagundu zioten-, gaur egun beste hiru ikasle kanpotarrekin batera bizi da.

HELBURU ZEHATZAK

Colangelo helburu zehatzekin etorri da gurera: ingeniaritza karreko ikasturtea gainditu, gazte-



Silvia Colangelo.

lania ikasi eta atzerrian urtebete pasatzea. Izan ere, dioenez, urtebete etxetik at pasatzea "esperientzia oso garrantzitsua da".

"Hemen ere lantegi asko dago, Turinen moduan; baina, era berean, paisaia ederrak daude"

GUSTURA GUREAN

Arrasate Turin baino "askoz txikiagoa" dela esan digu Colangelok eta horrek, dio, "abantaila eta desabantailak ditu: Turinen zure gertuko jendea agurtu eta berriz ere ikusteko denbora luzea pasatzen da, distantzia dela-eta; Arrasaten, ordea, distantzia ez da arazo". Gainera, dio gazte italiarrak, "Arrasaten toki guztietara oinez joan daiteke".

Bestalde, hemengo janaria "oso gustuko" du eta pozik dago, Italian eros ditzakeen produktuak hemen ere eros ditzakeela-ko. Hori bai, pastaren inguruan ez du zalantzak: "Pasta Italian hobeto prestatzen dute". Paisaia-ri errepreatuz, gure ingurunea "oso polita" dela uste du Colangelok: "Hemen ere lantegi asko dago, Turinen moduan; baina, era berean, mendi eta paisaia ederrak daude".

Azkenik, ez daki euskaraz, eta hori "unibertsitateko egunero-ko bizitzan arazo" dela jakinara-zi digu.

argazki zaharra

Bedoña auzoa, orain 50 urte

Mende erdia pasa da dagoeneko goiko argazkia atera zenetik; ordutik hona asko aldatu dira gauzak. Erretratua Arrasateko Bedoña auzoan aterata dago, Errastiko baserriaren ondoan. Hauek dira irudiko protagonistak,

zutik eta ezkerretik eskuinera: Felix Ugalde, Alejandro Iturbe Malbe eta Joxe Untzueta. Makurtuta, berriz, Felix Garai eta Alberto Ruiz de Azúa.

Argazkia: Bedoña Batu elkartea.
Testua: Jokin Bereziartua
Urtea: 1959-1960.

UDAL HAUR ESKOLA

umezaintza

0-3 URTE *San Andres, 8*

uribarri

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE *Uribarri etorbidea, z/g.*

**MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 2tik 13ra**

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

902 11 20 25
www.arizmendi.eu



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

A
Arizmendi
ikastola

MUSIKA

Gose, musikaren sarietarako izendatuta

Martxoaren 12an
banatuko dituzte
sariak, Badajozko
Kongresu Jauregian

X.U. > ARRASATE

Dagoeneko aditzera eman
dituzte Espainiako XVIII.
musika sarietarako ze talde
dauden izendatuta. Guztira
28 sari emango dituzte, eta
euskarazko abesti onenaren
sarirako Arrasateko Gose
taldea da izendatuetako bat.
Epaimahaiaiak 16 eskailera
abestia aukeratu du, eta
Goserekin batera lehian izan-
go dira Fermín Muguruzaren
Balazalak abestia eta Beni-
to Lertxundiren *Mirotzak*.

"EZ ZEN GURE FABORITOA"

Musikaren sarietarako hau-
tatu izanagatik harrituta eta
pozik, Goseko Iñaki Bengoa-
k onartu du diskoa egin
zutenean 16 eskailera ez zela
euren abesti faboritoa: "Guk
Hey Boy! abestiaren alde egin
genuen, baina 16 eskailera
Gazteak sarietarako aukera-
tu zutenean konturatu ginen,
akaso, abesti horrek guk
aukeratutakoak baino oihar-
tzun handiagoa izango zue-
la, eta horrela izan da".

"BENITOK MEREZI DU SARIA"
Hain zuzen ere, Benito Ler-
txudiren eta Fermín Mu-
guruzaren parean egoteak egin
die ilusioa: "Hemen inguru-
uan erreferente dira bi
horiek, eta gu hor egotea gau-
za handia da. Bainha hautagai
izatearekin konformatzen
gara, ez dugu gura sari hori
irabazi; bestela, sarien eki-
taldian berba egitera irten
beharko genuke", esan du,
brometan, Bengoak. "Uste
dut Benito Lertxundik mere-
zi duela sari hori. Ez dakit
haren abesti onena izango
den, baina eman diezaiotela
sari hori musikan duen ibil-
bidearengatik".



Eguazteneko emanaldiko une batean, pianista gazte bat irakasleen begiradapean.

X.U.

MUSIKA > PIANO EMALDIA

Ibarreko 46 pianista izan ziren eguaztenean motorrak berotzen

Arrasateko, Bergarako
eta Eskoriatzako 46
pianista gaztek
emanaldia egin zuten
Amaia antzokian

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Mozart eta halako maisu klasi-
koen -Burlesca eta Symphonie n°
40 jo zuten- eta pianista moder-
noagoen piezak jo zituzten iba-
reko 46 pianista gaztek egua-

ten arratsaldean Amaia antzo-
kian. Emanaldi batzuk motzak
izan ziren, besteak landuagoak;
izan ere, aurkezpenean ondo azal-
du zuten gaztetxo batzuendako
jendaurrean egiten zuten lehe-
nengo emanaldia zela. Eta, ikus-
le moduan zeuden familiakoen
eta lagunen aurrean denek eman
zuten neurria.

PIANO JAIALDIRAKO GERTU

Eguaztenean Amaia antzokian
egindako emanaldia entsegu
moduan bikain eterriko zaie

Arrasateko, Bergarako eta Esko-
riatzako gazteei. Datorren otsai-
laren 14an eta 15ean Andoainen
izango dira denak, han egingo
dutela piano jaialdian –laugarren
edizioa izango da.

Jaialdi horretan 18 urtetik
beherako gazteek hartuko dute
parte, eta bi modalitate izango
dituzte aukeran: bakarka edo lau
eskutara. Adinaren eta mailaren
arabera hiru kategoriatan
banatuko dituzte pianistak. Aurt-
en ia 1.000 pianista izango dira
bertan, horietatik 46 ibarrekoak.

bere ustez



Antxon Mendizabal

Demokrazia inperiala

Inperio guztiekin jarrera
bikoitza daukate: zentroan
kohesioa eta periferian
zapalkuntza eta dominazioa.
Eta adostasuna dago zentroan,
periferian sarraskiak egi-
teko. Frantziako iraultzaile-
ek iraultza ospatzen zuten
bitartean, Haitin iraultzaren
aldekoek libre izan nahi zuten
esklaboak urkatzen zituzten.

Espanian, Inperioa izan
da beti nagusi. Hemengo zentroan
betidanik egon da ados-
tasuna, periferiak zapaltzeko
eta edozein sarraski aurrera
eramateko. Baina hemengo
zentroan ere, betidanik jaun-
txokeria izan da nagusi. Eus-

**"Hemen itxura
demokratikoa duen
frankismoaren
jarraipen sendoa
dugu..."**

kal Herritik begiraturik
demokrazia defizitarioaren
teoriak ez du funtzionatzen.

Hemen, zentroan itxura
demokratikoa daukan frankismoaren
jarraipen sendoa
dugu eta periferian zapal-
kuntza ikaragarria. Hiruga-
rren milenioaren hasieran,
demokraziaren izenean,
lotsagabeki apartheida nahi
digute aplikatu, hauteskunde-
aren emaitzak bereien interes
aldekoak izateko. Euskal herriarren
giza eskubideen zapalkuntzan
Garzon eta Grande Marlas-
ka dira egun izarrak. Eta
ondorioa garbia da. Martxo-
ko hauteskundeek komunitate
autonomoan ez dauka-
te zilegitasun demokratiko-
rik. Hautatuak ez dira izango
herriarren borondatearen
emaitza.



GOIENKARIA

Amsterdamen ere San Blas opila jaten

Erretratuko bi neska horiek
Madeleine eta Betty Ten Briek
dira, eta asteburuan Arrasaten
izan dira, lagun batzuen etxearen.

Bistan da Arrasatetik ez zirela
esk-hutsik joan, esku artean
dutel San Blaseko opila oparitu
zielen-eta. Erretratua Holandako
hiriburuaren egindakoa da, sasoi
honetan museo nazionalaren
ondoan jartzten duten izotz pistan.
Ederra omen zegoen opila.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako
armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE



MENDIA > BESAIDE MENDI ELKARTEA

Zuzendaritz berria izango du Besaidek

Besaideren etorkizuna kolokan zegoela ikusita, bederatzi laguneko taldea animatu da errelebua hartzen; otsailaren 19an egingo dute ezohiko batzarra

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaide Mendi Elkarteak bermantuta dauka etorkizuna; datozen lau urteotan bai, behintzat. Azken hilabeteotan argi gorri guztiek piztuta egon eta gero, egungo zuzendaritzak martitzean eman zuen berri ona: zuzendaritzak taldeak badu erreleburik. Horrela, egungo kideek "lasaitu ederra" hartu dute; izan ere, asko kostako zitzaien orain dela

aste batzuk botatako hordagoa betetzea: Besaideko ateak ixtea, alegia.

BEDERATZI LAGUN ZUZENDARITZAN

Otsailaren 19an Kulturaten egingo duten ezohiko batzarrean (18:45) hartuko du zuzendaritzak berriak kargua. Roman Martinez izango da lehendakaria eta Aitor Kortabarria lehendakariordea. Karmelo Bergaretxek diruzain

lanak egiten jarraituko du eta Juan Mari Lagunilla izango da idazkaria. Azkenik, bokalak izango dira Amaia Arregi, Garikoitz Heriz, Kepa Larrea, Roberto Moreno eta Aitor Zubia.

HELBURU BERRIAK

Lehengo zuzendaritzak taldeak aurreratu zuen moduan, egungo taldeak ezarriko ditu mendi elkarrean 19:30etik 20:30era.

ru berriak. Egin beharreko jardunak zeintzuk diren jakiteko erraztasunak izango dituzte, eta baita lehengoen laguntasuna ere. Hori bai, zuzendaritzak askatasun osoa izango du mendi taldearen norabideak zein izan behar duen erabakitzeko, eta bai ekintza berriak sustatzeko ere.

OTSAILEKO IRTEERAK

Besaide mendi elkarrean bi hitzordu antolatu ditu otsailera: batetik, oraingo domekan mendi irteera egingo dute, Galarratik Arantzazuraino, Malkorratik igarota (irteera 07:30ean). Gainera, mendi zeharkaldiaren ostean bazkaria egingo dute.

Bigarren hitzordua, beriz, mendiko eskuia egiteko da. Frantziara joango dira, otsailaren 14ko eta 15eko asteburuan. Hala, Piau Engalyn hasi eta Bareges-Hautacam en amaituko dute zeharkaldi hori. Izena emateko egunak dira otsailaren 10a eta 11,

zaldibar

EMAIZTAK (KOPAKOAK)

Total Disaster-Ciprés	3-7
Ekaitz Taberna-Iluntz	4-2
Dublin Irish Pub-Irurtz Taberna	4-2
Abokajarro-Saukelu Kabia	7-7
Paulaner Dribbling-Bar Aldapa	6-0
Lasagabaster-Urza	3-2
McAwenDauen-Equs	9-1
Betrayer-Hlb 108	9-3

PARTIDUAK

Otsailak 7, zapatau	EPALDEAK
09:00 Iriztu Tab.-Paulaner Drib.	Hlb 108
10:00 Iturrioz Tab.-Hlb 108	Paulaner
11:00 Urza-Abokajarro	Iturrioz Taberna
12:00 AT Celaya-Total Disaster	Urza
13:00 Iluntz-Dublin Irish Pub	AT Celaya
16:00 Betrayer-Ciprés	Lasagabaster
17:00 Equus-Lasagabaster	Ciprés
Otsailak 8, domeka	EPALDEAK
11:00 Urza-Iluntz	Saukeku Kabia
12:00 Ekaitz Taberna-Saukelu Kabia	Iluntz
13:00 Bar Aldapa-McAwenDauen	Ekaitz

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwenDauen	27	10
2. AT Celaya.....	21	10
3. Paulaner Dribling	20	10
4. Ciprés	19	10
5. Lasagabaster.....	19	10
6. Iriztu Taberna	18	10
7. Saukelu Kabia	18	10
8. Ekaitz Taberna	18	10
9. Abokajarro	17	10
10. Betrayer	15	10
11. Dublin Irish Pub	14	10
12. Iluntz	14	9
13. Hlb 108	11	10
14. Equus	8	10
15. Iturrioz Taberna.....	7	10
16. Bar Aldapa	7	10
17. Urza	6	9
18. Total Disaster	0	10

Total Disaster eta Urza fidantza barik geratu dira

Penagarria bada ere, oraingo Zaldibarko zutabe hau antolatzaleek ezarritako zigorren berri emateko erabiliko dugu. Batetik, lehenago ere abisua jasota zeukanetenez, Total Disaster eta Urza taldeak fidantza barik geratu dira, asteburuan izan dituzten liskarrentzat. Gainera, Ciprieko jokalari batek ezingo du datozen hiru jardunaldiak jokatu, kontrarioa ukabildkada bat emateagatik. Eta, Total Disaster taldeko jokalari batek bi partiduko zigorra bete beharko du.



Arrasateko jokalariak Durangoren kontrako artxibo irudian.

GOIENKARIA

> SASKIBALOA
**Laugarren dagoen
Padura izango da
bihar Iturripen**

Joan den astean Zornotzak erraztasun handiarekin era- man zituen Iturripen jokoan zeuden puntuak, MUkoek ez zieten-eta traba handirik jarri (65-75). Bihar ere igoera fase- rako sailkatzeo lehian dabi- len beste talde baten bisita izango dute Zurbanoren muti- lek: Padura.

Azken jardunaldiak Arratiako Zekorreko kontra galdu eta gero, Arrasatek Irunen bisita izango du hirugarren jardunaldiak

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azken jardunaldiak Arratiak hotz galanta igaro eta gero -joan den astean atseden izan zuten-Arrasateko mutilek Irunen kontra jokatuko dute bihar, Mojategin. Arratiak Isasiren mutilek gertu izan zuten garaipena; lehenengo zatian bi entsegu egin zituzten, eta horri esker bederatzi puntuko aldearekin erretiratu ziren aldagelara (3-12).

Bigarren zatian, baina, bizkaitarrek gora egin zuten. Loka- tzez betetako zelaian hobeto mol- datu ziren, eta zuri-moreak ez ziren gauza izan bizkaitarren joko-iraultza eteteko. Hala, Arratiako Zekorreko bigarren zatian

bi entsegu eginda irabazi zuten partidua, 17-12. Garaipen horri esker Bizkaiko taldea da fase berriko lider, eta bigarren dago Arrasate. Bihar bisitari izango den Irun, berriz, hirugarren postuan dago.

KADETEEK ERE IRUNEN KONTRA
Kadete mailako taldea Arrasateko eta Durangoko gazteek osatzen dute, eta eurek ere Irun izango dute kontrario, bihar, 17:00etan. Domekan, 10:00etan, errugbi Eskolako saioak hasiko dituzte.

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

((112))
SOS DEIAK

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

GAZTEAK > GAZTERIA KONTSEILUA

Nerabeendako gaztelekua egingo dute azoka azpian

Aurten erabilgarri egotea nahi dute; nerabeek eta Udalak elkarrekin zehatztuko dute gaztelekua nolakoa izango den

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Gaztelekua forma hartzen doa. Aurreko egunean, urtarilaren 29an, egindako Gazteria Kontseiluan landutako gai nagusienetakoa izan zen gaztelekuarena, eta dagoeneko badu kokalekua: azoka azpian egokituko dute, Super BM egon zen lekuak.

Gaztelekua nolakoa izango den zehazteko dago oraindik. Dena den, eguneko Kontseiluan nerabeek egin zitzuten proposamenak. Besteak beste, nahi dute gaztelekuak honako guneak izaera: koadrilarekin egoteko, ping-pongean eta mahai-futbolean egiteko, musika entzuteko, telebista ikusteko, eskulanetarako eta abesteko lekuak eta sukaldea.

Udaletik Agurne Barruso alkatea eta Nagore Narbaiza Hez-



Irudian, Kontseiluko gazteak alkatearekin eta Hezkuntza teknikariarekin urtarilaren 29an egindako batzarraren ostean. GOIENKARIA

kuntza teknikaria joaten dira Kontseilura, eta 25 bat nerabe. Hala, nerabeen proposamenok jaso zitzuten eta, aztertu eta gero, otsaileko azken egunean egingo duten hurrengo Gazteria Kontseilura gaztelekuaren guneean gaineko proposamen zehatza eroango dute. Nerabeek ere hiru punturen gaineko erabakia harautua eroan beharko dute: gaztele-

kuan begiralerik egon behar duen ala ez, egutegia eta ordutegia.

Kokaleku hori behin behinekoa izango da. Izan ere, Udalaren asmoa da etorkizunean Erraldoide de jauregia izatea gazteen etxeak eta hor jartzea gaztelekuak.

GAZTERIA KONTSEILUA

Udalak zehaztutako Gazteria Plannaren baitan eratu da Gazteria

Kontseilua. Zehazki, 14 eta 17 urte arteko nerabeendako gunea da eta helburutzat du nerabeok herri mailan dituzten beharrei, kezkei... erantzuteko espazio propioa izatea eta proposamen trukerako gune izatea ere bai. Izan ere, udal arduradunak kontziente dira adin tarte horretakoengan dutela hutsunerik handien. Dagoeneko lau batzar egin dituzte.

INGURUMENA > BIRZIKLATZEA

Hondakinak egindako jolasak eta beste ikusgai

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Astelehena ezkerro *Zaborreria* izeneko erakusketa dago ikusgai kultura etxeen. Hondakintzat jotzen ditugun materialein eginako objektuak ikus daitezke erausketen.

Hori horrela, birziklatutako materialein gauza ugari egin daitezkeela erakusten du erausketak, hala nola jantziak, jostailuak, aulkia, lanparak, eta abar.

Erakusketa Birbira talde nafarrarena da eta Debagoieneko Mankomunitateak bailaran barrena erakutsi nahi du. Erakusketa dagoeneko Aretxabaletan egon da eta Bergarakit Oñati joango da.

OTSAILAREN 28RA ARTE IKUSGAI
Erakusketa hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, astelehnetik egubakoitzera, 18:00-21:00 ordutegian eta zapatuetan, 12:00-14:00.



Irudian, birziklatutako materialarekin egindako bi aulki eta lanpara bat. GOIENKARIA



**Erramu batekin,
ilusioa eta poza lortuko dituzu.
Opari itzazu!
Aukera zabala dauagu.**

Loradenda
•
Lorak
•
Landareak
•
Opariak

Matxiategi 1 BERGARA
Tel.: 943 76 07 47
Faxa 943 03 40 80
gorostiloradenda@euskalnet.net

GOROSTI
merkalitatea
UME 175001

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegi

Milaka milioi euroko lotsa

Nola gipuzkoar batzuek nerrepideetako bider-saria ordaintzen dugun, eta gipuzkoarren arteko ezberdintasun hori ez den zilegi, irtenbidea ezin logikagoa da: bider-saria denoi ordainarazi. Eta nola krisian gauden, zer hoberik errepide berriak eta Abiadura Handiko Trena eraikitza baino.

Ezin zen, noski, dirua Renferen eta Euskotrenen lotsagarrrien apieziturak sendotzean inbertitu. Autobus, tren eta tranbia sare on eta merke bat jarriko balute, jendeak erabi-

"Eta nola krisian gauden, zer hoberik errepide berriak eta AHT eraikitza baino"

Li egingo luke, diru mordoa aurreztuko genuke, ekologia zainduko, bizitzan patxada irabazik. Baino, orduan, azken hamarkadan errepideen eta etxebizitzen eraikuntzari esker dirutan igeri dabiltzan hainbat enpresa (noren ote?) diruz apalxeago geratuko lirateke.

Eta nola hori onartzina zaien, enpresok eraikitzen jarraitzeko premia duten, ordainaraziko zaizkigu errepideak eta guretzako ez diren trenak, ordainaraziko zaizkigu bider-saria eta zerga handiagoak, eta ordainaraziko zaizkigu garrai publikoa bultzatzen duten itxurak egiteko gezurreta-zko publizitate-kanpainak.

Segi, segi, EAJ eta PSE-EEri botua ematen... Txukunari dira uzten Euskal Herria!

LEHIAKETA

Mus txapelketako kanporaketa hilaren 14an

Euskal Herriko txapelketaren kanporaketa da eta Avenidan jokatuko da

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Euskal Herriko mus txapelketa abian da eta Bergaran ere jokatuko da kanporaketa: otsailaren 14an, Avenida tabernan. 15:30ean irekiko dute izenematea eta bikote bakoitzak 20 euro ordainduko ditu. Sarien kasuan, lehenengoak bildotsa eta ardoa eroango ditu eta bigarrenak, bi untxi eta ardoa. Kanporaketak otsailean barrena jokatuko dira eta final nagusia izango da martxoaren 14an, Seguran. Txapeldunek jasoko dute astebeteko bidaia nazioartera, txapela eta 3.000 euro eta parte-hartzaleenda ere oroigarria egongo da.

Txapelketa antolatu dute Bai Euskal Herriari, Iparra-Hegoa eta Orreaga taldeek eta Euskal Herriko Mus Federazioak elkarlanean.

INTERNET

Internet Zuretzat autobusa, plazan

M.B. > BERGARA

Internet ikastaroak emango dituen autobusa herrian izango da otsailaren 25ean eta 26an, San Martin plazan. Internet Zuretzat proiektuanen barruko ekimena da eta bultzatzen dute, besteak beste, Etengabeko Gizartearren Zuzendaritzak eta Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzak, hainbat laguntzailerekin batera.

Ikastaroak daude zuzenduta 25 urtetik gorakoei eta irakatsiko dute ordenagailua ezagutzen eta erabiltzen; Interneten gaineko oinarrizko ezagutza ere emango dute eta Interneten erabilera nagusiak zein diren ere landuko da ikastarootan.

IZENEMATEA

Bi ordukoak izango dira ikastaroak, 10:30-12:30 eta 17:00-19:00. Plaza mugatuak dira eta dagoeneko hartuta daude otsailaren 25erako plazak. Otsailaren 26ko ikastaroetarako interesa duenak liburu-tegian eman dezake izena.



SAN JOXEPE



MONIKA BELASTEGI

Santa Ageda bezperako ohiturari eutsiz

Eguaztenean, Santa Ageda bezpera, ikastetxeetako ikasle, irakasle eta gurasoak kantuan atera ziren ohituran jarraituz. Ikastetxeez gain, bestelako taldeak ere aritu ziren kantuan, hain justu, Alai Taldea, San Joxepe abesbatza eta Jardun elkarteko kideak. Jardunekoan kasuar (behean), ohiko koplez gain, bertso eskolakoek egindako berriak ere abestu zituzten. San Joxepokoek (ezkerrean) Mizpirualde egoitzan eta Trinidad eta Mariaren Lagundia komentuetan abestu zuten.

BEDELKAREN GABONETAKO ZOZKETAKO IRABAZLEAK

1.000
eurotako saria



4.611 zenbakia
Arantxa Gallastegi
Rezola harategia



500 eurotako **2** sari



9.904 zenbakia
Agurtzane Azkarate
Xuxu jantzi denda



68.662 zenbakia
Mª Isabel Urkia
Fernandez oihalak

250 eurotako **3** sari



46.487 zenbakia
Marisol Perez
Lasa jatetxea



71.236 zenbakia
Eider Larrañaga
Igartza mertzeria



88.357 zenbakia
Mª Jose Curado
Mujika jantzi denda

Zorionak!

MUSIKA ESKOLA > 25. URTEURRENA

'Miserableak', hamabost urte geroago

Martxoaren 14an bi emanaldi Udal Pilotalekuuan, Musika Eskolaren zilarrezko ezteiak ospatzeko

EDU MENDIBIL > BERGARA

Hamabost urte igaro dira *Miserableak* musikalaren euskalazko bertsioa Bergaran estreinatu zela. 1994ko Errege egunean izan zen. Orain, 15 urte geroago, Musika Eskolaren 25. urteurrenako ospakizunen barruan, berriro ikusteko aukera izango dugu. Martxoaren 14an bi emanaldi egindo dituzte Udal Pilotalekuuan. Maria Jesus Ugalde Musika Eskolako zuzendariak martitzeneko aurkezpenean

azpimarratu bezala, "goi mailako nazioarteko musical baten euskalazko moldaketa abentura moduko bat izan zen. Gainera, musicala ez zen nolanahikoa, inoiz egin den musicalik arrakastatsuena delako *Les Misérables*. Erabateko arrakasta izan zuen guk egin genuen moldaketak eta han eta hemen antzeztu genuen".

Hasierako lan taldearekiko ez da apena aldaketarik izango. Alfredo Gonzalez Chirlaque



Leo Juaristi Musika Eskolako presidente, Maria Jesus Ugalde zuzendaria eta Bego Muxika, gurasoen elkartekoa, aurkezpenean. E.M.

izango da musika zuzendaria eta Valen Moñux zuzendari artitikoa. Bergarako Orkestra Sinfonikoa arduratu da zati instrumentalaz. 45 heldu eta 42 haur egongo dira Udal Pilotalekuo eszenatokian. Joan den urrian hasi ziren entseguak egiten, domekero.

SARRERAK SALGAI
Sarrera salmenta otsailaren 16an hasiko da. Musika Eskolako idazkaritzan eskuratu ahal izango dira, 15:30etik 19:00etara. 15 eurotan eta 12 eurotan (goiko harmailetan) eskuratu ahal izango dira. Emanaldi bakoitzeko 800 sarrerak dituzte. 19:00etan eta

22:30ean izango dira emanaldiak. Erreserba telefonoz ere egin daiteke, Musika Eskolara (943 76 57 80) deitura. Leo Juaristi Musika Eskolako presidenteak partaide guztien eta ikuskizuna aurrera ateratzeko laguntza eman duten guztien kolaborazioa eskertu nahi izan zuen martitzenean.

JAIAK > ARATUSTEAK

Josu Cifuentesen kartela izango da Aratusteetako irudia

E.M. > BERGARA

Josu Cifuentesen 18 urteko gaztea izan da Udalak deitutako Aratusteetako kartel lehiaketako irabazlea. Cifuentesen lana jai egitarauko azalean erabiliko du Udaleko Kultura zerbitzuak. Aratusteetako egitaraua datorren astean banatuko du Udalak herriko taberna eta dendatan. 350 euroko saria eskuratu du irabazleak. Sei lan aurkezta dira lehiaketara eta epaimahaia Jai Batzordeko kideek osatu dute.

MOZORRO AFARIA ARATUSTEETAN
Aratusteak otsailaren 20tik 24ra bitartean ospatuko dira aurten. Besteak beste, Aratuste-zapatarrako, hilaren 21erako, mozorro afaria iragarri du Udalak, Seminarioko zutabeen patioan. Txar-



Irudian, kartel irabazlea. JOSU CIFUENTES

telak 12 eurotan jarriko dituzte salgai Udal Pilotalekuo tabernan, Pol-Polen, Kortazarren, Ariznoan eta Jarduneko bulegoan. Afaltzera joan ahal izateko baldintza bakarra izango da: mozorrotuta joatea. Herriaren parte hartea eskatu dute antolatzaileek.

PIRRITX ETA PORROTX

Bestalde, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute Aratuste.zapatuan bertan. Bi emanaldi izango dira Udal Pilotalekuuan, 16:00etan leheneta eta 18:30ean bigarrena. Sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai astelehenean, otsailaren 9an, Udal Pilotalekuo leihatilan, 18:00etatik 22:00ak arte.

> ZABALOTEGI

'Ohean' antzezlana, zinema emanaldiak eta ipuin kontaketa: Zabalotegi aretoko eskaintzak

Maskarada taldeak *Ohean* lana antzeztuko du gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Aitor Beltran eta Matxalen De Pedro aktoreek dira protagonista nagusiak. Sarrerak, 5 eurotan eskuratu ahal izango dira, Zabalotegiko leihatilan bertan; zinema emanaldi diegokienez, *Street dance* eta *Mamma mia* filmak botako dituzte zapatuan eta domekan, ohiko ordutegian; eta bukatzeko, eguneroko, hilaren 12rako, helduendako ipuin kontaketa saioa iragarrita dago. Baltziskuetaren eskutik, *Gau bat Sidney* izenburuko kontaketa 19:00etan izango da.

trinmer
telecomunicaciones

tdt televisión
digital terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digital!

Kontulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte anteneten
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatziale ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com



Matxitxagi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

SANTOS



DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxitxagi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

IGERIKETA**Espaniako masterrean oso emaitza onak**

Kepa Irizar lehena 200 eta 100 metroko probetan

X.U. > BERGARA

Bergara Igeriketa Taldekoak Gijonren izan ziren joan den asteburuan, Espaniako Master Txapelketan esku hartzen. Bergaratiak lau igerilari joan ziren masterrean esku hartzeera: Kepa Irizar, Aitor Alberdi, Urko Irizar eta Juan de Borja. Irizar birritan izan zen azkarrena, 200 eta 100 metroko bizkar lasterketean, eta bigarren sailkatzu zen 50 metroko tximeleta proban.

Aitor Alberdik lau lasterketean izan zen, eta 100 metroko bizkarreko proban egin zuen postu onena (4.a). Urko Irizar, besteak beste, 12. sailkatzu zen 50 metroko bular proban eta Juan De Borja 19. izan zen egin zituen hiru lasterketean (50 tximeleta, 50 bular eta 100 estilo libretan).

Horrekin batera, Bergarako ordezkarriak seigarren izan ziren 4x50 metroko errelebu libreetan eta laugarren 4x50 metroko estilo proban.



Inaxio Perurena 260 kiloko harria jasotzen, 2007ko Santamasetan, Arrasateko Zaldibar pilotaleku.

GOIENKARIA

HERRI KIROLAK > HARRI-JASOTZAILEAK

"Semeak gertu ditu sasoi oneko urteak"

Perurenatarrek sei harri ekarriko dituzte domeka eguerdian erakustaldia egiteko, Murinondon

XABIER URTZELAI

> BERGARA
Iñaki Perurenak esan moduan, eguraldiak erabat baldintzatuko du domekan Murinondon egingo duten erakustaldia: "Ikusi egin behar da eguraldiak laguntzen duen; izan ere, joan den hilean Murgian erakustaldia egiten ari

ginela euria hasi zuen eta seme-ari 200 kiloko harriak eskuetatik ihes egin zion. Ordurako harria bizkarraldean zuen, eta harria lurra kontra hautsi bazen ere, eskerrak semeak minik hartu ez zuen. Hala, ikusi egin beharko da domeka eguerdian eguraldiak

tregoa ematen duen, asteburu-ko egin dituzten iragarpenak ez dira-eta onak.

ADIN ONENA, 30 URTE

Bergaran egingo duten erakus-taldiairekin batera, semeak aur-ten dituen helburuen gainean galduzu diogu Iñaki Perurenari: "Poliki-poliki Iñazio badabil 30 urtera gerturatzen -24 ditu-, eta niretako hori da harriak jasotzen ibiltzeko adinik aproposena, bai indar aldetik eta baita esperien-tzia aldetik ere. Helburuen gainean, Urtezahar egunean bron-kitis bat tarteko ezin zuen 295 kiloko harria jaso, eta balite-ke hil honen amaieran berriro ere ahalegintza". Errekorra, baina, oraindik aitarena da, 320 kilo.

> GIMNASIA ERRITMIKOA
Astigarragatik gustura itzuli ziren Ariznoako gimnastak

Joan den asteburuan egin zuten Astigarragan denboral-diko lehen txapelketa, eta Ariz-noako neskak gustura itzuli ziren han egindako lanarekin. Urteko lehen proba izan da, oraindik tarte handia dute hobetzeko. Bestalde, Ariznoako lagunak buru-belerri dabiltza martxoaren 1ean gim-nasia taldearen 25. urteurre-na ospatzeko egingo duten ekitaldia antolatzen. Dantzariak, musikariak... ekitaldi polita prestatzen dabilta.

Bergara kirol elkartea eman du bigarren saria

Bergara kirol elkartearako banatu ditu Gabonetako zozketako sariak. Bigarren saria falta zen emateko, Patxi Uribesal-gok irabazitakoa. Multi Opticas dendak emandako saria zen -erretreatuan dendako bi ordezkarri-, eta saria jasotzen Patxiren ordez Xabi Uribesalgo semea joan zen. Bergara kirol elkarteko presidente Pedro Ricok eman zion bigarren sari hori.



BERGARA KE

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak ater aitzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

labegaraieta**EMAIZTAK**

Irish Pub-Zigalikatis	3-7
Komando Piperrak-Internacional	3-9
Belengua Taberna-Carboneros	1-10
Los Blus-Iribide Taberna	9-5
Monte Taberna-CM Errota-gain	1-4
Los Latinos-Diego Valor Ileap.	2-7
UD Akabaok-Niu Tim	9-3

PARTIDUAK

Otsailak 7, zapatura	Epaileak
16:00 Niu Tim-Zigalikatis	Carboneros
17:00 Carboneros-Monte Taberna	Niu Tim
18:00 UD Akabaok-K.Piperrak	Monte
Otsailak 8, domeka	Epaileak
09:30 Los Blus-CM Errota-gain	Irish Pub
10:30 Irish Pub-Diego Valor	Los Blus
17:00 Belengua-Iribide Tab.	Los Latinos
18:00 Internaciona-Los Latinos	Belengua

SAILKAPENA

	P	J
1. UD Akabaok.....	45	16
2. Carboneros	43	16
3. CM Errota-gain	41	16
4. Zigalikatis	34	16
5. Los Latinos	28	16
6. Komando Piperrak.....	28	16
7. Niu Tim	22	16
8. Los Blus	19	16
9. Internaciona.....	16	16
10. Diego Valor Ileap.....	15	16
11. Belengua taberna.....	14	16
12. Irish Pub	10	16
13. Monte Taberna	7	16
14. Iribide Taberna	4	16

**Lehia estua
aurreko
postuetan dauden
taldeek**

UD Akabaok (45), Carboneros (43) eta CM Errota-gain (41) taldeek lehia polita dute lehenengo postua eskuratzeko. Dagoeneko hamasei jardunaldi jokatu baditzete ere, hiru talde horien artean lau puntuko aldea baino ez dago. Oraingo asteburuan ez dute elkarren kontra jokatu behar, eta sailkapenari begiratua eginez gero, lider dagoen Akabaok taldeak izango du kontrario gogorrena, Komando Piperrak (28) seigarren postuan dago-eta (zapatura, 18:00, barruko kan-txan).

mingainari tiraka

Jennifer Rico > Oginun okindegikoa

"Urdaiazpiko txapata ogian, hori da ogitartekorik goxoena"

JASONE ZABALA > BERGARA
Ibargarai kalean duela urtebetetako eskas zabaldut zuten Oginun okindegikoeak denda berria. Jennifer Rico bertan ari da orduz gero eta harekin egongarria okindegia irene eta okinen lanari buruz hitz egiten.

Zenbat ogi mota egiten dituzte okindegian?

Hamabi ogi mota, gutxi gorabehera. Ogi handiak eta txikiak; ogi txikitxoak eta baita umeen merienda orduetarako ogitartekoak egiteko ogi txikitxoak ere. Zubillagan, egurrezko labea daukagu, eta baserriko ogia egiten dugu han.

Ogia egitea artea dela esan genezake?

Nire iritziz benetako artea dena da, alde batetik, okinek duten lan ordutegia, oso goiz jaikitzen direlako -goizeko ordu batean jaikitzen dira; eta bestetik, ogia egiteak dakarren lana bera; meritu handia duela uste dut.

Zein ogitarteko da zuretzako gustukoena?

Ogitarteko goxoena urdaiazpiko ogitartekoada, eta txapata ogian baldin badoa, askoz hobeto.



Okindegian gehien saltzen dugun ogitartekoak urdaiazpikoak gaztarekin da, eta gehien eskatzen duten ogia, txapata.

Ogia gatzarekin ala gatzik gabe?

Gatzik gabeko ogia ez litzateke ogia izango. Behin probatu nuen eta ez dauka zapore bera. Jendeak dendan, gatzik gabeko ogia baino gehiago, integrala eskatzen du.

Zer da okin izatearen alde onena eta txarrena?

Txarrena, horrelako lan guztietan bezala, zapatu eta domeketan lan egin behar dela eta onena, berriz, bezeroekin dagoen hartu-emana.


Ogien artean badago modan dagoenik?

Gabonetan baserriko ogia saltzen da gehien. Baina orain modan dagoen ogia zereal askotariko ogia da.

Okinak jatun onak zarete?

Nik uste dut baietz. Edozein momentutan jaten dugu ogia!

txaloak eta txistuak



JASONE ZABALA

Labegaraietako bidegorriko hormaren aurpegia, garbi



Duela aste batzuk, Labegaraieta auzoko bidegorri inguruaren zeuden sastraken argazki bat erakutsi genizuen; itxura eskasa erakusten zuen inguruak aldi hartan: sastraz beteta, adarrak... Orain, berriz, aurpegia garbitu diote eta, irudian ikusten denez, horma garbi-garbi utzi dute.

ARANZADI IKASTOLA

Kalitatezko Euskal Heziketa



San Martin Plaza 4
20570 Bergara
bergara@ikastola.net
www.aranzadiikastola.org

- Guztiok ikastola
- Herriko erdigunean gaude
- Instalazio berrien proiektua
- Haurtxoan hartzaindegiaaren ondoan
- Euskara eta euskaraz bizi
- Zaintza zerbitzu zabalena: 07:00etatik 19:00etara
- Eskolaz kanpoko zerbitzu onenak
- Irakaslego aurrerakoia
- Heziketa berritzaleena
- Euskal Herriko 101 ikastolen taldekide

BISITA GIDATUAK Otsailaren 13 arte
Harremanetarako: Maite Guridi 943 76 90 71



euskal eskola
publikoaren 18. jaia
ekainak 7 / bergaran

EHIGE gurasoen elkartea

obatu
euskal eskola publikoari

Aurrematrikulak:
Otsailaren 2tik 13ra

HIRIGINTZA > ERREPIDEA

Garbitzen ibili dira Arrasatera doan errepeidea

Arrasate mendebaleko saihesbideko lanengatik semaforoa dago jarrita errepeide horretan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Aretxabaletatik Arrasatera doan GI-3920 errepeidean semaforoa dago jarrita joan den astea ezkerro, automobilei pasoa emateko. Errepide estua da –orain estua– goa autobideko zubiaren euskarriak daudelako– eta, gainera, ur asko pilatzen da euria egiten duenean. Hori horrela, auto gida-riak kexu dira azken hilabeteotan eta Udalak behin eta berriro eskatu dio Aldundiko Errepide Sailari konponbideren bat emateko uraren kontuari.

Joan den egubakoitzean, hain zuzen, ibili ziren hainbat langile errepeide bazterrak txukuntzen eta uraren hodia garbitzen. Hodi horrek ura jasotzen du errepeidearen alde batean–autobideko lanengatik pilatuta dauden lurre-tatik datorren ura– eta beste aldean dagoen ibaira eroaten du. Baina sarritan, ura hoditik pasatu beharrean errepeide gainetik joaten da, eta hori arriskutsua da automobilendako, putzu handiak sortzen direlako eta hotz eginet gero izotz zatiak sor daitezkeela-



Aretxabaletatik Arrasatera bidean, GI-3920 errepeidean, dagoen semaforoa.

M.A.

ko. Garbiketa lanak lehen ere egin zituzten, baina Udaleko Hirigintza Saileko ordezkariek diote behin betiko konponbiderik ez diotela ematen arazoari.

Aldundiak, berriz, adierazi du kuxeta berria jarriko dutela errepeidean urak xurgatu eta putzurik sor ez dadin.

SEMAFOROA PASUA EMATEKO

Errepide horretan ez dabilta beste lanik egiten, baina semaforoa jarri dute automobilendako. Arrazoa da Garagartzia auzotik bueltan egingo duten Arrasateko saihesbidearen lanak hasita daudela. Hain zuzen, GI-3920 errepeide gainaldean beste bide bat

zabaltzen dabilta, hondeatzemakinak erabilita; bide hori saihesbide berriaren iparraldean geratuko diren lursailetara joateko izango da.

Semaforoak zenbat denboran egon beharko duen ez dakite udal arduradunek; hortaz, pazientzia eskatzen diente gidariei.

UDALA > OSOKO BILKURA

2009ko udal aurrekontuaren eztabaida atzeratu egin dute

Asteleheneko osoko bilkuran aurkeztu zuen Aralarrek, baina atzeratzeko eskatu zioten hiru alderdik

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran aurkeztu zuen Udal Gobernuak 2009ko aurrekontua, baina hiru alderdik –EA, EAJ eta PSE-EE– atzeratzea esku-tu zuten. Aralarrek abenduan pasatu zien aurrekontuaren zirriborroa, baina EAJko eta PSE-EEko zinegotziek adierazi zuten behin betikoa astelehenean bertan jaso zutela eta ez zegoela aztertzeko denborarik. EAk, ostera, aurrekontuaren norabidea zehazten duen txostena gura du.

LAU MOZIOREN EZTABAINA
Bestalde, lau mozio aurkeztu zituzten. Giza eskubideen 60. urteurrena dela-eta EAk aurkeztu zuen mozioa, eta onartu ere bai. Copreci lantegiaren leku falta dela-eta informazio gehiago eska-tu zuten EAJk eta PSE-EEk, eta alkateak emateko konpromisoa hartu zuen. Garapen ekonomikoaren aldeko adostasuna eskatzen zuen mozioa erretiratzea erabaki zuen EAk. Eta Batasuneko kideen kartzelaratzea dela-eta Aralarrek aurkeztutakoak eztabaida eragin zuen. Puntu bat ez zuten onartu, presoen askatasuna eskatzen zuena. EAk beste proposamen bat egin zuen, eta onartu egin zuten EAren eta EAJ-ren botoekin.

Eta martxoaren 1ean hautes-kunde mahaietan egongo diren herritarrak hautatu zituzten.



MIRARI ALTUBE

> ALDUNDIA
Markel Olano
ahaldun nagusia
izango da bisitan gaur

Diputatu nagusi Markel Olano-noren bisita jasoko dute udal ordezkariek gaur, hilak 6. Udaletxean elkartuko dira eta ondoren herria eta inguruak erakutsiko dizkiote: Arkupe kultura etxea, kirol etxearen eta zaharren egoitza berriaren lanak, industrialdea, Urkulu urtegi inguru...

> HAUTESKUNDEAK
Posta bidezko botoa
emateko laguntza
eskaintzen du EAk

Martxoaren 1eko hauteskun-deetan posta bidezko botoa eman gura dutenei laguntzeko ger-tu dago Aretxabaletako Eusko Alkartasuna. Horretarako Alkartetxera deitu behar da: 943 79 84 85. Azken eguna otsailaren 19a da.

SERRERIA ERRASTI S.L.

EGUR BILTEGIA

- Taula aglomeratuak, D.M. melaminak
- Mozte zerbitzua
- Aurremarkoak eta aholtzak
- Egurrezko enbalajeak



Tel./ Fax.: 943 79 01 61 / 651 70 79 96
ARETXABAleta



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta

Tel. 943 77 00 33/79 42 56

ARATUSTEAK > PRESTAKUNTZA


Ruben Montero da kartel lehiaketaren irabazlea

Bestalde, Iturrigorri frontoian egingo den bazkarirako sarrerak dagoeneko salgai daude Arkupen; aurten ere koadrilaka eman beharko da izena

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Dagoeneko aukeratu dute Aratusteak iragarriko dituen kartela. Ruben Montero Millan bergarrrak irabazi du aurtengo lehiaketa. Epaimahaiaik kartelaren egituraketa, mezua eta erabilitako koloreak izan ditu kontuan irabazlea aukeratzerakoan.

Guztira, aurten, lau kartel aurkezten dira Aratusteetako kartel lehiaketara. Ruben Montero bergararrak 300 euroko saria jasoko du.

BAZKARIRAKO SARRERAK SALGAI
Bestalde, Kultura Sairetik jakinarazi dutenez, dagoeneko salgai daude Aratusteetako bazkarira joan ahal izateko sarrerak. Ero-



Kartel irabazlea.

GOIENKARIA

si gura dituenak Arkupe kultura etxera joan beharko du, Kultura Sailak han dituen bulegoetara. Sarrera bakoitzak 18 euro balió du, eta, aurreko urtean bezala, koadrilaka eman beharko da izena. Kulturako teknikari Inma Migelen arabera, modu horretan samurrago koka daiteke jendea mahietan. Bazkaria Iturrigorri frontoian izango da; 500 pertsonarendako tokia dago.

TXAPEL TXIN EGUNA

Bestalde, Aratusteak datozena gogoratzeko, Txapel Txin eguna egingo dute, bigarrenez. Otsailaren 14an egingo den jaialdirako, antolatzaleek aretxabaletarrei gonbita egin diete etxean duten edozein txapel jantzita kalera iriteteke.

Ekimenak 17:00etan hasiko dira, Arkupen, haurrendako ikuskizunarekin; eta ordubete geroago, torrada lehiaketari emango diote hasiera. Partaide bakoitzak hamabi torrada ekarri beharko ditu etxetik. 18:30ean, Indarra dantza taldeak lagunduta, antzezlana ikuusiko da herriko kaleetan. Arkupetik irten eta herriko plazatik, Duranatik eta Mitartetik pasa ostean, plazara bueltatuko dira.

Aratusteetako pregoia 19:45ean irakurri ondoren, torrada lehiaketako sariak banatuko dira. Torrada gozoenak egiten dituenak 100 euro eta Txorratxin txapela lortuko ditu; bigarrenak, 50 euro; eta hirugarrenak, 20 euro. Jarraian, egindako torradak das-tatu ahal izango dira, txistorra eta sagardoarekin batera.

> DANTZA

Leizarra musika eskolak euskal dantzen gaineko ikastaroa antolatu du, helduendako

Dantza egiteko eta ikasteko gogoa duten aretxabaletarrek badute hemendik aurrera non praktikatu. Leizarra musika eskolak euskal dantzen gaineko ikastaroa antolatu du, helduendako; 18 urte baino gehiago dituztenek parte hartu ahal izango dute esko-la horietan.

Saioak egubakoitzetan izango dira eta ordubete iraungo dute: 15:45etik 16:45era. Leizarra musika eskolak Arkupen dituen geletan emango dira eskola horiek.

> AISIALDIA

Corazon de Encina elkartea Extremadurako ogi-mamien eguna antolatu du domekarako

Ogi-mami usaina egongo da domekan, otsailak 8, herriko plazan: Arrasateko Corazon de Encina elkartea Extremadurako ogi-mamien eguna antolatu du. Plazara joaten diren guztiak Extremaduran tipikoa den artzainen erregeta probatzeko aukera izango dute, 10:00etatik 15:00etara bitartean.

Ekimen horren bidez Extremadurako kultura ezagutarazi nahi du elkartea, eta, horretarako, urtero Debagoieneko herri batean antolatzen du esandako jaialdia.

> ZINEMA

Datozen egunotan 'Los girasoles ciegos' eta 'La isla de Nim' film emanaldiak egingo dituzte Arkupen

Zinema ikusteko aukera egongo da datozen egunotan Arkupen. Gaurtik astelehena bitartean, *'Los girasoles ciegos'* filma emango dute. Egubakoitzean eta zapatuan 22:00etan hasiko da emanaldia; domekan, 19:30ean; eta astelehenean, 16:00etan. Azken egun horretan sarrerak bi euro balioko du eta gainontzekoetan, berriz, lau euro. Domekan, otsailak 8, gainera, haur zinema egongo da. Etxeko txikienek *'La isla de Nim'* izeneko filma ikusi ahal izango dute, 17:00etan, hiru euroren truke.

2009-2010 ikasturtea

Izena ematea: **otsailaren 2tik 13ra arte**

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara

**TALDE EGOKITUAK**

- 0 eta 3 urterako haurak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA

**Txiki txikitatik
jolasten heziz**

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

Joxan Larrañaga > Parrokoa

"Oñatiko Pastoral Barrutiaren inaugurazioa egindo dugu bihar"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Pastoral Barrutiaren aurkezpen ofiziala egingo dute bihar, 19:00etan hasiko den meza nagusian, eta Donostiako gotzainak parte hartuko du elizkizunean. Ebanjelioa zabaltzeko bide berriak topatzeko asmoz sortutako taldea da. Joxan Larrañaga parrokoak eman dizkigu azalpenak.

Bihar elizkizun berezia egingo duzue parrokan, eta Jose Mari Uriarte gotzainak parte hartuko du.

Oñatiko Pastoral Barrutia ren eraikitzetako ofiziala egingo dugu. Gotzainak Pastoral Barrutian dauden taldeen ordezkariek izendatuko ditu, eta bakoitzari ardua bat emango dio. Hori guztiori, 19:00etan, Mikel Deuna parrokiak ospatuko dugun elizkizunean egingo dugu.

Ospakizun importantea da eta herriar guztia gonbidatu gura nituzke.

Nortzuk parte hartzentzu duzue pastoral barrutian?

Hainbat partaide ditu; hain zuzen ere, herriko hiru parrokiako ordezkariek (Mikel Deuna, Urrexola eta Araotz); Bidaurretako eta Agustindarretako kideek; hiru monasterioetako arduadunek; Elkar Hezi kristau eskolako kideek; eta auzoetako kristau elkartetako ordezkariek.

Zergatik erabaki duzue pastoral barrutia sortzea?

Donostia Elizbarrutia aspaldi hasi zen elizaren barneantolakuntza berria egiten. Batez ere, herri txikietan elizaren inguruko kontuak antolatzea oso zaila da; besteak beste, geroz eta apaiz gutxiago daudelako.

Horregatik guztiagatik, etorkizunera begira antolakuntza hobetzeko herri bakotzean pastoral barrutiak sortzea erabaki zuten.


Oñatin noiz hasi zineten taldea sortzeko lana egiten?

Azken hiru urteotan herriko elizaren eta gizartearren azterketa egin dute hainbat lagunek. Besteak beste, lehentasunak zehaztu ditugu. Egoera nolakoa zen ikusita pastoralzaren inguruaren lanean gabiltzan guztioak indarrak batzea erabaki genuen.

Ni izango naiz pastoral barrutiko moderatzailea. Era berean, hainbat arduradun egongo dira: besteak beste, katekesiko, kartaseko, ekonomiako, osasun eta kartzelako pastoraltzaren arduradunak.

Zenbatean behin egiten dituzue batzarrak?

Hamabost egunean behin pastoral barrutiko talde eragileko kideak biltzen gara, azken orduko berriak azaldu eta erabakiak hartzeko. Bestalde, hilean behin



Joxan Larrañaga.

GOIENKARIA

Pastoral Kontseilua biltzen da. Batzar horietan pastoral barrutietako ordezkarri guztia biltzen gara.

Ze helburu bete gura ditu Oñatiko Pastoral Barrutiak?

Helburu nagusia da: sinismenaren egoera berri baten aurrean, erantzun berriak eman alaizateko lana egitea. Alegia, ebanjelioa zabaltzeko bide berriak

topatu behar ditugu. Orain dela gutxi arte, elizaren ardura apaiz eta erlijiosoen esku zegoen; baina, egun guztiendako tokia egin gura dugu; besteak beste, laikoak, erlijiosoa eta apaizak. Batez ere, laikoak presentzia indartu behar dugu, horretarako behar duten laguntha emanez. Etorkizunean horren alde egin behar dugu lan, eta horretarako sortu dugu Pastoral Barrutia.



ELKAR HEZI

Santa Ageda kopla kantatu zituzten ikasleek

Ohiturari jarraituz Santa Ageda kopla abestu zituzten herriko ikastetxeetako neska-mutikoek, eguztenean, Santa Ageda egunaren bezperan.

Elkar Hezi ikastetxeoko Lehen Hezkuntzako ikasleak (goiko irudian) goizean irten ziren herriko kaleak alaitzera. Bestalde, Errekalde Herri Eskolako neska-mutikoak 18:00etan irten ziren kalera eskolako

irakasle eta gurasoien laguntzarekin. Ohiko koplekin batera eskolan landutako bertsoak kantatu zituzten. Txantxiku Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak 15:30ean irten ziren kalera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten soinujoleen laguntzarekin ikastolako jolaslekuaren hasita kalerik kale ibili ziren, ibilaldia, plazan bukatzeko.

AISIALDIA

Gaztelekuko kuboa zabalik gazteendako

M.B. > OÑATI

Sotoarekin egindako moduan, bihartik, gaztelekuko kuboa 8 eta 11 urte arteko gazteendako zabalduko dute aste bukaeratan. "Adin tarte horretako nerabeek toki publiko barik gelditzen zirela ikusirik, kuboa zabaltzea erabaki dugu. Bi hilabeteko hausnarketa egin dugu", esan digu gaztelekuko arduradun Patxi Hipolitok.

NEGUKO HILABETEETAN

Neguko hilabeteetan zapatuetan, domeketan eta jaiegunean zabalduko dute kuboa, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etik 20:00etara. Gune txikia den arren (70 metro koadro ditu bakarrik), ondo hornituta egongo da: oinarritzko jokoak egongo dira; besteak beste, xakea, mahai-jokoak eta mahai-futbola. Era berean, eurek proposatutako ekintzak egiteko aukera izango dute.

oharrak

DEIALDIA

> **Bizikleta tailerra egingo dute Errekalde Herri Eskolan**

Kultur hamabostaldiaren barruan bizikleta tailerra egingo dute bihar 16:30ean. Parte-hartzaileei bizikleta eroatea gomendatzen diete. Ondoren jolasak egingo dituzte.

Eguaztenean, bestalde, mugikortasun jasangarriaren gaineko hitzaldia egingo dute kultura etxearen, 18:30ean. Isabel Prieto De Blas izango da hizlaria.

IKASTAROA

> **Henna ikastaroa egingo dute Elkar Hezin**

DBH eta Batxilergoko ikasleek hennaren gaineko ikastaroa egingo dute, 17:30etik 19:30era. Iban Martinez izango da irakaslea.

IZENEMATEA

> **Matrikulazioa zabalik herriko ikastetxean**

Hilaren 13ra arte dute zabalik ikasturte berriak izenemate epea Errekalde Herri Eskolan, Elkar Hezin eta Txantxiku ikastolan.

ZERBITZUAK

> **Trikiti bazkaria egingo dute Larrain Gain elkartean**

Martxoaren 14an egingo dute bazkaria. Izenemate epea zabalik dute martxoaren 7ra arte, Umerez edo Urbia tabernetan.



Irudian, herriko kaleetan bidea oztopatzenten ibilgailuak.

M.B.

UDALA > OSOKO BILKURA

Isunak lehen hamabost egunetan ordaintzeagatik, %50 merkeago

Udalbatzak zirkulazio arloko ordenantza aldatzea adostu du bilkuran, aho batez; kirol instalazioen erabileraren gaineko araudian ere aldaketak daude

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Asteleheneko osoko bilkuran, zirkulazio arloan egiten diren lege-hausteak arautzen dituen ordenantza aldatzea erabaki zuten. Orain arte, Eskoriatzako Udaltzaingoak jarritako isunak

lehen hamabost egunetan ordaintzen baziren, %30eko deskontua egiten zen. Udalbatzak deskontu hori %50era igotzea adostu zuen aho batez. Horrenbestez, epe horretan ordaintzen duenak erdia ordainduko du.

BONU MANKOMUNATUA
Gainera, kirol instalazioen eta zerbitzuen erabilera arautzen duen ordenantza aldatzea ere erabaki zuten. Egun, urteko bi bonu mota daude: herrikoa eta mankomunitua. Azken horrek bailarako gainontzeko herrietaiko instalazioak erabiltzea ahalbideratzen du. Herriko bonuak 128,9 euro balio du eta hainbat sektorek %50eko deskontua dute: familia ugarien, erretiratuta zein

langabeziaren dauden famili unitateek eta gizarte larrialdiko edo gutxienekeko diru-sarreren laguntzak jasotzen dituztenek. Orain arte, bonu mankomunitua dute nek ez dute inongo deskonturik izan, goiko sektore horretakoak izanda ere.

Hori aldatzea adostu zuten. Bonu mankomunituari eta Plus Arrasate delakoari, Eskoriatzako bonuak duen deskontua aplikatuko zaie hemendik aurrera.

HAUTESKUNDEAK

Mahaietako kideen zozketa egin dute asteon

M.B. > ESKORIATZA

Martxoaren 1eko hauteskundeetako mahaietan egongo diren herritarren zozketa egin dute asteon udaletxeen. Asteleheneko bilkuran horien izenak ezagutazari ziren eta egunotan udaltzainek dihardute tokatu zaienei etxez etxe abisatzen eta jakinarazpena eramatzen. Hauteskundeetan lan egitea tokatu baina ezin dutenek notifikazioa jaso dutenek zazpi egun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko.

Hauteskunde mahaietako kideak

1-A MAHAI TITULARRA

Mahaiburu	TITULARRA	1. ORDEZKO	2. ORDEZKO
Mahaiburu	Maria Soledad Andrade Martin	Saioa Gomez Rubio	Miren Arantxa Agirregabiria Altuna
1. bokala	Josefa Benito Rubio	Ana Cobos Duran	Andres Gordillo Sedano
2. bokala	Karmelo Azkoitia Galdos	Patricia Asorey Boisa	Itxaso Altuna Andueza

1-B MAHAI TITULARRA

Mahaiburu	TITULARRA	1. ORDEZKO	2. ORDEZKO
Mahaiburu	Maria Milagros Muñoz Calle	Juan Ignacio Luengo Mato	Nekane Lobato Esteban
1. bokala	Edorta Zubizarreta Alegría	Iker Martinez de Lahidalga Eraña	Maria Elena Vitoriano San Vicente
2. bokala	Maria Teresa Marcos Sanchez	Sergio Some Gamero	Meñaka Zabala Llona

2-A MAHAI TITULARRA

Mahaiburu	TITULARRA	1. ORDEZKO	2. ORDEZKO
Mahaiburu	Gorka Akizu Lazcano	Asier Eskibel Arkauz	Laura Ferreira Ferreira
1. bokala	Javier Beitia Beitia	Rosa Maria Garate Ugarte	Maria Dolores Escobar Aroca
2. bokala	Orkatz Beamurgia Barco	Joaquin Alonso Iregi	Jesus Maria Beloki Osinaga

2-B MAHAI TITULARRA

Mahaiburu	TITULARRA	1. ORDEZKO	2. ORDEZKO
Mahaiburu	Jose Ramon Langaran Vitoria	Felisa Pagaldai Zillaurren	Nekane Urrutia Urzelai
1. bokala	Blanca Nieves Some Zaldua	Igone Orueta Arrese	Ruben Palomo Herranz
2. bokala	Ander Osa Sandoval	Jose Luis Segura Uriarte	Francisco Javier Zabala Biain

oharrak**PILOTA****> Eskoriatzaren eta Mundarrok arteko partidua gaur**

Udaberri txapelketaren barruan, gaur, egubakoitza, bigarren mailako eskuz bina-kako gazteek jokatuko dute herriko Udal Pilotalekuaren, 20:00etan. Eskoriatzak eta Mundarrok neurako dituzte indarrak norgehiagokan.

HAURRAK**> Ludotekan eskulanak eta izotz pistara irteera gertu**

Gaur, egubakoitza, buztinarekin eskulanak egingo dituzte 7 eta 12 urte arteko haurrek Tortolis ludotekan, 18:00etan. Bihar, berriz, Gasteizko izotz pistara joateko hitzordua egin dute. Irteera 10:00etan izango da eta 14:00etan bueltatuko dira herrira.

GAZTEAK**> Wii txapelketaz gain, feltao landuko dute gaztegunean**

Aste bukaerari begira, gazteendako ekimenak antolatu dituzte gaztegunean. Bihar, zapatua, wii txapelketa jokatuko dute, 18:00etan; eta domekan feltaoarekin eskulanak egiteko tailerra egongo da ordu berean. Ekimenak doan dira.

ARETO FUTBOLA**> Calasanz taldearen kontra lehiatuko da Eskoriatza**

Ohorezko ligako areto futbol partidua izango da asteon etxeen. Eskoriatzarrak Calasanz taldearen kontra lehiatuko dira kirolegian, 17:00etan.

SANTA AGEDA**> Santa Ageda neska-mutilek dantza egingo dute domekan**

Aurreko egunotan base-rriz baserri eta herriko kaleetan kantuan eta eskean ibili, eta Santa Ageda egunean herriko plazan dantza egin zuten 1991. urtean jaiotako neska-mutilek. Domekan, hilak 8, dantzaldia errepikatuko dute plazan, 19:00etan.

ERRETIRATUAK**> Otsailaren 9tik 28ra urteko kuota ordaindu behar dute**

Olazar erretiratuen elkarrekin jakinarazi du urteko kuota ordaintzeko epea zabalduko duela astelehenean eta hilaren 28ra arte egongo dela zabalik. Erretiratuek sei euro ordaindu beharko dituzte elkarteararen bulgoan, 11:00etatik 12:30era.

ONA TXARTELIA**> Erabilera askotako osasun txartela eskura daiteke**

Otsailean aukera izango dute eskoriatzarrek erabilera askotariko osasun txartel berria eskuratzeko herriko liburutegian, honako orduetegian: 10:30etik 13:00etara bitartean.

ARATUSTEAK > LEHIAKETA

Mozorro lehiaketarako oinarriak gertu

Joan den urtean mozorroen lehiaketak izandako arrakasta ikusita, aurten bigarrenez antolatzea erabaki du Udalak; otsailaren 21ean izango da

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Aratusteetarako aste pare bat baino ez dira geratzen. Mozorrotzea gustuko dutenak aspaldi ibiliko dira buruari bueltak ematen, otsailaren 21ean, zapatua, kalea irtengo diren mozorroa gertatzentz. Badaude, hala ere, erabaki hori azken momentura arte utzen dutenak.

Aurten bigarrenez mozorrotzen diren guztiendako lehiaketa antolatu du Udalak. Horretan parte hartu nahi dutenak zaptuan, 18:00etan, pilotalekutik abiatuko den desfilean irten beharko dira. Aurretik, gainera, izena eman beharko dute pilotalekuaren bertan; 17:30ean zabalduko da horretarako epea.

Parte hartzeko bi modalitate egongo dira. Batetik, banakakoa

edo talde txikian irteten direnak izango dira; lagun bakarra eta hiru lagun bitartekoak, hain zuzen. Bestetik, taldekakoa egongo da; hau da, lau pertsonatik gora osatutakoak.

Izena ematean koadrila bakoitziari zenbaki bat emango zaio, desfilean edukiko duen ordena adierazteko; hala ere, talde txikiak eta banakoak aurretik joango dira desfilean.

EPAIMAHAIAREN BALORAZIOA

Udaletik jakinarazi dutenez, mozorro onenak aukeratzeaz arduratuko den epaimahai Kultura azpibatzordeko hainbat kidek osatuko dute. Saria ematerakoan epaimahaiak honako ezaugarriak izango ditu kontuan: parte hartzaleek erakutsi-



Iazko desfilean askotariko adineko lagunek parte hartu zuten.

GOIENKARIA

tako umorea, sortzen duten giroa, mozorroaren originaltasuna, janzkeria, eszenografia, koreografia eta egindako lana.

Desfilea bukatutakoan epaimahaiko kideak elkartuko dira horren gainean erabakia hartzeko. Jarraian, plazan bertan jakinaraziko dute aurtengo mozorro lehiaketako irabazleak nortzuk diren eta sari banaketa egingo dute.

SARIAK

Sariei dagokionez, taldekako atalean, irabazleek 250 euro eskuratu tuko dituzte eta bigarren geratzen direnek, berriz, 150 euro. Talde txikikoan edo banakakoan, lehenak 100 euro irabaziko ditu eta bigarrenak, 50 euro.

Mozorrotzen diren hamasei urtetik beherakoendako ere hiru sari sorpresa izango ditu epaimahaiak.

AISIALDIA

Mus txapelketa izango da domekan

M.B. > ESKORIATZA

Urtero moduan, Euskal Herriko mus txapelketa jokatuko da. Dagoeneko hasi dira herriean kanporaketak eginen; baita Eskoriatzan ere. Aitzorrotz Kultura Elkarteak txapelketako lehenengo kanporaketa antolatu du. Partida domekan, otsailak 8, jokatuko dira Inkernu tabernan, 16:00etan.

Txapelketan parte hartu gura dutenek izena eman ahal izango dute Inkernun bertan, edo herriko Zarauztarra, Aldatz eta Urrestilla tabernetan. Bikote bakoitzak, izena ematerakoan, 20 euro ordaindu beharko ditu.

SARI POTOLOAK

Herrietako kanporaketak otsailean zehar jokatu dira. Final nagusia, berriz, Seguran egingo da, martxoaren 14an. Txapelketa irabazten duen bikoteak nazioarteko astebeteko bidaia, 3.000 euro eta txapela eskuratu tuko dituzte sari moduan.

BASABE jatetxea

Basabe poligonoa Aretxabaleta
Tel.: 943 77 07 94

- Eguneko menua • Karta
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)



UDALA > OHIKO UDALBATZARRA

Aurtengorako 7.229.406 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Inbertsioak egin ahal izateko dirulaguntzak jaso beharko dituzte Udalean; bestela, ez dute aurrera egingo

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Hileko lehen eguztenero ohi duten moduan, ohiko udalbatzarra izan zuten otsailaren 4an.

Batzarraren hasieran jakinarazi zuten familia arazoak direla medio Joxi Beltranek zinegotzi kargua utziko duela; zerrendan horren ondorengoa den Mikel Larreak ere uko egin dio postuari; hortaz, Joseba Lezetari dagokio kargua hartzea, eta orain, hauteskunde batzordeari jakinaraziko diote aldaketa.

INBERTSIOAK

Aurrekontuaren txanda izan zen gero. PSOEko eta EAJko bi zinegotziak abstenitu egin ziren, eta gainontzekoen baiezko botoekin aurrera egin zuen 7.229.406,43 euroko aurrekontu proposamenak.



Kalegoi berritza da aurreikusitako inbertsio nagusienetako bat.

GOIENKARIA

Iazko aurrekontuarekin alde-ratuta gastu arrunta jaisteko saia-kera egin dute. Hala ere, azken inbertsioak direla medio, hainbat partida igo egingo dira. Inbertsio nagusiak izango dira: auditoriu-meko armailak; baserrietako ura

eta saneamendua; futbol zelaia berritza; Kalegoi urbanizatzea; gaztetxea; eta eskolako aterpea. Aurrekontuaren gainean alkateak esan digunez, "dirulaguntzean oinarritzen dira inbertsio guztiak eta Udalak ez du gehie-

gizko aportaziorik egingo". Hortaz, dirulaguntzak kale eginez gero, inbertsioek ez dutela aurre-ra egingo jakinarazi digu.

Kalegoiko eta futbol zelaiko lanak Estatuko inbertsio fondo-etatik egiteko asmoa dute; eta eskolako aterpeko lanak egiteko-tan dirulaguntzei esker izango da. Auditoriumeko armailekin eta baserrietako ur eta saneamen-duarekin hasteko, berriz, 2008ko likidazioari begira egon beharko dute. Bestalde, gaztetxeo obrak anbulatorio zaharra hustutako-an egitea da asmoa.

Udalbatzarrean, Udal egi-ten dabilen finantzazio planaz ere jardun zuten. "Egoera ekono-miko eskasa denez, hurrengo urteetan inbertsioak egiteko gai-tasuna oso murrita da. 2009rako Udalak 2.600.000 euroko mailegu beharra du", dio alkateak.

Palestinako gatazkaren gaine-an aurkeztu zen mozio baten hari-ra ere luze jardun zuten udalba-tzarrean, eta eztabaidaren oste-an, erabaki zuten zinegotzi guztiak adostutako mozioa ger-tatzea gai horri buruz.

LAPURRETAK

Bi auto ostu dituzte, garajeetan sartuta

I.A. > ANTZUOLA
Domekatik astelehenera bitartean Buztinzu eta Aiherria kaleetako garajeetan lapurretak izan ziren. Sarrai-lak apurtu eta atea indarrez zabaldu ondoren, garaje askotan sartu ziren eta gau-zak lapurtu ez ezik apurketak ere egin dituzte, eta bai-ta autoak marratu ere. Gai-nera, bi garajetan autoak ere ostu dituzte, bi guztira. Horretaz gain, bizikleta bat eta autoen barruan aurkitu-tako beste hainbat gauza ere eraman zituzten.

Antzuolan azkenaldian lapurreta gehiago ere izan da, baita etxebizitzetan ere, eta herriarrak kezkatuta daude. Udaletik ere kezka azaldu dute azkenaldian izan diren lapurrengatik eta Herrizaingo Sailarekin harre-manetan jarri dira.

Ertzaintzatik jakinarazi digutenez, garajeetako jabe-en salaketak jasotzen dihar-dute eta ikerketa zabalik dago oraindik.

oharrak**KARTAK****> Mus txapelketa**

Herriko mus txapelketan jadanik hiru bikote sailkatu dira finalerako: Agirre-Alberdi; Atxen-Zubi eta Agirre-Aranburu. Hurrengo kanpo-raketa gaur, egubakoitzat, izango da, 22:00etan, Gailur tabernan. Finala zapatuan, hilaren 7an, 18:00etan, Arinen.

JAIAK**> San Blas**

Martitzenean izan zen San Blas eguna, baina Basalden zapatuan, hilaren 7an, ospatu dute. 12:00etan meza izango da eta gero salda eta txorizoa banatuko dituzte tri-kihi doinuz lagunduta.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Santa Ageda bezpera, kantuan kalera

Ohiturari jarraituz, Santa Ageda bezperan kantura atera ziren hainbat talde. Kintoek herriko baserriatik egin zuten ibilbidea eta abesbatzakoak, trikitilaria eta txistularia lagun hartuta, herrian ibili ziren kantuan, arratsaldez. Azken horiek jasotako dirua (750 euro) Debagoieneko Trikitixa Eguna antolatzeko baliatuko dute, eta antolatzaileak herritarrak eskertu nahi dituzte.

> KIROLA

Profesionalen arteko pilota partiduak gaur Udal Pilotalekuuan

Gaur, egubakoitzta, profesio-nalen arteko pilota partiduak izango dira, 22:00etan, Udal Pilotalekuuan. BBK binakako txapelketako partiduan jarduno dute Beloso-Eskudero eta Aritz Lasa-Arruti bikote-ek aurrez aurre. Bestalde, lau t'erdian Arretxe II.ak Kokaren kontra jokatuko du. Sarra-ra 10 euro izango da.

Bestalde, Udalak Gipuz-koa Donostia Kutxarekin Udal Pilotalekuuan markagai-lu elektronikoa ipintzeko hitzarmena sinatu du eta hamar urtez han izateko kon-promisoa hartu dute.

LARREA**TABERNA**Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzu 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatu eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikoko 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



Dirulaguntzekin finantzatuko dituzte, besteak beste, Asentzio ingurua berritzeko egin beharreko inbertsioak.

GOIENKARIA

UDALA > 2009KO AURREKONTUAK

Udalak 2.082.839 euroko aurrekontua onartu du

Aralarko zinegotzien, Edurne Alberdiren eta Leire Basauriren baiezko botoekin eta Elgetako Abertzaleen aurkako ekin zuen aurrera

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Udalbatzarrean 2009ko aurrekontuak izan zituzten mahai gainean. Aralarko zinegotzien eta Edurne Alberdiren eta Leire Basauriren baiezko botoekin onartu zuten 2.082.839,89 euroko aurrekontu proposamena; eta Elgetako Abertzaleak taldeak aurkako ekin zuen aurrera.

"Krisiari zerbitzuak hobetzeko ahalegina eginda erantzun behar zaio", uste du Aralarrek. Hortaz, saiatu dira aurrekontua ahal den tokitik estutzen eta diru sarreretan ahalik eta aurrekontu "errealistena" egiten. "Hurrengo hilabeteetan ez da eraikuntzatik diru sarrera askorik izango, eta horijaso dugu aurrekontuan".

Gainera, "Udalaren diru sarrera politika ezin da eraikuntzan oinarritu eta inbertsioen finantzazioa Udalaz gainerako era-kundeen bidez lortu behar da. Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin batzartu gara eta emaitza onak izan ditugu", diote.

Elgetako Abertzaleek aurrekontuen aurka bozkatzeko arrazoietako bat izan da hori: "Azken urteetan Elgeta XXIen esker lur industriala eta besteak kudeatuz, Udalak baliabideak izan ditu Espaloia egiteko, pilotalekua konponzeko... Aurkeztu diguten aurrekontuan dagoeneko Elgeta XXIen ez dago partidari soldatei aurre egiteko. Nork bilatuko ditu baliabideak? Nork kudeatuko du Elgeta XXI?", esan dute.

INBERTSIO NAGUSIAK

Asentzio altzariak berritzea, zuhaitzak landatzea eta sarrera eta aparkalekua egokitzea aurrekusi dute inbertsioetan. Aurrekontua 185.000 euro da eta IHOBEK laguntza emango du; haurtzaindegi, gazteleku eta ludoteka berrien finantzazioan Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Kutzak hartuko dute parte.

Inbertsio horietaz gain, beste hauek aurreikusi dituzte: Espainiako gerraren gaineko ibil-

Hauteskunde mahaietarako zozketa

Mahaiburua

Migel Aranzeta Egizabal

1. ordezkoa:

Eguzkiñe Odriozola Ollizu

2. ordezkoa:

Juan A. Viejo Sierra

1. bokala

Felix Irirza Prieto

1. ordezkoa:

Jabier Delgado Alvaro

2. ordezkoa:

Daniel Palacios Saenz

2. bokala

Iker Diez Uranga

1. ordezkoa:

Fermina Mur Vabiano

2. ordezkoa:

Mikel Garmendia Lete

bide tematikoa (150.000 euro); irisgarritasuna (22.820 euro); Espaloia eta kirolegiko tabernako egokitzapenak (21.000 euro); Salbador kalean argiteria lurperratzea (22.000 euro); spinningeko bizikletak (6.000 euro); eta mendi nekazaritzako proiektuak (60.000 euro).

Aurrekontuan gainontzeko talde politikoen babes lortzen saiatu da Aralar, eta Elgetako Abertzaleek egindako ekarpenen %50 onartu arren, haien kontra bozkatu dutela diote.

DIRU SARRERARIK EZA SALATU

Elgeta Abertzaleak taldekoak aurrekontuaren aurka bozkatzeko emandako beste arrazoi bat da "Udalak ekonomia arloan izandako jokabide penagarria". Euren esanetan, "ez da diru sarrerarik sortzen, proiektuak egiteko mai- leguen eta dirulaguntzen mende gaude eta ez dago proiektu estrategikoak martxan ipintzeko gaitasunik". Zergen igoera ere salatu dute, batik bat zaborrena. Patronatuaren eraikuntzaren gaineran irtenbiderik ez ematea izan da beste arrazoi bat: "Mendizetasunaren interpretazio gunearen atea itxi zituzten eta ez dute betterik zabaldu, eta eraikina gero eta okerrago dago", diote. Azkenik, pertsonalean izandako alda- ketak ere salatu dituzte.

Aurrekontu proposamena onartzearaz gain, udal taldeean arau-diaz, errekkako lehenengo plan partzialaren aldaketaz eta Intxorta magalean egin nahi duten ibilbide turistikoaz jardun zuten udalbatzarrean, eta martxoaren 1eko hauteskunde mahaiaren zozketa egin zuten.

oharrak

HAUTESKUNDEAK

> Posta bidezko botoa

Elgetako EAJtik jakinarazi nahi dute martxoaren 1eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa ematera joan ezin dutenek aukera dutela posta bidez bozkatzeko. Interesa dutenek otsailaren 17a baino lehen dei dezakete telefono hauetara: 943 76 81 47 (Begoña Ardanaza) edo 615 00 90 32 (Maria Jesus Lete). Bestela, otsailaren 9an edo 11n Domingo Iturbe kaleko (8) beheko lokaletik pasa, 18:00etik 19:00etara bitartean.

JAIAK

> Inauterietako herri afaria

Gaztetxeak antolatuta herri afaria egingo dute otsailaren 20an, barikuan. Menua ere era- bakia dute jadanik: entsalada marokoar erara, kuskusa oilas- koarekin, laranja kanelarekin, ogia, edaria, kafea, tea eta kopa. Afariaren truke 10 euro ordaindu beharko dira eta zenbat lagunendako gertatu behar duten jakitea komeni denez, aurrez eman behar da izena, Haizea tabernan; otsailaren 17a baino lehen, hain zuzen ere.

AISIALDIA > DANTZA

Barikuan dantzaldia izango da, erretiratuendako

I.A. > ELGETA

Espaloia Kafe Antzokian, 1944a aurretik jaiotako herritarrendako dantzaldia izango da otsailaren 7an, barikuan, 17:30ean.

Iaz Elorrioko Pantxo eta Pello taldeak Espaloian egindako emanaldiak arrakasta handia izan zuen erretiratuen artean; hortaz, aurten berriz antolatzea erabaki du Udalak.

210 erretiraturi bidali diete gonbidapena etxera, eta jende asko animatzea espero dute.

ANTZERKIA DATORREN ASTEAN

Musikaz arduratuko den taldea Naima izango da. Akordeoia eta teklatua erabiliko dituzte, besteak beste, erretiratua dantzara animatzeko.

Asteburu honetan dantza eta hurrengoan antzerkia izango da Espaloian. Maskarada konpainiak *Ohean* antzelana egingo du barikuan, 22:30ean. Bestalde, hilaren 27ra arte Jessica Llorenteñen *Luz* argazki erakusketa egongo da ikustgai.



Naima taldea arduratuko da dantzaldiko musikaz.

GOIENKARIA

Frontenis txapelketa

Nesken lehen partidua zapatuan

I.A. > ELGETA

Joan den aste bukaeran jokatu ziren frontenis txapelketako lehenengo bost partiduak, eta gizonetako jardun zuten nor baino nor gehiago. Aste bukaera honetan gizonetakoak ez ezik emakumezkoak ere izango dira kantxan. Partiduak zapatuan eta domekan jokatuko dira; zapatuan 16:00etan hasita eta domekan 11:00etan.

EMAITZAK

Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Josu Urizar-Jabier Gamarra	25-10
Sergio Bouzas-Adrian Gorostiza/Mikel Arkarazo-Josu Olasolo	25-23
Enaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Oskar Askasibar-Roberto Mora	25-12
F. Zenitagoia-Josu Arantza/B Jose Monterroso-Anton Pierruges	25-13
Asier Morales-Asier Osoro/Ander Gorosabel-I.a Untzetabarrenetxea	25-23

PARTIDUAK

Zapatua, 7

Josu Urizar-Jabier Gamarra/Oskar Askasibar-Roberto Mora
Ander Gorosabel-I.bon Untzetabarrenetxea/Mikel Arkarazo-Josu Olasolo
Fernando Zenitagoia-Josu Arantza/Asier Morales-Asier Osoro

Domeka, 8

Alizia Gartzia-Amaia Iribar/Garbiñe Sarasketa-Idoia Elkoro
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Jose Monterroso-Anton Pierruges
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Haritz Gallastegi-Enaut Arantzeta



San Martin eskolako ikasleak, makilak eskuan hartuta, baserriz baserri ibili ziren eguzten goizean Santa Agedako koplak abesten.

SAN MARTIN ESKOLA

SANTA AGEDA > SAN MARTIN ESKOLA

Eztarriz sano dabilzala erakutsi zuten eskolako umeek eguztenean

San Martin eskolako umeak, taldeetan banatuta, herriko auzoetan ibili ziren; txikitxoeneak Ibarrako kaleetan abestu zuten

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Eguazten goizean, dotore-dotore jantzita, San Martin eskolako umeak Aramaiko auzo guztietan zehar ibili ziren Santa Agedako koplak abesten. Eskolako nagusienek izan zuten auzoak alaitzeko ardura; txikitxoena, berriz, 3 eta 4 urte bitarteko hau-

rak, Ibarrako kaleetan ibili ziren kantuan. Giroa alaitzeaz gain, jatekoak eta dirua ere bildu zuten eskolako umeek: intxaurrak, txokolatea, txorizo, hurrik... Jasotako jaki horiek guztiak kaxatan sailkatu dituzte eta datozen asteotan, atsedenaldietan, Santa Ageda bezperan batutako txorizo eta

txokolatea jateko aukera izango dute. Dirua, berri, urte amaiarako irteerarako erabiliko dute. Joan den urtean, esate baterako, diru horri esker izozki gozoa jan zuten ikasturte amaiera egindako irteeran.

BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA
Eskolako umei Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek hartu zieten errelebua eguzten arratsaldean.

14:30ean herriko plazan elkartu ziren, eta, Ibarrako kaleetan zehar ibili ostean, baserrietara joan ziren, oinez. Baserriz baserri kantuan ibili ostean kalera itzuli ziren berriro ere. Horiek ere eztarriz sano dabilzala era-kutsi zuten; 22:00 ingurura arte jardun zuten kantuan.

argazki zaharra



Lagun Artea dantza taldea Aramaion

1961. urtean ateratako argazkia duzue hau. Egun berezia izan zen hura Aramaioarrendako. Izan ere, egun hartan Arabako Batzar Nagusiek Aramaion egin zuten topaketa.

Irudian agertzen direnak Aramaiko Lagun Artea dantza taldeko kideak dira. Helduendako talde moduan sortu zen arren, 1961erako gazte eta helduz osatutako talde polita zuten. Orain dela bi urte, 50. urteurrena ospatu zuten.

Argazkia: Aramaiko Udal Artxiboa.
Testua: GOIENKARIA.
Urtea: 1961.

UDALA

2009rako aurrekontua onartzea, atzeratuta

Gaur egun 2008ko aurrekontuarekin jarraitzen du lanean Aramaiko Udalak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
2009a hasi dugu, baina urte honetarako udal aurrekontuak itxaron egin beharko du. Udal Gobernuak azaldu du 2008ko aurrekontua luzatu egin dutela. Hau da, oraindik ere joan den urteko aurrekontutik geratutako diruarekin ari dira lanean. "Arazo bakkarrak da inbertsioak egiteko orduan ezin dugula 2008ko partidatik dirurik hartu. Gainontzean, ez dago inolako arazorik", azaldu du alkateak.

Idazkariak eta arkitektoak pasa den astean utzi zuten udaletxea eta kontularia ere berria da. Hori izan da atzerapenaren arrazoieta bat. Bestetik, Udal Gobernuak azaldu du 2009an inbertsio garrantzitsuak egingo dituztela eta aurrekontua ondo landu nahi dutela.



Basoko espiritu filma.

> ZINEMA
'Basoko espiritu' filma emango dute domekan, 17:00etan

Negozio gizon boteretsu batek errepeide bat eraiki nahi du. Hori horrela, D'Abondo andre maltzurrak basoarekin buatzeko aukera ederra ikusiko du. Errepeide hori dela-eta, basoko animaliek ihes egin beharko dute, baina Furi eta Linda satorrek eta Piorno saguak ez dute horren erraz etsiko. Haiekin batera hiritik etorri berri den Cebolo sator beldurtia ere basoan geldituko da.

Basoko espiritu marrazki bizidunen filma domekan eskainiko dute, kultura etxe-an, 17:00etan.

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

Gatz museoaren lehiaketa oinarriak onartu ditu udalbatzak

Gatz museoarekin batera, turismo bulegoa eta San Miguel plazan dagoen Labidea denda kudeatzeko izango da lehiaketa deialdia; bi urterako esleituko dituzte, beste bi urtez luzatzeko aukera eskainita

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak martitzenean, hilak 3. Eta martxoaren 1eko hauteskunde mahaietan egon beharko duten herritarra hautatu zituzten. Gatzagako eskolan jarriko dute bozkatzeko mahaia, betiko legez, eta hiru lagunek egon beharko dute. Horien ordezkoak ere izendatu zituzten. Hautatutakoren batek ezin egoteko arrazoien bat izanez gero, alegazioa aurkezteko epea dauka orain. Gainera, alegazioa udaletxeen bertan aurkeztu ahal izango dute gatzagarrek, eta handik bideratuko dute Bergarako epaitegira.

Bestalde, pilotaleku azpian dagoen garajeko lekuak behin betiko esleitu zizkieten izena emandakoei. Garajeak 17 leku ditu automobilendako, bi motorendako eta beste bi quadendako. Lau urterako da esleipena.

GATZ MUSEOAREN KUDEAKETA

Eugenio Otsoa gatz museoaren, turismo bulegoaren eta Labidea dendaren kudeaketa lehiaketara ateratzea onartu zuten, baita lehiaketaren oinarriak ere. Orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute deialdia.

Labidea denda eta turismo bulegoa orain dela sei urte zabal-



Udalbatza elkartuta, martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran.

M.A.

du zituzten. 20 urterako hartu zuten Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek, baina hori baino lehen uztea erabaki dute.

Eusebio Villar alkateak adierazi digu hainbat aldaketa egin dituztela lehiaketaren oinarrietan eta baldintza batzuk aldatzea erabaki dutela: "20 urterako ema-

tea asko iruditu zaigu, mila kontu sor daitezkeelako bitartean. Horregatik, bi urterako ematea erabaki dugu orain, beste bi urte luzatzeko aukerarekin". Gainera, oinarrizko produktuak dituen Labidea denda bideragarria iza-teko aldaketak egin dituztela iragarri zigun.

GIZARTE ZERBITZUAK > EMAKUMEAK

Emakumeen argazkiak jaso gura dituzte erakusketa egiteko martxoaren 8an

Gatzagako emakumeak protagonista diren argazkiak jaso gura dituzte

Udaletxera eroan behar dira argazkiok, otsailaren 23a baino lehen

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Gizarte Zerbitzuetako ardurdunek emakumearen gaineko argazki erakusketa jarri gura dute martxoaren 8 inguruan, Gatzagan. Horretarako, baina, herriaren lagunza behar dute. Hala, etxearen gordeta dituzten argazkiak topatu eta udaletxera eroatera animatu gura ditu Aina-rea Gabilondo gizarte laguntzaleak. Otsailaren 23a izango da argazkiok eroateko azken eguna.



Gatzaga eta inguruko neska txikiak, irakaslea erdian dagoela.

GATZAGAKO UDALA

ORIJINALAK JABEEI ITZULI

Gatzagako emakumeak protagonista izango diren erakusketa antolatu gura dute Gizarte Zerbitzuetako ardurdunek; lehenengo eta oraingo emakumeak, hain zuzen. Argazkian ez dira derrigorrez emakumeak bakarrik agertu behar, baina pertsonaia nagusia izan dadila eskatzen dute. Emakumeen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta erakus-

keta dotorea gerta daitekeela herrian uste du Gabilondok; horiaz, etxeetan gordeta dituzten sasoi bateko argazkien bila has-tea proposatzen du. Herritarrek ekarritako argazki horiek, gainera, itzuli egingo dizkiete jabe ei. Lehenengo eskaneatu egingo dituzte udaletxeen eta ondoren orijinalak itzuli, inolako kalte-rik izan ez dezaten.

SORGINAK ELKARTEAREKIN

Gizarte Zerbitzuetako ardurdunek Sorginak Emakume Elkarteo kideekin egoteko asmoa dute egitasmoen berri eman eta lagunza eskatzeko. Hain zuzen, Sorginak Emakume Elkarteo orain dela 20 urte baino gehiago sortu zuten Gatzagako emakumeek, eta urtero elkarren dira, martxoaren 8an, Ema-

kumeen Nazioarteko Eguna, batetik, eta urteurrena, bestetik, ospatzeko. Horrez gain, urtero egin dituzte bidaiak, baita ikastaroak eta hitzaldiak antolatu ere. Hala, argazki sorta galanta izango dute gordeta, bizenetan eta une asko jasotzen dituzten argazkiak; herriko emakumeen historia jasotzen duten argazki interesarriak guztiak.

> DEIALDIA
Batzarra egingo dute 'sorginek' martitzenean

Batzarrerako dei egin die Sorginak Emakume Elkarteak herriko emakumeei. Datorren martitzenean, hilak 10, elkartuko dira, Toki Eder elkartean (20:30).

Batzarraren arrazoia da martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna zelan ospatu erabaki eta antolatzen hastea. Herriko emakume guztien parte-hartzea oso garrantzitsua dela uste dute deialdia egin dutenek, iritziak jakin eta guztien artean antolatzeko ospakizuna. Orain arte Gatzagain jatetxeen bazkaria eginda ospatu izan dute eguna.

> HIRIGINTZA
Arlabango plan berezia aztertzen hasiko da Udalak

Iazko udazkenean aurkeztu zien Udalak herritarrei Arlaban gaineko plan berezia eta urtarriil hasieran bukatu zen alegazioak aurkezteko epea. Alegazio bi jaso zituzten udaletxeen eta orain horiek aztertzen hasiko dira.

Arlabango plan hori aurrera eroateko, gainera, Landagipuzkoa egitasmorra dirulaguntza eskaera egin zuten abenduan. Gatzagain inguruan ur depositua eraikitzea lagunza eskatu zuten -dirutza handia delako Udalerendako-, baina oraindik ez dute erantzunik jaso; laster etorriko dela uste dute.



Ezkerretik esku marea Eñaut Zubikarai, Jon Ansotegi eta Mikel Gonzalez, Arizmendiko Olarteko guneko jolastokian.

XABIER URTZELAI

ESANAK

"Epaileen erabakiak ez dira gure aldekoak izan, baina ez dugu pentsatu behar gauza arrarorik"

Mikel Gonzalez > Realeko jokalaria

"Liga amaieran sei talde ibiliko gara aurrealdean borrokan, eta biharko kontrarioa da bat"

Eñaut Zubikarai > Realeko jokalaria

"Arlo pertsonalean egindakoak ez nau arduratzen; taldeak irabaztea, hori da garrantzitsua"

Jon Ansotegi > Realeko jokalaria

FUTBOLA > REALEKO JOKALARIAK ARRASATEN

Zaragozaren kontra Realak "harrapar y pasar" egin behar du

Realeko jokalariak Arizmendiko Olarteko eta Gazteluondoko ikastetxeetan izan ziren

Olarten haurrekin batera dantzan egin, kamisetak sinatu eta opariak banatu zitzuten

XABIER URTZELAI > ARRASATE Martitzenean, goizeko entrenamendu saioa egin eta gero etorri ziren Mikel Gonzalez (Arrasate, 1985), Eñaut Zubikarai (Ondarroa, 1984) eta Jon Ansotegi (Berriatua, 1982) Arrasatera. Lagun baten etxean bazkaldu eta 15:00ak pasatxo iritsi ziren Arizmendiko Otarolako ikastetxera, gaztetxoenengana. Han, neska-mutikoen dantzan hartu zituzten, Realaren ereserkiaren bertsio modernoetako bat dantzan. "Mutikoren batek pena hartuko du, Realekoak datozena esan eta gu hirurok azaldu garenean", zioen Ansotegik brometan.

Realean badira eurak baino jokalari *mediatikoagoak*, baina gaztetxoek ondo zekizkiten euren izenak. Baloi, kamiseta eta banderatxo mordoa sinatu eta gero gaztetxoenen galderak erantzun zitzuten, eta hor lasai ziren hirurak, galdera horiek ez dira-eta kazetarienak modukoak. Neska-tilaren bati lotsa ematen zion

aurrez prestatutako galdera egitea, eta andereneoak lagundu zion: "Zelan da posible futbol jokalari guztiek *guapoak* izatea?". Arrasatekoak erantzun zuen, zintzo: "Uste dut hiruron artean ez dugu bat *guapo* egiten".

Olarteko neska-mutikoen agurtu ostean –joan zirenerako bat edo beste lo zegoen, andereneoaren besoetan–, Realeko ordezkariek Gazteluondon jarraitu zuten, han ere gazte mordoa zegoen-eta euren zain.

FUTBOLAREN GAINLEAN

Realeko jokalariek pazientzia galanta izan zuten neska-mutiko guztiekin sinatzen, eta lan hori amaitutakoan erantzun zieten GOIENKARIAREN galdererei. Has-teko, ezin kexatu Arrasaten izandako harreraz: "Egia esan, Gipuzkoako herrietan horrela hartzan gaituzte, eta guretako gozamena da, oso gustura egon gara". Eta Gontxa-ren kasuan, gainera, herrian: "Bai, norberaren herrian beti da berezia. Haurrei ilusioa egiten die gu hona etortzeak, eta baita guri ere. Gainera, gaur lagunekin etorri naiz; hortaz, ederto".

Taldeak joan den asteburuan lortutako garaipenari esker astea umoretsuago igarotzen lagundu diela onartu zuen Arrasatekoak: "Taldeak oso argi dauka zein den aurtengo helburua, eta Las Palmasko garaipenarekin beste aurrerapauso bat egin dugu. Badakigu oraindik asko geratzen dela, baina helburu horretara gerturatzan ari gara". Las

Palmasko partiduan, Ansotegi izan zen protagonistetako bat, gainontzeko taldekideen moduan defentsan lan oso ona egin zuelako: "Baina arlo pertsonalean egindakoak ez nau horren beste arduratzen, taldeak irabaztea, hori bai da garrantzitsua. Nahi-kor azkar geratu ginen hamar jokalarirekin, eta defentsako lana ondo egiteko kontzentratu ginen. Egia da sufritu egin genuela, baina azkenean ez genuen golik jaso, eta garaipena etxera".

REALAREN KONTRAKOAK, ERRAZ

Azken boladan epaileak egiten dabiltsan lanaren gainean ere egin genuen berba –Gai horren gainean Realak dagoeneko egin du berba futbol federazioko presidente Villarrekin–. "Egia da bizpahiru partidutan epaileek hartutako erabakiak ez direla gure aldekoak izan. Baina ez dugu gauza arrarotan pentsatu behar. Batzuetan aldeko erabakiak dira, baina aspaldian kontrakoak jasotzen ari gara".



Zubikarai eta Gonzalez, Arizmendiko haurrekin batera; Ansotegi atzean, neska-mutikoen artean ia gordeta.

XABIER URTZELAI



Arratzain

Arratzain Zahar baseria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 36 66 63


- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- “Tolare” sagardotegia



Elutxeta

Elutxeta baseria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erredegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- “Tolare” sagardotegia



Iparragirre

Iparragirre baseria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10
www.iparragirre.com

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gaez
- Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- “Zabadiz” banatzale ofiziala
- “Tolare” sagardotegia



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.

EGIN TXOTX!

sagardotegietan



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67


- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrak zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- “Tolare” sagardotegia



Rezola

Ipintza baseria / ASTIGARRAGA
943 55 27 20 / 608 14 33 32
rezolasagardotegia@euskalerria.org

- Urte osoan txotxetik zabalik
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita
- “Tolare” sagardotegia



Unzueta

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua: 27 €
- Berezitasuna: txuleta
- 70 lagunendako tokia
- Parking eta terraza



Zabala

Garagartza baseria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

- Urtariletitik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an eta 2006an irabazoleak.
- Botilak salgai urte osoan
- “Tolare” sagardotegia

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aloña eta Mondra, derbia domekan

Oñatiko taldeak Tolosan galduenak lidergoa errekuperatu gura du pattal dabilen Mondraren kontura (domeka, 16:30, Azkoagain)

XABIER URTZELAI > BERGARA

Aloña Mendi (37) eta Mondra (22) gorputzaldi erabat ezberdinean dauden bi talde dira. Jardunaldiak aurrera egin ahala geroago eta garbiago dago Mondrak denboraldi hasieran *galdu* zituen jokalariek (Urtzelai, Lopez, Altzoia, Rueda...) gura baino hutsune

handiagoa utzi dutela, eta Azkar-gortaren taldeak denbora beharko duela atzetik datozen gazteak kategoriara egin eta sailkapenean aurrerago ikusteko.

Aloña bestelako egoeran dago. Jokalari gazteak dituzte, bai, eta Elgarresta moduko jokalari garrantzitsuren bat edo bes-



Arrola eta Txonan, Mojategin jokatutako partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

te galdu dute. Bain, lehenbaile-hen moldatu dira Azkoagain berrira -oraindik ez dute etxearen partidurik galdu-, eta aurrealde-

an egoteko gaitasuna dutela sinistrazatza daude, zenbakiek erakus-ten dute-eta hori. Bain, gogora-tu domekakoa derbia dela.

ARETXABAleta IRUNERA

Joan den astean Vaskoniari ira-bazita, UDAk (37) aurretik atze-ra dabilen Real Unionen (32) kon-tra jokatuko du Gal futbol zelaian, bihar arratsaldean (17:30).

EMAN BOTOA POSTAZ

Aurreratu zaitez
Oso erraza da

Deitu **943 790 790**
(Astelehenetik Ostiralerera arratsaldeko 17'00etik 19'30etara)

Erantzungo dizugu
Informatuko zaitugu
Tramitea erraztuko dizugu

ANIMATU !!!
Otsailak 19a baino lehen

ARRASATEKO EAJ-PNV
www.gipuzko.com

EAJ PNV
jakin eta egin

EAJ PNV Jakin eta egin

PILOTA

Pilota jaialdia gaur Antzuolan

X.U. > BERGARA

Gaur gauean pilotari profesio-nalekin jaialdia egingo dute Antzuolan. BBK Binakako Txapelketaren barruan eskuz binako norgehiagoka jokatuko dute Bellosok eta Eskude-rok Aritz Lasaren eta Arruti-ren kontra.

LAU T'ERDI BARRUAN

Eskuz binako partiduaren ondoren jokatuko dute Lau terdiko partidua. Eta hor Ase-garceko bi pilotari izango dira aurrez aurre, Arretxe II.eta eta Koka.

Gaurko pilota jaialdia 22:00etan hasiko dute, eta sarrera 10 eurokoa izango da.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Real-Zaragoza.
Zapatura. 18:30. Anoeta.

Gazteen euskal liga
Aretxabaleta-San Marcial
Zapatura. 17:30. Ibarra.
Bergara-Lengokoak
Zapatura. 16:15. Agorrosin.

Preferente maila
Aloña Mendi-Mondra
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Real Union-Aretxabaleta
Zapatura. 17:30. Irun.

Lehen erregionala
Antzuola-Lagun Onak
Zapatura. 16:00. Estala.
BTLS-Zestoa
Domeka. 17:15. Bergara.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Illintxa
Zapatura. 18:00. Mojategi.

Bigarren erregiona. Igoera
Amara Berri-Bergara
Zapatura. 15:30. Donostia.

Ohorezko mailako gazteak,
Kopa eta jaitsiera
Beti Gazte-Aloña Mendi
Zapatura. 16:00. Lesaka.

Lehen mailako gazteak,
igoera fasea
Mondra-Urola
Zapatura. 16:00. Mojategi.

Lehen mailako gazteak,
Kopa
Bergara B-Aretx.Arizmendi B
Zapatura. 18:15. Ipintza.

Ohorezko mailako
kadeteak, igoera fasesa
Aretx. Arizmendi-Bergara
Zapatura. 15:30. Ibarra.

Ohorezko mailako
kadeteak. Kopa eta jaitsi.
Elgoibar-Aloña Mendi
Zapatura. 11:00. Mintxeta.
Ahorga-Arrasate
Zapatura. 11:00. Rezola.

Lehenengo kadeteak, igoera
Aretxabaleta-Sporting de Her.
Domeka. 11:30. Ibarra.

Lehenengo kadeteak, kopa
Aloña Mendi-Lagun Onak
Zapatura. 11:15. Azkoagain.

Bergara-Mutriku
Domeka. 11:30. Ipintza.

Emakumezkoak, igoera fas.
Touring-Arizmendi
Zapatura. 17:30. Errenteria.

Emakumezkoen kopa
Aloña Mendi-Etxebarri
Zapatura. 15:30. Almen.

SASKIBALOIA

Lehenengo maila. Igoera
MU-Padura
Zapatura. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako seniorrak
MU-Look And find Alza
Zapatura. 16:00. Musakola.
Alde Zaharra-Aloña Mendi
Zapatura. 20:00. Donostia.
Gazteluzar-Aloña Mendi
Zapatura. 17:00. Irun.
Lehioak Zast-Soraluce BKE
Zapatura. 18:00. Zarautz.

Gipuzkoako ligako senior
maila, emakumezkoak
Ordizia-Eskoriatza
Zapatura. 16:00. Ordizia.

Gazte maila, gizonetakoak
MU-Cafes Aitora
Zapatura. 10:00. Musakola.

Gazte maila, emakum.
Soraluce BKE-Bera Bera
Gaur. 19:30. Bergara.

Kadeteak, gizonezkoak.
MU-Internacional
Domeka. 09:45. Musakola.
MU-Udalatx-Internacional
Domeka. 11:45. Musakola.

Ohorezko mailako
kadeteak. Kopa eta jaitsi.
Aloña Mendi-Easo Gros
Zapatura. 11:45. Zubikoa.
Kondepanadero. BKE-La Salle
Domeka. 11:00. Bergara.

Kadeteak, emakumezkoak.
Kraft-Eskoriatza
Zapatura. 09:00. Donostia.
Aloña Mendi-Easo Loyola
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Arizmendi-Mundaiz
Zapatura. 10:00. Intxaurtxue.
Bera Bera-Aloña Mendi
Zapatura. 16:00. Donostia.

Infantil, gizonezkoak.
LEK Ointxe-Internacional
Zapatura. 10:30. Musakola.

Easo San Patr.-LEK Arizmendi
Zapatura. 10:30. Donostia.
Elizatxo HKE-Aloña Mendi
Zapatura. 12:00. Hernani.
LEK Instituto-Larramendi
Zapatura. 12:00. Musakola.

Infantil emakumezkoak.
Aloña Mendi-Sidoren
Domeka. 12:00. Zubikoa.

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketa
El Pilar-Ford Mugarrir Arrasate
Zapatura. 19:00. Gasteiz.

Euskadiko txapelketa,
emakumezko preferentea
Verkol Aloña-Asador Batuta
Zapatura. 16:30. Zubikoa.

Euskadiko bigarren territorial maila
Arrasate-Groseko Cocinas
Domeka. 11:00. Arrasate.
Ereintza-Aloña Mendi
Zapatura. 16:30. Errenteria.

Federazio saria, gazteak
Talleres Chapime-Usurbil
Zapatura. 16:00. Musakola.
Citroen Chap-La Salle
Zapatura. 17:30. Musakola.

Jaiak Akilape-Bergara
Domeka. 10:00. Mutrikua.
JD. Arrate-Bergara Txiki
Zapatura. 16:45. Eibar.

ERRUGBIA

Euskadiko Txapelketa,
senior maila, gizonezkoak
Arrasate-Irun
Zapatura. 18:30. Mojategi.

Kadete maila
Durango/Arrasate-Irun
Zapatura. 17:00. Mojategi.

PILOTA

Pilotari profesionalen
jaialdia Antzuolan
Gaur. 22:00etan. (10 euro).
BBK Binakako txapelketa:
Bellosok-Escudero
Aritz Lasa-Arruti
Lau terdi barruan:
Koka-Arretxe II.a



> ANE
MENDIZABAL
24 urteko donostiar hori Miss Gipuzkoa da eta Entzumen eta Mintzaira ikasketak egiten dihardu. Huhezin. Han izan gara berarekin > 42



> MUSIKA
Dragonforce taldearen kontzertua bihar, Jam aretoan > 38

> LEHIAKETA
Imanol Sorondok irabazi du amodiozko gutunen lehiaketa > 39



Jorge Oteiza, haren *Adan eta Eva* izeneko obraren ondoan. Argazkia 1970eko hamarkadakoa da.

JORGE OTEIZA
FUNDazio MUSEOa

Bizitzaren ostean aurrera doan proiektua

'Bizirako proiektua'
Oteitzaren gaineko erakusketa ibiltaria dator gaur Arrasateko Kulturatera

Helburu informatiboa du ekimenak, eta Oteitza eta haren artea ulertzeko gakoak emango dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Artearen munduan Jorge Oteitz (Orio, 1908-Donostia, 2003) letra larriz idatzita dago. XX. mendeko Euskal Herriko –eta Espainiako– artean funtsezko izan den egilea da. Egilea eta eragilea, beste artistengar sekulako eraginaz duelako, horien inspirazio iturri izateraino. Oteitzaren obra teoriko zein plastikoak oihartzun handia izan du hamaika esparrutan, besteak beste eskultura, pintura, arkitektura, poesia, estetika, cinema, antropologia, hezkuntza eta politikan.

ERAKUSKETA IBILTARIA
Oteitzaren jaiotzaren mendeurrenaren harira antolatutako ekinena da. *Bizirako proiektua* du izenburu erakusketak, eta 2008ko udazken hasieran abiatu zen. Abiatu, bai, erakusketa ibiltaria baita. Eta dagoeneko hainbat herrian egin du geldialdia, hala nola Zarautz, Orio, Azkoitia eta Eibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu eta Jorge

Oteitzaren fundazio museoak laguntzen duen proiektua da, eta finean, izenburuak dioenez, Oteitzaren bizitza eta haren ibilbidea laburtzen du.

OTEITZA ULERTZEKO GAKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak jakinari duenez, erakusketaren helburua ez da Oteitzaren biografia osoaren inguruko azalpen sakona ematea, baizik eta "artista oriotarraren pentsaera eta sor-kuntha adierazpena ezagutaratzeko gakoak ematea". Hortaz, hel-

buru dibulgatzaile argia du. Bestalde, Kulturate moduko aretoentzat dago bereziki prestatuta. Hau da, arrazoi tekniko eta mantenu baldintzarik ezak direla-eta, Oteitzaren pieza originalak jaso ezin ditzaketen aretoentzat. Hala, artistaren obra handiak baino gehiago, haren arteari lotutako atal ezberdinen inguruko elementu informatiboa jarriko dira.

BOST ARLOTAN BANATUTA

Oteitza eta haren artea hobeto ezagutzeko erakusketak bost bloke ditu: lehenak biografia du hiz-

pide, eta bloke horretan Oteitzaren bizitza kontatzen da, testu eta irudiekien; bigarrenak atal bibliografikoak, Oteitzaren ahalmen sortzailea islatzen du. Horretarako artistaren argitalpenak era-kusten dira; gizarte eta kultura ekintza arloak, bestalde, Oteitzaren gizarte proiektu eta egitasmo pedagogikoak azaltzen ditu. Gainera, kultura ekintza eta sor-kuntzaren garrantzia azpimarratzen du, eta norbanakoaren eta gizartearen eraldaketarako oinarritzotzat aurkezten dira.

Laugarren sailean hizkuntza da protagonista. Oteitzaren jomuga izan zen euskara aurre-indoeuroparra eta hizkuntzaren arloan zuen mundu-ikuskeria erakus-ten dira; azkenik, erakusketako atal nagusiak Oteitzaren obra azaltzen du, haren bilakaera aztertzuz. Horretarako, artistaren eskultura lanen irudiak erabiltzen dira.

Hilezkor izatea lortu du Oteitzak, eta martxoaren 1a bitartean Kulturateko klaustroa izango da horren lekuko.

DEBAGOIENEAN

Bergaran eta Oñatin ere geratuko da

Erakusketa martxoaren 1a arte izango da Arrasaten. Martitzene-til domekara bitartean bisitatu ahalko da, 17:30etik 20:30era.

Gainera, Bergaran eta Oñatin ere egingo du geldialdia erakusketak, Aroztegi aretoan -apirilaren 3tik maiatzaren 3ra bitartean- eta kultura etxeen -maiatzaren 9tik eainaren 21era- hurrenez hurren.

DATUA

1.600

'OTEITZA' PANTAILAN

Testu eta irudi informatiboez gain, pantaila baten Jorge Oteitzaren 1.600 obraren irudiak proiektatu-ko dira, testu txiki baten lagun-tzaz. Eskultura lanak dira guztiak.



MUSIKA > KONTZERTUA

Laurobak pop kutsuko rocka joko du gaur gauean Eskoriatzako Inkernun

Laukote donostiarak 'Gauari gauarekin' izeneko lehen diskoa aurkeztuko du, 22:30ean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Pop kutsuko rock musika entzun ahal izango dute gaur, egubakoitza, gauean Eskoriatzako Inkernu tabernara joaten direnek. Lauroba laukote donostiarra agertoki gainera igoko da 22:30ean, *Gauari gauarekin* izeneko lehenengo diskoa aurkezteko.

Utik eta Hamaika bide musika taldeetan ibili ostean, 2004an Lauroba proiektua osatu zuten Iker eta Haritz Lauroba anaiek Intxaurrendon. Handik gutxira, Alain Urkola taldean sartu zen. 2005eko neguan bederatzi abestiz osatutako maketa kaleratu zuten eta handik hilabete batzueta, 2006ko Donostia Hiria Pop-Rock lehiaketa irabazi zuten.

Horri esker, lau abestiz osatutako diskoa kaleratu ahal izan zuten 2007ko martxoan. Taldea

Borja Fernandez baxu jotzailearekin sendotu zen eta kontzertuak eskaintzeari ekin zioten.

HAMALAU ABESTI

2008ko otsailean, berriz, Tolosako Bonberenean sartu ziren eta iraupen luzeko lehen diskoa grabatu zuten; gaur Inkernun aurkeztuko duten lana, hain zuen. Gauetik sortutako euskal arrak hamalau abestiz osatuta dago. Kantuek eguneroko istorioak kontatzen dituzte; askotariko gaiak jorratzen baditzte ere, gauak berarekin dakartzanei garrantzia eman diente, hala nola, maitasunari edo sexuari. Esan bezala, donostiarrek 22:30ean emango diote hasiera kontzertuari.



Diskoaren azala. GOIENKARIA



Irudian, Dragonforce taldeko musikariak.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

Dragonforce eta Turisasen eskutik metala nagusi Jamen

Taldeak Jam aretoki agertoki gainera igoko dira bihar; 19:30ean hasiko dira sarrerak saltzen

M.B. > BERGARA

Bergarako Jam aretoan Dragonforce eta Turisas taldeen kontzertuak izango dira bihar. Sarrerek 24 euro balio dute eta 19:30ean erosoi ahal izango dira. Aretoko ateak 20:00etan irekiko dituzte.

Dragonforce talde britainiarrik iaz kaleratutako lana aurkeztuko du, *Ultra Beatdown* ize-

nekoa. Heavy metalaren jarraitzaileendako, oso lan preziatua. *Heroes of Our Time* edo *The Last Journey Home* kantuak entzun ahal izango dituzte zaleek.

Horrekin batera, baina, *Inhuman Rampage*, *Sonic Firestorm*, *Valley of the Damned* eta *Demon* diskotako abestiak joko dituzte. Dragonforcekoek gitarrekin

dutentzat jotzen dute.

TURISAS

Turisas talde finlandiarak ere egingo du emanaldia; viking metal eta folk metal jorratzen dituen taldea. Esanguratsuak dira egiten dituzten zuzenak, eszenaratzte ikusgarriei esker. A *Finish Summer With Turisas* izeko DVDA aurkeztuko dute.

V. EI BAR FACTORING

ASTELENA
FRONTOIAN

**SARRERA 1€
DOHAINIK 18 urtetik beherako
neska-mutilentzat***

* Saltoki batean 20 € baino gehiagoko erosketa eginez gero, Factoring-erako sarrera gatik ordaindutakoa itzultzea edo Txaltxa-Zelaiko parkingean 2 ordurako bonoa aukeratu ahal izango duzu

ORDUTEGIA

Otsailak 11, 12, 13
10:00-13:30 17:00-20:30
Otsailak 14
11:00-14:00 / 17:00-20:00

EUSKARA > AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

Imanol Sorondo hernaniarrak idatzi du maitasunezko gutunik ederrena

Jardun Euskara
Elkarteko antolatutako
lehiaketako bigarren
saria Leire Mendizabal
ordiziarrak jasoko du

Sari banaketa ekitaldia
hilaren 14an, egingo
dute, zapatua,
Bergarako kultura
etxeen, 12:00etan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Epaimahaiaren hitzetan, "galde-
retan oinarritutako gutun mis-
teriotsu, zehatz, trinko eta motza"
idaztegatik jasoko du Imanol
Sorondo hernaniarrak XVII.
amodiozko gutunen lehiaketa-
ko lehen saria (500 euro). Hala,
1996. urtean lortutako saria
berretsi du hark.

Maila nagusiko bigarren
saria (250 euro) Leire Mendiza-
bal ordiziarrak jasoko du, alar-
gun geratu den gizon batek emaz-
teari idatzitako gutunarengatik.
"Originaltasuna eduki arren,
sakontasunez idatzitako gutun
klasikoa" dela diote epaimahai-
ko kideek.

HITANOZ IDATZITAKOA
Bi sari nagusiez gain, Jerardo
Elortza idazleak, Oihana Bartra
bertsolaria, Rafa Rueda kanta-
riak eta iazko irabazole Alaitz
Sarasolak osatutako epaimahaiak
bergararrek idatzitako
gutun onena aukeratu zuten.
Uxue Agirre eta Elene Etxanizek
elkarrekin hitanoz idatzitako
gutuna aukeratu dute: "Gutunak
freskotasuna du, eta sentimen-
duak ondo adierazten ditu".

EPAIMAHAI GAZTEA
26 urtetik beherako gutun one-
naren eta SMS bidezko mezu
onenaren sariak Bergarako ikas-
tetxe ezberdinak ikasleez osa-
tutako epaimahaiak aukeratu
zituzten. Hain zuzen ere, Mad-
di Larreak, Amaia Arrayagok,
Asier Kortabarriak, Nerea Mar-
zok, Amairu Mayok eta Enara
Montielek osatu zuten epaima-
haiak.

Nagore Gonzalez legazpi-
rak idatzitako gutuna aukera-
tu zuten (100 euro). Koma ego-
ran dagoen emazteari gutuna
idazten dio Unaik eta euren sem-
aren inguruko gorabeherak kon-
tatzen dizkio. Epaimahaiaren
ustez, "gutun polita eta senti-
menduz betea. Orijinala eta
ezberdina".

Bestalde, SMS bidezko mezu-
rik onena (90 euro) Ibon Segura
eskoriatzarrak idatzitakoa zela



Irudian Gazteen saria eta SMS bidezko saria aukeratu zuen epaimahai taldea. M.B.

erabaki zuten; hain zuzen, *Zure begiek hitz egiten dutnean, nire ezpain ezin dute hitzik asmatu.*

LAN GUTXIAGO

Jardun Euskara Elkarteko anto-
latuko lehiaketara iaz baino par-
te-hartzaile gutxiago aurkeztu
dira: 48 gutun eta SMS bidezko
zortzi mezu. Epaimahaiaren

ustez, "maila askotariko gutu-
nak daude, batzuk klasikoak eta
beste batzuk orijinalak; baina
gehienak gutun malenkonial-
tsuak eta tristeak" dira.

Sari banaketa ekitaldia zap-
tuan, hilaren 14an, egingo dute
Bergarako kultura etxeen.
12:00etan. Imanol Sorondok
gutun irabazlea irakurriko du.



Imanol Sorondo, 1. saria. GOIENKARIA



Leire Mendizabal, 2. saria. GOIENKARIA



Uxue Agirre eta Elene Etxaniz, Bergarako onenak. GOIENKARIA



Nagore Gonzalez, Gazteen saria. N.G.



Ibon Segura, SMS saria. GOIENKARIA

GUTUN IRABAZLEA

Aspaldiko,

Eskutitz hau idazten hasi naiz baina gogoa daukat hemendik
urren, oso urrun. Itsasoaren uluei gor, kaleko argi bereziei
itsu, burua nere paperetan murgilduta dago, baina gogoa
ihesi. Kanpoan, elurteak pekatua estaltzen ditu oharkabean,
doi-doi, itsasoaren amorrak lurraldekin berdintzen ditu paseoko
farolak, txiki-txiki.

Baina ni, ez nago hemen, gauak bere zirimola eroan eraman
nau beste behin, bahituta. Une hau izozturik dago, bihar ez du
esistitzen. Belarrietan musika bat, astindu ezinezkoa, eztia eta
zorabiatzailea.

Eta ezustean, burua altxa eta ikuspegia txunditu nau. Zure
leihoan argia ikusi eta itzal baten irudi lausoak zu ote zaren
galdu dit. Itzuli al zara honezgero? Erabaki al duzu ezer,
gureaz? Papera zuri ia, elurtuta ere, ukondoak minduta, zer ordu
ote da? hainbat denbora daramat hemen, hoztuta, eta bidaia
luze baten bueltan bezala, indargabetuta eta iparrik gabe nago.

Zure leihoan argia dago,
Nire baitan iluntasuna.

Haizeek urrunean deiadarka: erabaki al duzu ezer, gureaz?
Paseoko argiak kresalezko lainoa itota, ekaitzak argia eta
isiltasuna irentsi ditu. Egongo ote da inor han barruan, olatuen
infernu hotzean, bere bizia borrokatzetan inposiblearen kontra,
nire bihotzaren antzera, zuk utzitako suntsipenean arnas arrasto
bat aurkitu nahirik.

Zure leihoan argia, nire begiak itxita, itsasoan paseoaren
gainerik jauzika eta begietan halako min bat, gainezka. Ez
dakit... erabaki al duzu ezer?

Joan egin zinen, laino zuriz margotutako arratsalde harten,
ezer esan gabe, eta bihotza lokatzu egin zitzaidan. Telefonoa
nirekin sartu nuen ohean, baina hoztu egin zen hala ere.

Paperekin mendi bat eraikitzen aritu naiz, zuri idatzitako
gutunekin, dakizkidan malko guztiak gastatu arte zirriborratu
ditut, zintz egin eta negar bihurtu nahi nuen azken iraina hustu
arte ez dut atsedenik hartz.

Eta, azkenik, pospolo xume batekin guztiari su ematera
nindoanean, argia ikusi dut zure leihoan. Betirako galdu zela
uste nuen itsasargia begiztatzean bezala, txunditura geratu naiz.

Telefonoa hor datza, hil antzean, ordulariko orratzek
etsipena adierazten dute, jaikitzeo orduak hartzan. Itsasoak
paseoa txikitu nahi du eta niri berdin zait. Axola zitzaidan guzti
hautsita dago aspaldi. "Erabaki al duzu ezer, gureaz?" Idatzi dut
paper zahar batean eta pilara bota dut. Kalea zuri dago, elurpe-
an, paseoa ere zuri, aparretan hondoratuta, olatuei amore
emanda. Anbulantzia baten argiak ikus ditzaket, zarata entzutea
ezinezkoa da, bihotzaren taupadak entzun ditzaket soilik,
zatozte! hona hemen bihotz zauritu bat.

Etxetik atera beharko dut, ekaitzari aurre egin eta, zure
leihoaren azpitik pasatzu, nire bidea jarraitu. Berandu egiten
zait. Berandu egin zait, eta dagoeneko ez zait axola itsasoak
paseoa ezabatu ote duen eta zuk zer erabaki duzun. Banoa,
zigarroa piztu eta paperei su emango nieke azkenik, baina ez dut
erretzen eta paperak gero jasoko ditut, agian aurkituko dut
behin idatzi nizun karta polita eta paseoko hondakinetara
harrika botako dut.

Itzal dezakezu argia, ez daukat beldurrik jada. Baretuko da
itsasoa, hartuko dut telefonoa eta, ahoz ahokoa eginda, hizketan
hasiko da.

Agurtzane.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. 90 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, egon-gela, sukaldetua, trasteleku eta garajea. Jantzia. 2006koa. 270.000, negoziagarriak. 690 73 64 16.

Arrasate. Bi logelako etxebizitzak salgai ederdiak. Eraikin berria. Igogaiuarekin. Lehen 61 milioi peseta, eta orain 39. 943 77 13 02.

Arrasate. Etxebizitzak salgai. Bi logela. Eraikin berria. Olarte kaleari begira. Komunitatea gas-tu oso txikiak. 619 59 28 47.

Bergara. Etxebizitzak salgai. Herri Lagunak kalea 4, 1.a eskuma. 678 53 40 43.

Bergara. Etxebizitzak salgai. Zabalotegi kalea 6, 1.a ezkerri. 678 53 40 43.

Oñati. 89 metro koadro erabilgarri etxebizitzak salgai Olar-kuia. 9an. Sarrera-korridorea, egongela, sukaldetua, bi komun, hiru logela, trasteleku eta bakoia. Bi igogaiu. 13 metro koadro garajea. 626 41 09 03.

Oñati. Etxebizitzak salgai Zubillaga auzoan. Eraikin berria. 80 metro koadro eta 17 metro koadro garaje ixtarekin. Prezio interesgarria. 210.350 euro guz-tira. 943 78 07 15.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bi logelako etxebizitzak ematen da errentan. Hile-an 500 euro. 943 77 13 02.

Arrasate. Etxebizitzak ematen da errentan Loramendi 6an. Unibertsitatem gertu. Hiru logela, lau ohe. 685 75 05 87 edo 943 79 99 50.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitzak ematen da errentan Jose Luis Iñarra kalean. Deitu 639 96 01 21 telefonora.

Benidorm. Apartamentua ema-tent da errentan erdigunean. Lau pertsonarendako egokia. Lekurionenaren. Hondartzetik gertu. Argitsua. 943 79 16 32 edo 679 25 58 63.

Bergara. 81 metro koadro etxebizitzak ematen da errentan Bolun. Erdi jantzia. Deitu 657 79 45 61 telefonora.

Oñati. Bi logelako apartamen-tua ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 22:30ak artean. 699 78 47 49.

Oñati. Etxebizitzak ematen du errentan martxo edo apirilean aurrera erdigunean. Hiru logela ditu. Jantzia eta oso egoera onean. 670 30 60 98.

104. ERRENTAN HARTU

Apartamentua. hartuko nuke errentan Debagoieneko edo zein herrian. 663 72 78 23.

Arrasate. Etxebizitzak hartuko nuke errentan. 618 14 71 34.

Bergara. Erdialdean etxean erren-tan hartukondu. 669 64 76 28.

Bergara. Etxebizitzak bila nabil nire bikotekidearekin batera. Iris. 610 91 33 40.

Bergara. Etxebizitzak hartuko nuke errentan. 618 93 59 29.

Bergara edo inguruan etxe-bizitzak txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60.

Bergaran, Antzuolan edo Oñati familia batek errentan har-tuko luke etxebizitzak. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

Debagoina. Etxe txikia hartuko nuke Arrasate, Eskoriatza, Bergara edo Aretxabaletan. 626 82 16 20 edo 646 56 62 78.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldetua eta egongelarako eskubidearekin. Pertso-na heldua bada, hobeto. 666 73 73 21.

Arrasate. Pertsona arduratsuak logela behar du errentan. Hilabete honetan bertan sartzeko. 666 21 88 95.

Bergara. Bolu auzoan pertso-na bat behar da etxebizitzak osatzeko. Sukaldetua erabilitako eskubidearekin. Deitu 670 85 57 68 telefonora.

Benidorm. Apartamentua ema-tent da errentan erdigunean. Lau pertsonarendako egokia. Lekurionenaren. Hondartzetik gertu. Argitsua. 943 79 16 32 edo 679 25 58 63.

Bergara. 81 metro koadro etxebizitzak ematen da errentan Bolun. Erdi jantzia. Deitu 657 79 45 61 telefonora.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Bergara. Garaje itxita salgai San Antonio kaleko 11ean. Deitu 658 75 57 49 zenbakira.

3/ LOKALAK**303. ERRENTAN EMAN**

Arrasate. 400 metro koadroko lokal komertzial edo industria-ka ematen da errentan San Andres auzoan. Leku onean. 943 79 16 32 edo 619 27 45 57.

ANTZUOLA**Ongi etorri jatetxea****errentan ematen da. Martxa oneko negozioa.**

943 78 62 98

ETXEBIZITZAK SALGAI**Bergara:**

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbarekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerreka, 95 m², oso ondo.
- Masterreka, 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintzu 62 m². Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 55 m². Berritua. 114.192 €.
- Etxebizitzak berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:

- Buztizuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoko auzoa Etxe onak.
- Errekale 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguizi auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEAK OSATU

2. GARAJEAK

- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. ETXEAK OSATU

3. LOKALAK

- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

4. LANA

- 401. ESKAINITZAK
- 402. ESKAERAK
- 403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 604. KONPONDU
- 605. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

- 801. SALDU
- 802. EROSI
- 803. EMAN
- 804. HARTU
- 805. TRUKATU
- 806. GALDU
- 807. AURKITU
- 808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

10. RELAX

- 1001. SALDU
- 1002. EROSI
- 1003. EMAN
- 1004. HARTU
- 1005. TRUKATU
- 1006. GALDU
- 1007. AURKITU
- 1008. BESTELAKOAK

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAREN ORDAINDUTAKO ATALAK:**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

INSTITUTO OPTICO

Saltzailea behar da Arrasateko optikan lan egiteko. Egun osoa. Epe luzerako lana. Deitu astelehenetik aurrera.

663 12 01 32

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

Debagoina. Esperientziadun ile apaintzailea egun osoz lan egiteko gertu. 695 78 57 37.

Debagoina. Garbiketan edo lorrezailean egiteko gertu nago, bailara osoan. Peoi moduan. Alex. 647 19 36 95.

Debagoina. Igeltsorik ikas-tekak eginda dituen gizonezkoa gertu edozein lan egiteko. 680 88 22 82.

Arrasate. Neska euskalduna gertu etxekarbitu edo jostea lanetan egiteko. 678 66 59 54 edo 943 79 12 02.

Debagoina. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 628 93 79 39 zenbakira.

Arrasate. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeo edo garbiketa lanetan aritzeko gertu. Legezko paperak eta erre-fere-entzak ditut. 618 14 71 34.

Debagoina. Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeo eta garbiketa lanetan aritzeko gertu. Esperientziadun eta erreferentzienak ditut. 634 84 11 72.

Debagoina. Mutila gertu lanerako gertu. 685 70 76 25.

Debagoina. Neska arduratsua, legezko paperak dituena, lane-rako gertu. Etxean bertan bizi egiteko gertu ere bai. 943 08 15 19 69 34 86 88.

Bergara. Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeo eta garbiketa lanetan aritzeko gertu. 6

max
cuenta | kontua

% 4
U.T.B.

ERABILGARRITASUNAREKIN
KOMISIORIK GABE

horrelako
kontu batek
hemengoa
behar zuen

Martxoaren 31 arte
Gehienezko zenbatekoa 10.000€

Interes-tasa %4 U.T.B. (%3,929 T.I.N.). 2009ko apirilaren 1etik aurrera une horretan Max Kontuan indarrean dagoen interes-tasaren arabera ordainduko da; egun U.T.B. %2an dago (%1,982 T.I.N.). Urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra irekitzen diren kontuetarako. Diru-sarrera eta itzulketetarako gutxieneko zenbatekoa: 2.000 €. **Ez du helbideratzerik onartzen.**


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ane Mendizabal > Miss Gipuzkoa

"Moda mundua esperientzia polita den arren, irakasle ikusten dut nire burua"

Ane Mendizabalek adierazi digu badakiela askotan jendea begira geratzen zaiola, baina "nor-

malean ez naiz konturatzen", esan du. Miss lehiaketara aurkeztu zen "aukera ona zelako"

eta disfrutatzen ari dela esan digu, esperientzia berria bizi izaten. Moda mundua esperientzia

politza den arren, etorkizunean irakasle moduan ikusten du bere burua.

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Ane Mendizabal 24 urteko donostiarra da. Gizarte Hezkuntza ikasketak eginda ditu, eta aurre Entzumen eta Mintzaira amaituko du Eskoriatzan. 15 urte zituenetik dabil murgilduta moda munduan eta Europaren egin ditu hainbat desfile. Abendu amaieran Gipuzkoako neska eder ofizialaren titulua eskuratu zuen. Eskoriatzara eskoletara etorri dela aprobetxatu dugu bera-rekin hitz egiteko.

Aurtengo Gipuzkoako neskariak ederrenak Eskoriatzan ikasten du. Ez da arraroa egiten jendeak begira-begira gelditzea askotan?

Hasteko, ni ez naiz Gipuzkoako neskariak ederrena, eder ofiziala baizik! Egia da askotan jendea begira geratzen dela, baina ni normalean ez naiz konturatzen. Nire alboan doazenek esaten didate jendea biratzten dela, baina esan bezala, zorionez, ohartu ere ez naiz egiten, oso lotsatia bainaiz.

Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?

Aukera on moduan ikusi nuelako aurkeztu nintzen. 15 urte zituenetik daramat moda munduan sartuta, eta orain, 24 urte-rekin, agentziako zuzendariak aurkezko proposatu, eta baiezkoia esan nion. Nik uste dut aukerak aprobetxatu egin behar direla, eta horretan ari naiz, esperientzia ezberdina bizi izaten.

Nola moldatzen zara astean zehar? Nolakoa da egun normal bat?

Egunek normalak izaten jarraitzen dute, oso normalak. Goizetan praktiketara joaten naiz. Aruten Entzumena eta Mintzaira amaituko dut, eta Donostia-ko eskola batean ari naiz praktiketan. Arratsaldeetan, berriz, astean bitan Eskoriatzara joaten naiz, eta beste bitan Atzegian ematen ditut idazketa eta irakurketa eskolak.

Zaila egiten da halako egoera batera moldatzea?

Egia esanda, nik moda mundu hau nahiko ezagutzen dut, eta niri orain arte moldatzea ez zait askorik kostatu.

Esaten da kanpotik ederrak diren emakumeak barrutik ez direla horrenbeste. Hori horrela da?

Nik uste dut hau pentsatzen duen jendea gutxi dela, edo,



JASONE ZABALA

PERTSONALA

Herria: Donostia. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Gizarte Hezkuntza. Aruten Mintzaira eta Entzumena amaituko du. **Zaletasunak:** Oboea jotzea (urte bat gelditzen zaio erdi maila amaitzeko), jostea eta mar-gotzea. **Zure neurriak?:** 84-61-90, gutxi gorabehera.

Irakurritako azken liburu?: Melania Mazzucco-ren *Ella tan amada*. **Bidaiatzeko leku bat:** Argentina. **Noren ondoan desfilatuko zenuke?:** Naomi Campbell. **Zer gorrotatzen duzu?:** Temperatura hotza. **Asteburu atsegin bat, norekin?:** Mutil-lagunarekin.

behintzat, hori pentsatu nahi dut. Barneko pertsona norberak egiten du. Baliteke ederrak diren pertsonak barrutik horren ederra ez izatea, baina barrutik oso onak ez diren pertsona asko daude, itxura fisikoa alde batera utzita.

Zure familiako norbait batabil edo ibili da moda munduan? Nondik datorkizu?

Nire familian ez da inor moda munduan ibili. Egia esanda, ni izan naiz lehenengoa. 15 urte zituenetik lehengusina baten senarrak gomendatu zidan, bideo lanak egiten zituen-eta agentzian. Beraz, nire gurasoei ni agentzian hastea proposatu zien. Proposatu, ondo pentsatu, eta azkanean baiezkoia eman genion.

Europa aldean ere ibili zara desfileak egiten, ezta? Nolakoa esperientzia?

Bai. Oso esperientzia aberasgarria da etxetik kanpo irtetea eta lekuak, kulturak eta jendea ezagutzea. Esperientzia polita izan da, eta nire burua egoera ezberdinatetan hobeto ezagutzeko balio izan dit.

Honen ondoren Miss Euskadi lehiaketa etorriko da eta gero Miss Spainia?

Bai, hala da, lehenengo, apirilean Miss Euskadi eta maiatzean Miss Spainia. Aruten Miss Spainia Tenerifen edo Dominikan Errepublikan ospatuko da.

Askotan lotu izan da moda kontua anorexia eta bulimia gaitzakin. Zer deritzozu?

Uler dezaket jendeak hori pentsatzea, neska argalak izaten garelako moda munduan gabiltzanok.

Neska askok dieta egiten dute, eta beste batzuk bulimia edo anorexia ere izatea posible da, edozein gaztek bezala. Baina esan beharra daukat nire kasuan eta ezagutzen ditudan neska askoren kasuan, jaiotzez argalak garela eta elikadura arazorik ez dugula, norberak jakin behar du mugak ipintzen.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna: desfileak egiten ala irakasle lanetan?

Errealista izanik, irakasle moduan ikusten dut nire burua. Moda kontua esperientzia ezberdinak bizi izateko aukera ona da, eta zortea izanez gero aprobetxatu beharrekoa, baina irakasle izan gurako nuke.

Hauteskundeetako eztabaidea saioa Goiena Telebistan

Kanpaina hasieraren bezperan, politikariekin eztabaidea saioa

GOIENKARIA > ARRASATE
Datorren astean hasiko da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen kanpaina, eta Goiena Telebistak egunekoan, otsailak 12, eskainiko digu lehenengo saioa, 22:15ean. Eztabaidea saioa izango da, eta alderdi politikoeetako ordezkariak bilduko dituztenean.

te mahaiaren bueltan: EAJko Joseba Egibar, Alderdi Popularreko Rafa Olaizola, Eusko Alkartasuneko Jesus Mari Larrazabal, Ezker Batuko Mikel Arana eta Aralarko Aintzane Ezenarro, hain zuzen ere. Horiez gain, Ezker Abertzaleko ordezkaria ere izango da eztabaidea saio horretan, baina oraindik ez dute zehaztu zeinek ordezkatuko duen Ezker Abertzalea.

GOITB, 'Hauteskundeak 09'
> Eguera, 22:15.
> Zapatua, 19:30.



Irudian duela lau urte Elgetako Espaloian egindako mahaingurua. GOIENKARIA

Arrasateko taldeak ikusteko

UBANE MADERA > ARRASATE
Arrasateko taldeen kontzertua antolatu dute 3.60 aretoan egubakoitzera, otsailaren 6rako: Foxy Boxxi, 5Twisters eta Lost Souls musika taldeek jardungo dute. Bada, kontzerturako sarrerak zozkatuko dituzte irratian. Baita Danbakako kamisetak ere. Eta opari eskaintza borobiltszeko, Gaztelupeko Hotsak diskotxeko hiru diskorekin osatutako sorta eta Elliot Murphyren gaineke liburua.

Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'
> Egubakoitzera (otsailaren 6a), 11:30etik 12:00etara.



Pausokaren 'Maroons' filma Goiena Telebistan

Zapatuan eta domekan, *Maroons* umeei zuzendutako euskalazko filma eskainiko dute Goiena Telebistan. Hileko lehen asteburuaren eskaintzen ditu euskalazko filmak Goiena Telebistak, eta oraingoan, Pausokaren ekoiztutako *Maroons* filma izango da.

Filmak hauxe kontatzen du: espazio-ontzi batek Lurrean lur hartzeta eta espazio-ontziko koadrila gure planetan bizi izaten hasten denean gertatzen direnak.

GOITB, 'Maroons'
> Zapatua, 15:30.
> Domeka, 09:00.

telebegi

Aitor Arregi
'aitor_arregi@huhezi.edu'

Tertulistoak

Astelehenean, *Telebegin* zer idatziko pentsatzen ari nintzela, bat-batean, miraria: Aspaldian telebistan ikusi dudan momenturik onena emititu zuten. Wyomingen errieta faltzua.

Gehienok jakingo duzue zer gertatu zen. *La Sexta*-koek, era anonimoan, Wyomingen pikatuta dagoen aurkezle bati bideo faltzu bat bidali zioten. Bertan Wyoming bekaria bati errieta faltzua egiten azaltzen zen. Aurkezleak amuari hozka egin eta bideoa egiazkoa zen kontrastatu gabe, bere saioan emititu zuen. Eta tertulia kideak bideoaren inguruan dantzan jarri zituen, ahotik puzkarka.

Prentsa erakundeak Wyoming kritikatu du etikotasun faltagatik. Eta tertulisten espektakuloa? Frogatu da nola funtzionatzen duten hauetako askok. Informazio-rik ezean, aurreiritzie distira atera eta ala! iritzia sortzera.

Fauna.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarritzeta, Euskal Herriko pertsona ezagun batetik)
Zaharrak Berri (pertsona nagusienak)
Udal Gaze Bulegoa
Sexologia Zerbaitza
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarriketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarreran ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.

astea GOITBn

Egubakoitzera, 6	Zapatua, 7	Domeka, 8	Astelehena, 9	Martitzena, 10	Eguaztena, 11	Eguera, 12
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Ur eta lur.	09:00 Filma: Maroons.	09:00 Filma: Maroons.	13:45 Erlor Klip.	13:45 Ikusmira:	13:45 Ikusmira:	13:45 Euskal herria lau
14:15 Eltze beroa.	10:30 Trikitraka trikiton.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	Nafarroa 1512.	Lekeitioko zine eta bideo bilera.	haizetara.
14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau	12:00 Erlor Klip	14:45 Berriak.	14:15 Eltze beroa:	14:15 Gure saltsan	14:15 Eltze beroa.
15:15 Berbaire.	haizetara.	12:30 Ikuksizuna.	15:15 Arte irekia:	Penkak txangurro betea.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
16:15 Ikusken.	12:30 Ikuksimira.	13:00 Erreportajea.	15:15 Manuel Fernandez.	14:45 Berriak.	15:10 Ilunpean.	15:10 Ilunpean.
16:45 Berriak.	13:00 Eltze beroa.	13:45 Solaskide.	15:45 Erreportajea.	15:10 Harmailatik.	15:50 Golb tb.	15:45 Golb tb.
17:15 Marrazki bizidunak.	14:30 Trikitraka trikiton.	14:15 Eltze beroa.	15:45 Gure saltsan.	15:45 Solaskide.	16:20 Erlor Klip.	16:20 Erlor Klip.
18:00 Ilunpean.	15:30 Filma: Maroons.	15:15 Gure saltsan.	15:45 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Solaskide.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:45 Danbaka	17:35 Erreportajea.	18:15 Ur eta lur:	18:00 Erreportajea.
19:45 Goiena Magazinea.	19:00 Erreportajea.	19:15 Erreportajea.	18:45 Berriak.	18:05 Harmailatik.	Oier Usandizaga.	18:45 Berriak.
20:45 Gure saltsan.	19:30 Berbaire.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
21:15 Goiena Magazinea.	20:30 Golb tb.	20:15 wasemak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
22:15 Solaskide.	21:00 Ikusken.	21:15 Euskal herria lau	20:45 Golb tb.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
22:45 Wsemak	21:30 Ilunpean.	haizetara.	21:15 Goiena Magazinea.	20:45 Wazemak.	20:45 Zaharrak berri.	20:45 Zaharrak berri.
13:45 Goiena Magazinea.	22:45 Erreportajea.	22:45 Berbaire.	21:45 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)	23:30 Wasemak.	22:45 Golb tb.	22:45 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:45 Euskal herria lau	22:15 Berbaire.
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegilaburra.	00:30 28 klip.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:00 Mugaz kanpo:	haizetara:	23:15 Erreportajea:
	01:00 Emisio amaiera.	00:00 Itsasora begira.	00:30 Goiena Magazinea.	Maroko.	Ebroren erribera.	00:45 Emisio amaiera.
		00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.		23:45 Goiena Magazinea.
				00:30 Emisio amaiera.		00:45 Emisio amaiera.

ezkонтzak



Arrasateko **Julen Fernandez** eta **Itsaso Buruaga** joan den zapatuan, urtarriaren 31n, ezkondu ziren Arrasateko udaltxean. Primeran igaro zuten eguna. Familiakoen partetik, zoriontsu izan daitezela.



Bergarako **Felix Martinez** eta **Carmen Martinezek** urrezko ezteiak ospatuko dituzte otsailaren 8an, domekan. Bihar, zapatua, beteko dituzte 50 urte ezkonduta eta domekan ospatuko dute mahaieren bueltan. Familiakoen partetik, zorionak eta eguna ondo pasatu.



Bergarako **Pablo Rodriguez** eta **Emili Sanchok** ezkondu zireneko 45. urteurrena ospatuko dute domekan, otsailaren 8an. Gainera, bien urtebetetzea da egun horretan bertain. Zorionak, seme-alaben partetik, bereziki Salamancan bizi diren seme-alaben partetik, eta June eta Unairen partetik.



Santiago Barrena eta **Maria Uriarte** otsailaren 7an ezkondu ziren Arrasateko San Juan parrokiian, orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak diren hauetan, zorionak opa dizkiegu seme-alabok eta anai-arrebok.



Bergarako **Felix Agirre** eta **Maria Josefa Arre** orain dela 50 urte ezkondu ziren, Antzuolan. Bihar, zapatua, familiartekoekin ospatuko dituzte urrezko ezteiak, Lasajatetxean egingo duten bazkariarekin. Zorionak, seme-alaben eta, bereziki, iloben partetik.

bono fotoa

Garmendia Ardoak LARCHAGO

Ardo botila packa*
zokzetatuko du GOIENKARIAK
asmatzaleon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA

Ekarrí txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Elgetako sarreran dagoen XVI.
mendeko etxe hau Monumentu
Historiko-Artistiko izendatuta
dago. Zein da bere izena?**
Argazkia eta galdera > Miguel Anjel
Elkoroberezibar

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
Arrasateko Saioa Zugasti.
Zorionak!
Erantzun zuzena: 30 urte.




OROIGARRIA

**Alberto
Zubiaga Berezibar**

Arrasaten hil zen 2009ko otsailaren 2an.

*Zure alaba Maitaneren
Muxibarko lagunak.*



Arrasaten, 2009ko otsailaren 6an.

MEZA

**Timoti
Etxebarria Altuna**

Elorrión hil zen 2009ko urtarrilaren 25ean, 66 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna etzi,
domeka, otsailaren 8an,
12:00etan Aramaiko
San Martin parrokiian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

MEZA

**Sor Gabina
Ugarte Beiztegui**

Murgia auzoko Jargiko baserrikoa

Bartzelonan hil zen 2009ko otsailaren 2an, 94 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza
zapatuan, otsailaren 7an,
19:00etan Oñatioko Mikel
Goiangeruaren parrokiian.



Ahizpa, iloba eta gainontzeko sendi guztia.
Oñatin, 2009ko otsailaren 6an.

ESKER ONA

**Magdalena
Yabar Alegria**

Bergaran hil zen 2009ko otsailaren 4an, 100 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuei,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 6an.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguzaten eguerdia baino lehen.

Eskelaren prezioa: 110 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,
bietan, argitaratuz gero, **150 euro**.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).



URTEURRENA

Juliana Aranzabal Albistegi

Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 8an, 12:00etan, Elgetako elizan.

Hainbeste orte gure
artean igaro ondoren
joan zaigu gugre ama eta amama Juli,
baina zure irribarre hori
ez zaigu sekula ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Emilio Alberdi Zabaleta

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 8an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jose M^a Aldanondo Ibabe

Bergaran hil zen 2009ko urtarrilaren 31n, 49 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko otsailaren 6an.

URTEURRENA

Teodoro Trojaola Jauregi

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 8an,
12:00etan Arrasateko Gesalibar auzoko
Santa Ageda elizan.

Nahiz eta gure ondotik orain urtebete alde eginda egon,
jakin ezazu gure bihotz bihotzean zaudela.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko haren emazte, seme-alaba eta biloben izenean



URTEURRENA

Felipa Esquibel Arriola

Bixente Galdosen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 8an,
12:00ean,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Pedro Arregui Aramburu

Oñatin hil zen 2009ko urtarrilaren 29an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2009ko otsailaren 6an.

URTEURRENA

Francisca Calvo Iñiguez de Heredia

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 8an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Jose Luis Anduaga Markuleta

Agustindar kanonigoa

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 7an,
19:30ean
Oñatiko Agustindarren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Carmen Barandiaran Balanzategi

Jose Azkarateren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko urtarrilaren 20an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko otsailaren 6an.

URTEURRENA

Maria Angeles Bolíbar Iribecampos

Lehen urteurreneko meza domekan,
otsailaren 8an, 11:00etan
Angiozarko Mikel Deunaren parrokan.

Gogoan zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Antonio Altube Beitialarringoitia

Juli Arreseren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 8an,
11:30ean
Aretxabaletako Jasokundearen parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Santiago Lonbide Gaztañaga

Aretxabaletan hil zen 2009ko urtarrilaren 50ean, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2009ko otsailaren 6an..

URTEURRENA

Maria Caballero Benitez

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 8an,
12:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Iñaki Irizar Leanizbarrutia

Bosgarren urteurreneko meza domekan,
otsailaren 8an, 12:30ean
Arrasateko San Joan
Bataiatzailearen parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatekia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Otsailak 6-13

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzateneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



BERGARA

> 'Ohean' antzezlan gaur Zabalotegin, Maskarada taldearen esku

Maskarada antzerki taldeak *Ohean* lana ekarriko du gaur Bergarara. Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro aktoreak dira protagonista nagusiak. Gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Sarrerak, 5 eurotan.

Musika



ESKORIATZA

> Lauroba taldeak lehen diskoa aurkeztuko du Eskoriatzan gaur

Lauroba talde donostiarra *Gauetik gauera* diskoko kantuak joko ditu gaur Eskoriatzan, Aitzorrotz kultura elkartearen esku. Power-pop estiloko euskarako 14 kantu batu dituzte lehen diskoa. Inkernu tabernan, 22:30ean.

Erakusketa



BERGARA

> '20 urte hegaletan', Benito Cantero eta Jose Agustín Gurrutxagaren argazkiak

Pol-Pol argazki taldeko Jose Agustín Gurrutxagaren eta Benito Canteroren argazki erakusketa. 1988tik hona egindako argazkien bilduma jarri dute ikusgai, 46 argazki. Aroztegi aretoan daude, otsailaren 15era arte.

Musika

ARRASATE

> 5 Twisters, Lost Souls eta Foxi Boxxi taldeen kontzertua

Rock&roll emanaldia
Arrasateko taldeen esku. Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean.

BERGARA

> Dragonforce eta Turisas Jam aretoan

Metal kontzertua britainiarrekin eta finlandiarrekin. Zapatuan, Jam aretoan, 20:00etan.

ARETXABAleta

> Torricelli-Fuente bikote argentinarra

Ganbera musika emanaldia egingo dute. Datorren egubakoitza, otsailak 13, Zaraia aretoan, 19:30ean.

OÑATI

> Corrado Masacciren txotxongilo erakusketa

Txotxongiloen mundu bat izeneko erakusketa ikusgai jarri du Masacci italiarrak.

Kultura etxeen, otsailaren 15era arte. Ordutegia: 18:30-20:30.

Deiak

BERGARA

> 'Gau bat Sidney' helduendako ipuin kontaketa saioa

Baltziskuetaren esku, helduei zuzendutako ipuinak. Eguenean, hilak 12, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan.

BERGARA

> Palestinari buruzko hitzaldiak Fernando Garateren esku

Komite Internazionalistak taldeak Palestinak egun bizi duen egoerari buruz bi hitzaldi

antolatu ditu Bergaran. Fernando Garate Komite Internazionalistako kideak Palestinan gertatzen ari dena zuzenean ikusteko aukera izan zuen udan.

Otsailak 6, 19:30ean, gaztetxean; otsailaren 11n, 19:30ean, kultura Etxean.

Ikastaroak

ARRASATE

> Bi ikastaro Ekin Emakumeak elkarrearen esku

Eskulan ikastaroa Bea Arregirekin martxoaren 18ra arte, martitzenero 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.

Orratz lanen ikastaroa ere izango da martxoaren 13ra bitartean, egunero 15:00etatik 17:30era.

Izenematea zabalik elkartean bertan edo 943 79 83 70 telefonoan.

BERGARA

> Bizikasi: pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa

Zahartzea eta dependentzia eta egoera zailei aurre egiteko moduak landuko dituzte, besteak beste.

Otsailaren 10ean, 12an, 17an eta 19an, 15:30etik 18:30era. Izenematea doanekoa da. Argibide gehiago Miguel Altuna institutuan, 943 76 93 94 telefono zenbakian.

ARETXABAleta

> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak. Pintura eskolak udazkenean hasi zituzten, baina oraindik leku daukate, eta eskulanetan ere bai.

Izen emateko Arkupera, 943 08 10 01 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek.

Erakusketak

ARETXABAleta

> Aretxabaletako Aratusteen argazki erakusketa

Tartean, herritarrek utzitako argazkiak izango dira ikusgai.

Arkupre kultura etxeen, otsailaren 28ra arte. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan: 11:00-13:00; domeketan itxita.

BERGARA

> 'Birziklatuz sortu' erakusketa ibiltaria

Birbira talde nafarrak birziklatutako hondakinekin erakusketa jarri du kultura etxeen, Ingurumen Hilabetearen barruan. Antolatzaileen asmoa da hondakin kontzeptua gaineko hausmarketa bideratuz sormena lantzea.

Kultura etxeen, martitzenero egubakoitza 18:00etatik 21:00etara. Zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara.


ARRASATE

> 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketa

Iaz izan zen Oteizaren jaiotzaren 100. urteurrenaren harira antolatutako erakusketa zabalduko dute gaur Arrasaten, Jorge Oteiza Fundazio Museoak eta Gipuzkoako Diputazioak antolatuta. Idatzizko eta ikus-entzunezko azalpenen eta argazkien bitartez, Orion jaiotako artista handiaren ibilbidea islatzen du, eta asmo dibulgatzalea argia du: artistaren urratzen norabidea eta jatorria azaltzea.

Kulturako klaustroan, otsailaren 6tik martxoaren 1era.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Emakume Txokoak antolatu-tako ikastaroak

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: pilates (hastapena), yoga (hastapena), autoestimua eta hazkuntza, barreterapia, dantza garaikidea, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eta euskara.

Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

ARRASATE

> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguzzenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzuen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABAleta

> Gaztxoei zuzendutako gitarra ikastaroa

14-16 urteko gazteei zuzendutako gitarra ikastaroa izango da otsailean Atxagazten, Unai Azkarateren esku. Saioak ondoko egunetan izango dira: otsailaren 12an, 19an eta 26an eta martxoaren 5ean eta 12an.

Aretxabaletako gaztelekuan. Argibideak Udaleko Gazteria Zerbitzuan edo 943 79 54 46 telefonoan.

ARETXABAleta

> Aredhana yoga eta psikoterapia elkarrearen ikastaroak

Psikoterapia taldea hamabostean behin, astelehenetan; yoga eta hazkunde pertsonala bihar, zapatua, otsailak 7; meditazio tailerra eta thailandiar masajea hilaren 14an.

Argibideak Aredhana elkartean, 616 96 57 95 telefono zenbakian.

ARETXABAleta

> Zuhaitzen inausketa eta argazkilaritzta digitala

Zuhaitzak zelan inausi behar diren ikasteko saioa praktikoa otsailaren 14an, 10:30etik 14:00etara. Argazkilaritzta digitalaren gaineko ikastaroa Ane Idigorasek emango du. Hastapen maila: otsailak 16 eta 23 eta martxoak 2 eta 9). Jarraian hobetze mailari ekingo diote.

Izenematea eta argibideak Loramendi euskara elkartean: 943 77 09 70.

ARETXABAleta

> Dantza libre topaketak hilean behin

Jaiki elkartek dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, egunean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Otsailaren 19an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefono zenbakian edo berenaiara@yahoo.es helbidera idatzita.

ESKORIATZA

> Amuska elkartearren ikastaroak martxoan

Eskoriatzako Amuska emakume elkartea, Udalaren eta Emakunderen laguntzarekin, hainbat ikastaro antolatu ditu martxorako: eskulanak, ehoziri-lanak (bolillo), pintura, patchworka eta antzerkia.

Otsailaren 16an eta 17an eman ahal izango da izena, kultura etxean. Bazkideen dako 30 euro, eta gainerakoendako, 40. Antzerki ikastarorako izenematea, 15 euro.

OÑATI

> 'Bularretik mintzora': Juan Karlos Alonsorekin saioa

Irakurketaren garrantzia haurren garapen emocional eta intelektualean, Juan Karlos Alonsoren eskuikitik.

Otsailaren 18an, 18:30ean, Oñatiako Haur Liburutegian. Guraso, hezitzaile eta interesa duen edozeinendako irekia,

Lehiaketak

ARRASATE

> AED elkarteko deitutako lehiaketak

Arrasate Euskaldun Dezagun elkartek 22. Arrasate Lehiaketak deitu ditu. Leintz eta Ugaran bailaretako 17 urtetik beherakoek har dezakete parte. Ipuinak, poesiak, komikiak eta bertsos paperak aurkez daitezke lehiaketara.

Lanak entregatzeko epea otsailaren 9ra arte dago zabalik. Argibide gehiago AED elkartean, 943 71 21 17 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Martxoak 8: kartel lehiaketa deitu dute

Arauak eta informazioa Emakume Txokoan (943 79 41 39) edo www.arrasate-mondragon.org helbidean. Lanak entregatzeko epea otsailaren 16ra arte dago zabalik.

ESKORIATZA

> II. Film laburren eta dokumentalen jaialdia

MUko ikasleei zuzendutako lehiaketa deitu dute. Fikzioa eta dokumentalak onartzen dira. 3.000 euro baino gehiago daude saritan. Lanak aurkezteko epea otsailaren 9an bukatuko da. Oinarriak www.huhezinema.com webgunean eskuragarri daude.

ARRASATE

> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak Labur-Laburrak film labur lehiaketa antolatu du, eta emakumeenganako biolentzia da gaia. Lan guztia DVD euskaran bakarrik aurkez daitezke, eta gutun-azal batean, lanaren eta egilearen gaineko datuak idatzi beharko dira. Gehienezko iraupenak 5 minutukoa izan behar du. Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian jaso daitezke.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik.



Revolutionary Road ***

Zuzendaria: Sam Mendes.

Aktoreak: Leonardo Di Caprio, Kate Winslet. AEB, 2008. 165 minutoi.

Sam Mendes antzerki zuzendari ospetsuak, duela hamar urte *American Beauty*-rekin zinemara debuta egin ondoren, *Camino a la perdición*, *Jarhead* eta orain estrenatu den *Revolutionary Road* zuzendu ditu. *American Beauty*-rekin badu lotura: biek AEBetako bizimoduaren azpitik dagoen alienazioa eta frustrazioa erakusten dute. Aipatutako lehen filmak kontatzen zuena nahiko dramatikoa izanez, gidoiak ironia eta esperpentoa erabilten zuenez, bazuen alde divertigarri bat. Ez da *Revolutionary Road*-en kasua. Filma melodrama baino gehiago drama da; ez digu negar egiteko aukerarik ematen, azaltzen zaigun tristura pertsonaien barruko tristura eta ezintasunetik dator eta ikusleak gertakizunek pertsonaiengen duten pisua nabarituko du eta sentituko duen tristura barruan geratuko da.

Filmeari, bi seme-alaba dituen bikote gazte baten istorioa kontatzen digu. Ekonomikoki ondo kokatua, sistemak saltzen duenez oztoporik gabe zoriontsu izateko. Bainan errealitatea bestelakoa da. Askotan gure burua engainatzen dugu, modu batekoak garela pentsatu nahi dugu beste modu batekoak garenenean, eta hori da Di Capriok egiten duen pertsonaiari gertatzen zaiona, abenturazale izan nahi du, baina funtsean gizarteaz ezarrita dauden balioak jarraitzen ditu. Winsletek egiten duen pertsonaiak beste bizimodu bat nahi du, itota eta engainatuta sentitzen da. Hor mugitzen da istorioaren gakoa, hau da, betebeharren zentzu kaskarraren eta ametsek duten sendotasunik ezaren arteko norgehiagoka.

Sam Mendesek dotoreziaz filmatzen daki, istorioaren pisu dramatikoa ateratzen du, eta horrekin zerikusi handia du aktore zuzendari bikaina izateak. Leonardo Di Caprioren lana aipagarria bada ere, Kate Winsleten nabarduraz beteriko interpretazioa benetan zoragarria da.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIÀ ANTZOZIA

El intercambio
Egubakoitzta: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

El reino de los chiflados
Domeka: 17:00.

La banda nos visita
Eguera: 20:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Siete almas
Egubakoitzta eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

La isla de Nim
Zapatua eta domeka: 17:00.

El último viaje del juez Feng
Eguera: 20:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Mamma mia
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

Street dance
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABAleta

ARKUPE

Los girasoles ciegos
Egubakoitzta eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelena: 16:00.

La isla de Nim
Domeka: 17:00.

Mil años de oración
Eguera: 19:30.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

4 meses, 3 semanas, 2 días
Egubakoitzta: 22:15.

FLORIDA-GURIDI

El desafío: Frost contra Nixon

17:30, 20:00, 22:30.

Cucus

18:00, 21:00.

Camino

18:00, 21:00.

La ola

17:30, 22:30.

Vicky Cristina Barcelona

22:30.

Mi nombre es Harvey Milk

20:00.

Eskasa: * Baleko: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Camino ***

España, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.

Benetako gertakizun baten oinarritutako filmak 11 urteko Camino ize-neko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratzen berri ditzu Javier Fesserren zuzendutako lanak.

Los girasoles ciegos ***

España, 2008.

Zuzendaria: José Luis Cuerda.

Aktoreak: Maribel Verdú, Javier Cámara.

Ourense, 1940. Elenaren senarra, Ricardo, ezkutuan ibizi da, jazarpen ideologikoarenagatik. Salvador abadea frontetik bueltan dator, eta Elena ezagutuko duaren semearen bitarre. Alarguntzat jota, emakumearekin obesjonaldu da.

Antonio Zabala

Sólo quiero caminar ***

España-Mexiko, 2008.

Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.

Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurretan egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzean dago. Bitartean, mexikar trafikatzel batzuk Espainiara iritsi dira, eta Anna kontratazen du.

Revolutionary Road ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Sam Mendes.

50eko hamarkadan, Frank eta April Wheeler bikoteak amets eta itxaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta ingurutzen dituen gizarte konformatistak aldenu nahi dute.

Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilak aktore izan nahi du Parisen. Gauzak koroplaitzen joango zaizkie.

La duda

AEB, 2009. Zuzendaria: John Patrick Shanley.

1964. urtean, New Yorken Bronx auzoko San Nicolas elizan. Flynn apaizak mojek zuzendutako ikastetxearen arau zorrotzak aldatu nahi dute. Flynnek ikasle beltz batzuk abusu duela kondenatu, Alysius moja apaiatzatzen kaleratzen ahaleginduko da.

Gomorra ***

Italia, 2008. Zuzendaria: Matteo Garrone.

Camorra italiarraren bortizkeriak sei pertsonen egenkorotakasuna baldintzatuko du. Horien artean bi lapur trakets, jostun beterano bat eta enpresari bat daude. Europako zineman sarietan irabazle nagusia gertatu zen bost sarietan, besteak beste, film onenaren saria eskuratu zu.



El intercambio ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Angelina Jolie, John Malkovich, Jeffrey Donovan.

141 minutoi.

Los Angelesen, 1928an giro-tutako filma. Langileak nagusi diren auro batzen ezkongabeko ama batek, Christine Collinsen, 9 urteko semea argutuko du zapatu goiz argitsu batzen, lanera joan aurreik... Hortik aurrera erabat aldatu da Christine Collinsen biziitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

nire aukera



Patxi Montero
Dantza irakaslea

Dantzarekin buru-belarri

Azken lau urteak kanpoan eman ditu Patxi Montero arrasatearrak: Irún, gurasoen jaioterrian, eta Extremadura aldean. Berriro itzuli da Elgetara, aspaldi han bizi da-eta. Lanari dagokionez, dantzaren eta Habori eskolaren inguruari dabil. Haborik giza heziketa jorratzen du, pertsonen heldutasunari arreta berezia emanez. Dantza betikidu gustuko eta orain dela lau bat urte hasi zen sakongo lantzen. Munduko dantzak erakusten dabil Eskoriatzan eta lasterketan Elgetan eta ibarreko beste hainbat lekutan hasteko asmoa du.

Oraingo aste bukaeran, zer?

Aste bukaerak jarduteekin lotzen ditut gehienetan, izan dantza (aste bukaeran Errerriarri noa) edo izan eskola: oraingoan Habori eskolarekin lotutako ekintzak Andaluzian direnez, etxeko lanak egin, familiairekin elkartu -Elene iloba txikiaren urtebetetze ospakizuna daukagu- eta lagunekin egoteko aprobetxatuko dut.

Zelako dantzak erakusten dituzue Eskoriatzan?

Munduko dantzen barruan edozein lekutako folkloreko dantzak sartzen dira. Hala ere, batez ere Europa aldeko dantzatzen ditugu, baita Armenia, Israel, Mexiko edo AEBetakoak ere. Parte hartzeko dantzak dira, ez ikustekoak. Talde izpiritua lantzeko zirkuluan, denok elkarrekin dantzatzeko moduko dantzak dira, aproposak edozeinek dantzatzeko. Dantzak ikasten jarraitzea ere oso gustuko dut; adibidez, Aste Santurako bidaukturak plana Errusiako dantzak ikasteko, eta momentuan Euskal Herriko plazako dantzak ikasten nabil martitzeno, Durangon.

Kazetaritza eta musika alde batera lagata orain, ala?

Lagata ez, baina aldatuta. Musika, dantzen bitartez lantzen dut orain. Eta Habori eskolako kazetaritza lanak ere egiten ditut, komunikazio arduradun gisa.

Edu Mendibil

San Blasa, eztarrirako arnasa

MURINONDO Bergarako Murinondo auzoko San Blaseko baselizan meza izaten da otsailaren 3an

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA "Hilaren 5a Santa Ageda; hilak bi Kandelario; santuen kalendario...", kantatu zuen behin Amets Arzallus bertsolariak. Santuen egutegian, baina, tartean bat falta da: San Blas, otsailaren 3koa, hain zuen ere; gurean ere hainbat auzotan ospatzen den eguna.

Eguazten goizean Bergarako Murinondo auzoko San Blas baselizarako bidea hartu zuten hainbat herritarrek. Opilak, kandelak, gozokiak... bedeinkatzea zen asmoa, betiere ohiturari jarraituz. Gloria Arozena urtero joaten da oinez kaletik. "Bedeinkatzeko beti ekartzen dugu zerbaite; batzueta opilak, gozokiak bestean. Gero, horiek janez gero katarrrorik ez da izaten, probatuta gaude gu", esan zigun baseliza kanpoan.

Kaletik ez ezik baserriatik ere gerturatzentz da jendea San Blasa. Ziurreta baserritik joan zen Cristina Ugarte, kandelak eta alabak etxeen egindako opilak esku artean zituela. "Fede pixka bat izanez gero, esaten dute San

Blas egunean bedeinkatutako jakia jatea ona dela katarrorik eta eztulik ez izateko; guk sinistu egiten dugu", esan zigun.

BASELIZAREN ARDURA ALDATU

Eliza leporaino beteta eta Jose Gabilondo auzo alkatea kanpoan jaia bertatik bertara jarraituz, opilak bedeinkatzera emazteak eramaten ditu-eta: "Fedea edo usadioa ez dakigu zer den, baina mantentzen dugu jatekoak bedeinkatzearena. Auzotik ez ezik kaletik ere jende asko etortzen da eta guretzat potzko da".

San Blas ostean Santa Ageda eta egun horretarako bada beste ohiturarik Murinondon. Egun horretan egiten dute baselizaren arduradunaren aldaketa. "Urteitik urterako, baserritik baserrira aldatuz joaten gara".

Aste bukaeran ez da ospakizunik faltako Murinondon zein San Blas eta Santa Ageda egunen aitzakian jaiak dituzten ibarreko beste hainbat auzotan.

San Blas egunez, bedeinkatutako opilak jan eta eztulak ihes.

OPILAK Bedeinkatzeko eramaten dituzte bergararrek opilak, gozokiak eta kandelak, besteak beste

JAIAK Aste bukaeran ere izango da ospakizunik, bai Murinondon eta baita ibarreko beste hainbat auzotan ere



MEZA San Blas egunean Murinondoko baselizan opilak, gozokiak eta kandelak bedeinkatu zituzten.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ahobero

"Ekonomia ez da orain baino gehiago hondoratu basketxeee eskerrak"

Miguel Martin > Spainiako Bankuen Elkarteko presidente

Gainera, sinetsi egin beharko diegu basketxeak direla gure salbatzaile krisiaren aurrean. Onura mordoa jaso arren diru publikoa ematen zaie eta euren beharretarako erabiltzen dute, benetan hondoa jotzean daudenei eta behar dutenei eman ordez.

iturri onetik

Arizmendi Dragons taldeak Zaragozan jokatuko du datorren egubakoitzean

Joan den astean Tau Baskoniako txapelketa irabazi eta gero, Arizmendi Dragons saskibaloi taldeko mutilek aurrera egin dute Series Colegiales txapelketan. Hala, hurrengo kaporaketa datorren egubakoitzean jokatuko dute, Zaragozan, Cai Zaragoza taldeak antolatutako txapelketako irabazolearen kontra. Orain goz 17 taldek jarraitzen dute txapelketan, eta dagoeneko 250 geratu dira kanpoan.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Telebista kitxuaz

Asteazken goizean izan nintzen HUHEZIn Goienaren sorrera azaltzen Ekuador eta Boliviak etorritako lagun multzo bati. Toki telebista egitasmoak bultzatzen ari dira han ere, beren nortasuna eta hizkuntza garatzeko bidean, hauek ere -guk bezala- tribuaren bizi iraupena helburu.

Kompromiso handiko pertsonak aurkitu nituen eta horren adierazle izan zen zelako zintzo adierazi zuten hizkuntzari eman beharreko tokiaz dituzten zalantzak. Hemen ere ezagutu dugu eztabaida hori: espainolez ere eginda eraginkorrago, euskarari toki duina emanda nahiko... Azaldu nien zergatik egin genuen guk euskalaren hautua eta haien begietan distira ikusi nuen, ausartzeko zorian zeudela iragarriz. Ia hiru ordu egin genuen elkarrekin, gozo, serio, pozik.

ai, ene!



Saltxitxa-txakurra, mozarroa ala benetako?

Inauteriak gertu daude eta jendea hasi da mozarroa gertatzten. Bada nork bere burua ez ezik txakurra ere mozarrotzen duenik.

<http://biboz.net/disfraces>



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu.e.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
www.gelatzu.com